

Goienkaria


Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARRASATE

URTEARI BEGIRATUA

2008



ARAMAIO > 14
ARETXABAleta > 17
ESKORIATZA > 35
LEINTZ GATZAGA > 44



ARGAZKIAK: GOIENKARIA

Eskerrik asko,
25 urte honeittan emundako indderragaitik.
Eta 25 Urte Barri On jarraiketako
danok alkarrekin Euskerien Herrixe eraikitten

(25)

Arrasate
Euskaldun
Dezagun

Zorionak eta
urte berri on!

AMETS
BENGOA
BRANKA
EDERRA
EXPRESS
IAMA
ITZALA
MONTE
OKORETEGI
OSTANTZ
RUMBA
TXOKO

URTARRILA



"Seguruuenik oraingo gobernu taldea inoiz egon den askeena da"

Iñigo Garitano > Udaleko Gizarte Saireko teknikari-burua



"Emakumearen rola amatasunari lotzen zaio neurri handi batean"

Esther Lizarralde > Emakume Txokoko arduraduna



GOIENKARIA

Saltokia 7.000 metro koadro handitu guran

Herriko dendarien artean hautsak harrotu zituen Eroskik egindako eskaera batek: 7.000 metro koadro handitu gura duela Zabaletako hipermerkatua. 20 dendarendako leku gura du, parkinga eta, oro har, espazio handiagoa. Ibai Arte merkatari elkarrekin salatu zuen baimena emanez gero Eroskik gainditu egingo lukeela legeak baimendutako azalera muga. Arrasateko Udalak du gai horren gainean erabakitzeko eskumena, eta uztaila ipini zuten erantzuna emateko epe-muga. Edozelan ere, azaroan oraindik ere ez zuten erantzunik eman.

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Eredaktozburua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Ubane Madera, Jokin Bereziartua, Arribas Barruso **Maketazioa** Iñaki Iturbe, Oxel Arrieta, Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortzitx Martín, Itxaso Bereziar, Aintzane Muramendiariar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate



OJD erakundeak
ikuskaratu astekaria

LAGUNTZALEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Aramaioko
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 25 05 • Faxa: 943 25 05 09

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 9.850 ale.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizun.

ION
leihoak

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAk
- ATEAK • ZOLUAk

**PVC, ALUMINIOA
ETA POLIURETANOA**



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73

Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com



Gabon zoriontsuak guztiol!

hileko esaldia

"Alderdi politiko guztiak Eusko Abertzale Ekintzaren txotxongilo hutsak dira"

Paco Gartzia > PSE-EEko zinegotzia

hileko datua

44,5

44,5 milioi euroko aurrekontua onartu zuten 2008rako; hain zuzen, 41,1 milioi euro udal jardunerako eta gainerako Iturbide eta Aukearen-dako. Kontra bozkatu zuten PSE-EEk eta PPk.

izen propioak



Igone Velez

IKERLARIA



Arkaitz Zubiaga
WIKIPEDIA



Ane Herrero
ESKUBALOI JOKALARIA

Espainiako txapelketa irabazi zuen Aloña Mendiko jokalari arrasatearrak, Euskadiko Selekzioarekin.

AURKIBIDEA

Urtarrila > 03

Otsaila > 04

Martxoa > 05

Apirila > 06

Maiatza > 07

Ekaina > 08

Uztaila > 09

Abuztua > 09

Iraila > 10

Urria > 11

Azaroa > 12

Abendua > 13

ARAMAIO > 14

ARETXABAleta > 17

ESKORIATZA > 35

GATZAGA > 44

OTSAILA



"Kontaktu handiko kirola da errugbia baina ez da hain gogorra"

Arkaitz Ibarguen
> Errugbi entrenatzailea



"Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du PSOEK"

Ino Galparsoro
> Arrasateko alkatea



GOIENKARIA

Pedro Biteri filantropoaren urtea

2008a Pedro Biteri Arana filantropoaren urtea izan dela esan dezakegu; izan ere, aurten bete dira Arrasateko filantropoaren jaiotzaren eta heriotzaren urteurrenak. Hain justu ere, hora jaio zela 175 urte bete dira aurten eta hora hil zela, 100 urte. Hori horrela, Pedro Biteri gogora ekartzeko hainbat ekimen egin dituzte aurten: Pedro Biteriren bitzitzak ikertzen beka deitu dute (Jose Letona beka); Arrasateko filantropoaren brontzezko bustoa egitea proposatu dute, hainbat zigilu prestatzea Biteriren irudiarekin eta hitzaldi sorta antolatzea.

hileko esaldia

"Nazio zapalduet eduki ditzakete 'konpetentziak', baina zero subiranotasun"

Antxon Mendizabal
> EHUKO irakaslea

hileko datua

4.263

Sahararen aldeko Nubi elkar-teek antolatutako jaki bilketan 4.263 kilo batu zituzten Arrasaten. Arroza izan zen gehien batu zena: 1.440 kilo. Guztira, gure ibarrean 12.716 kilo batu zituzten.



ATECE egoitza Aita Mennik kudeatu

Hartutako garun kaltea dutenen ATECE zentroa Diputazioaren gizarte ekintzen sarean sartu zen.



Des-Kontrol taldeari isuna

Ikusle bat nahi gabe mikrofonoarekin kolpea eman eta isuna ipini zioten; kontzertua izan zen dirua batzeko.

izen propioak



**Jose Mari
Salegi**
HARAKINA



Josu Otadui
EUSKALTZALEA



**Kerman
Azkarraga**
FUTBOL JOKALARIA

Kooperatibetako Baserriko txorizo-en Bilboko XII. lehiaketan lehen saria eskuratu zuen. 85 lehiakide-ren artean eskuratu zuten saria.


Amateur mailako Euskadiko selekzio-ko kapitaina da arrasatear gaztea. Hirugarren mailako Elgoibar taldeko jokalaria da.

JUBAR
ATEAK, S.L.



Urte berri on!

Ate sekzionalak




Pertsianak



- Garajeko ateak
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzakosistema automatikoak



MARTXOA



"Min egin dit ikustea dendak ohiko jardunean Carrasco hil ondoren"

Rafael Gomez > PSE-EEko zinegotzi ohia Arrasaten



"Egoera zailenetan aurrera egiten ikasi nuen Parisen"

Vanessa Sanchez > Kazetaria, ETB2ko 'Teleberri'-ko aurkezlea

Isaias Carrasco zinegotzi ohia hil zuen ETAK

Dolu egunak izan ziren Arrasaten martxoaren 7tik aurrerakoak, egubakoitz harten ETAK Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi ohia hil eta gero. Etxe aurrean hil zuten, autoan sartuta lanera ziohanean. Hiru seme-alabaren aita, AP-1 autobideko Bergarako ordainlekuaren zebilen lanean. EAEk izan ezik, gainerako alderdi politiko guztiak gogor salatu zuten atentatua. Adibidez, EB-Zutik koalizioak, EAERekin batera Udalean gobernuan zegoenak, gobernuaz uztea erabaki zuen. Hauteskundeetan ere islatu zen egoera, eta, adibidez, Arrasaten, sozialistak izan ziren nagusi Espainiako Gorteetarako Hauteskundeetan.



GOIENKARIA

hileko esaldia

"Ez diot inori opa gerra bat bizi izatea, eta, are gutxiago, neska edo mutiko bati"

Jesus Moreno > Espainiako Gerratik bizirik intendakoa

hileko datua

3.000

2008ko Merkemerkauak 3.000 bisitari inguru erakarri zituen Arrasatera. Uarkape pilotalekuak azoka berezi horretan 23 saltokik hartu zuen parte. Ludoteka ere ipini zuten, zerbitzu emateko.

AED elkartearren 25. urteurrena

Euskararen aldeko herriko elkartea nagusiaren 25. urteurrena gogora ekartzeko ekitaldiak iragarri zituzten.

Zentsura mozioa iragarri, eta egin ez

Atentatua ostean zentsura mozioa iragarri zuen PSE-EEK, baina gainerakoekin negoziatu aurretik.

> AISIALDIA

Biona taberna azken gaupasaren lekuko izan zen

Bionaren agur jaiak egin zuten martxoaren 1ean, 53 urteren ostean ateak itxi zituen-eta Zurgin kantoian zegoen Biona tabernak.

Lehengo eta oraingo belaundiak elkartu ziren zapatuko 05:30ak ingurura arte. Los Siete Magnificos and Friends taldeak gaur egungo batzuk –Never Surrender, Enboskada– eta lehenagokoak –RIPeko Jul eta Txerrera– batu zituen taula gainean eta haien jardun zuten, ikusleen gozamenerako, betikoa Bionako rock-and-roll sasoi mitikoak gogora ekartzen.

> KOOPERATIBA

Irudia eta izena aldatu ondoren, Mondragon Taldea bihurtu da MCC

Nazioartean Mondragon izenarekin ezaguna dela-eta, Arrasateko kooperatiba taldeak, MCCk, izena aldatu eta *Mondragona*ukeratu zuen aurrerantzean erabiltzeko.

Horrekin batera, irudia ere aldatu zuten eta elkarri eskua ematen dioten bi pertsona irudikatzen duen *M* hizkia aukeztatu zuten logotipo moduan. Leloa ere gehitu zioten horri guztiari: *Humanity at work (Gizatasuna lanean)*; eta baita kolorea ere: granate kolorea nagusi eta hari laguntzen laranja eta grisa.

ALDEDI

Biteri etorbidea 8 ARRASATE Tel.: 943 79 13 05

Zorionak eta Urte berri on!

APIRILA



**"Bakearen izenean
yoga komertzializatzen
ari dira"**

Jose Luis Armendia
> Yoga irakaslea



**"Gustatzen zait paperean
sartzea, baina agertokitik
jaisten jakin behar da"**

Ines Osinaga
> Irakaslea eta musikaria



GOIENKARIA

Udal agintarieiek desadostasuna eszenaratu zuten

Arrasateko alderdi politikoen arteko adostasunik eza agerian geratu zen apirilean egin zuten osoko bilkuran. Iñaki Carrascoren kontrako atentatuaren ondorioekin bueltaka, bost mozio aurkeztu zituzten eta azkenean bat bera ere ez zuten onartu, mozio batek ere ez zuen lortuta aurrera egiteko beharrezkoak zituen 11 botoak. PSE-EEk eta EAJk mozio bat aurkeztu zuten ("mozio etiko" moduan izendatu zuten), Aalarrek eta EAEk nork berea, PPK beste bat eta, hari alternatiba moduan, PSE-EEk aurkeztu zuen bosgarren eta azkeneko mozioa.

hileko esaldia

**"Gure gizarte
ereduan
familiak eta
ugalketak
garrantzi
berezia dute"**

Norma Vazquez > Psikologoa

hileko datua

13,4

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldeak 14,4 milioi euroko irabaziak lortu zituen 2007an. Emaitza horiei esker, Europen lehenagotik duen sektoreko bosgarren postuari eutsiko diola aurreikusi zuten.



Lau bider olio gehiago batzen da

Etxean erabilitako olioak batzeko edukiontzia ipini zituztenetik, laukoitztu egin da jasotako kopurua.



Arrasateko alkatea, Auzitegi Nazionalera

"Agintari judicialari desobedientzia egin zion akusaziopean deitu zuten Ino Galparsoro auzitegira.

izen propioak



**Gorka
Arexolaleiba**

SASKIBALOI
JOKALARIA


Kadete mailako MUkojokalari arrasatearrak Pauko txapelketa irabazi zuten Gipuzkoako selekzioarekin.



**Miren eta Mikel
Garai**

ENPRESARIK

Arrasateko bi empresariok Enpre-sa Digital saria irabazi zuten, *Ipargrama.net* sistemagatik; kudeaketa sistema da hori.



Mikel Arana

ARRANTZALEA

Sei egunean bahluta izan zituzten *Playa de Bakio* ontziko 25 arrantza-leak; tartean zegoen arrasatear gaztea. Apirilaren 26an askatu zituzten.



- zeramika • bainuak
- eraikuntzarako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20

URTE BERRI ON GUZTIOI!



MAIATZA



"Adimen urritasuna dutenak erabat baliodunak dira lanean"

Jesus Santa Cristina > JMAko giza baliabideen zuzendaria



"Arrasaten izan ohi den kaleko giroa ezin da Galesen aurkitu"

Egoitz Basterretxea > Ikaslea

Ino Galparsoro alkatea kartzelan sartu zuten

Milaka lagunek eskatu zuten Ino Galparsoro alkatearen kartzelaraztea eta arte berean greba orokorra egin zuten Arrasateko hainbat enpresa eta saltokitan. Apirileko azkeneko egunean Soto del Realgo (Madril) espetxeen sartu zuten Arrasateko alkatea, Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Gartzon epaileak baldintza barik eta behin-behinekoz kartzelaratzeko agindua eman ostean. Leporatu zioten "talde terroristarekin kolaboratzea" eta "ANVren jardueren etetea hautsi izana". Oihana Aranburu alkateordeak hartu zituen Ino Galparsororen ardurak, Galparsoro askatu zuten arte. Abuztuan utzi zuten kalean.



GOIENKARIA

hileko esaldia

"Ekarteek lan handia egin dugu euskara bultzatzeko, baina emaitza ez da ona izan "

Jon Azkoaga > AEDko kultura teknikaria

hileko datua

20

Arrasateko neska-mutikoen aisialdia arduratzen den Txatxilipurdi elkartea 20 urte bete zituen. Udarako udal-ku irekiak antolatu zituzten; aurrenekoak izan ziren gurean eta inguruan ere bai.

San Josepeko ideia lehiaketa

San Josepe harrobiak utziko duen zuloa betetzeko ideien lehiaketa antolatu zuten.

Langabe kopurua igotzen hasi zen

Maiatzean jakinarazitako langabeen datuek erakutsi zuten langabeak ugaritzen hasi zirela: 808 Arrasaten.

izen propioak



Zuhaitz Ezpeleta

KORRIKALARIA

Tarragonan jokatutako Espaniako Kopako bigarren proba irabazi zuen maiatzean, 380 parte-hartzailerentzat.



Antxon Hernandez

SASKIBALOI JOKALARIA

Euskadiko selekzioarekin entrenatzen hasi zen, Imanol Zeziaga eta Beñat Barberena herriki-dekin batera.



Hibai Garai

NOTHING WITHOUT

Skate-zaleen Arrasateko mugimenduak 10. urteurrena ospatu zuen. Mugimendu horren izean, besteak beste, saltokia dauka Hibai Garaik.

Uarkape jatetxea

2009a ere oparoa izan dadila!

Plater konbinatuak,
bokatak, eguneko
menuak, karta.

Otalora lizentziatua 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

EKAINA



"Ona da taldean egotea, gure premiak kontuan har ditzaten"

Jose Mari Aldekoa > Mondragon
Taldeko presidentea



"Emaile gutxiago dago, eta sentsibilizazio kanpainak behar dira"

Juanito Arriaran > ATCORE
elkarteko kidea



GOIENKARIA

Kooperatibaren gaineko fondo dokumentala

Arrasateko mugimendu kooperatiboa ulertzeko "ezinbestekoa" den fondo dokumentala aurkeztu zuten Eusko Ikaskuntzak, mugimendu kooperatibaren bi fundatzailek eta Eusko Media Fundazioak: ia 11.000 artxibo jasotzen dituen webgunea. Arizmendiarietaren pentsamendua, eskuz idatzitako oharrak, argazkiak, liburuak eta bi obra biografiko garrantzitsu batzen ditu, bestea beste; lehen industria kooperatiba sortu zutenetik 50 urte bete zirela-eta eman zuten argitaran lan hori. Hain zuzen, orain dela 30 urte hasitako lanaren fruitua da sarean zintzilikatu dutena.

hileko esaldia

"Suitza, AEB edo Alemanian moduan, ona iruditzen zait galdeketak egin ahal izatea"

Mikel Lezamiz
> Soziologoa

hileko datua

900

Arrasateko Udalak ia 900.000 euro bideratu zituen dirulguntzen artean banatzeko; 23 programa sartu ziren deialdian, besteak beste garatu gabeko herrialdeetan lankidetza proiektuak egiteko.

Ibai-Artek txartel berezia, bezeroendako

Bezeroak fidelizatu eta saritzeko asmoarekin, txartel berezia abiarazi zuen Ibai-Arte merkatari elkartea.

Mesedeetako Andre Mari itxitia betiko

100 urte baino gehiago Arrasaten eskolak ematen ibili ostean, atea itxi zituen Andre Mari eskolak

izen propioak



Alberto Sanchez
KULTURISTA



Iban Velasco
TXIRRINDULARIA



Iban del Campo
ZINMAGILEA

Jon Odriozolarekin batera Suitzako Itzulia parte hartu zuen Donostiako Victoria Eugenian egin zuten IX. Olympus Sport Open Erregional txapelketan.


Berak egindako lau film laburrekin zinema saioa egin zuen Donostiako Antzoki Zaharrean; besteak beste, *Un tal Eusebi eta Lo bakarrik*.

BITTORI ERRETEGIA

**Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuleta**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

PUB MAIZEA



LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
Garcia Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

PSIKOLOGOA eta
PSIKOTERAPEUTA

Olaran Etxea 3, A10
ANTZUOLA
670 45 19 62
enaraagirre@hotmail.com

Zorionak eta urte berri on!

ENARA AGIRRE



UZT.-ABUZ.



"Polizien olinpiadetan gustura hartuko nuke parte"

Remi Diosdado > Atleta eta udaltzaina



"Ondo pasatzeaz gain, kirolak seriotasuna eta diziportua eskatzen ditu"

Igor Isasi > Arrasate Errugbi Taldeko kirol zuzendaria



GOIENKARIA

4.417 sinadura, eta egun gutxira alkatea aske

Ino Udaletxera ekimena ekain bukaeran aurkeztu zen, Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen askatasuna eskatzen. Hainbat gizarte arlotan diharduten arrasatearrek osatzen zuten elkartea zen eta sinadura bilketa izan zen euren ekimen aipagarriena. 4.417 sinadura lortu zituzten, Arrasaten jasotakoak guztiak. Arrasatearrek erakutsitako elkartasunarekin pozik agertu ziren antolatzaleak.

Sinaduren berri eman eta egun gutxira, Galparsoro aske geratu zen. Hainbat arrasatearrek harrera beroa egin zioten Herriko Plazan.

hileko esaldia

"Udal Gobernuan daudenek ez dute ez ideiarik, ez gestiorik; Udala geldi dago"

Paco Gartzia > PSE-EEko bozeramailea Udalean

hileko datua

50.000

Eroski taldeak 50.000 langile bazkide egiteko asmoa erakutsi zuen; enpresako langile gehiotsuenak. Kooperatibizatze egitasmoak ika-mika sortu zuen bazkideen artean; guztira 8.500 bazkide.

Gaztetxeak ez zuen oporrik hartu udan

Hainbat gazte jo eta ke ibili ziren lanean gaztetxea era-berritzeko. Denetariko lanak burutu zituzten.

Aurrekoetan baino turista gutxiago

Arrasaten aurreko urteetan baino bisitari gutxiago izan genituen; krisia hasi zen nabaritzen.

> UNIBERTSITATEA
MUkide proiektua, ikasle ohien eta egungo ikasleen arteko zubi

Abuztuaren 21ean MUkide proiektua aurkeztu zuten. Mondragon Unibertsitateak sustatutako egitasmoa, ikasle ohien eta unibertsitatean dihardutenean ikasleen artean komunikazio sarea sortzeko helburuz jaio zen, hots, bi komunitateen artean zubia eraikitzeko.

Ikasle ohiek unibertsitateko zerbitzuak erabiltzeko aukera dute MUkide eginez gero: webgune propioa, *on line* zerbitzuak, argitalpenak, kirol zerbitzua, liburutegi zerbitzua eta informatika balibideak, lan poltsa, bertako instalazioak...

> ARKEOLOGIA
Leze Txiki aztarnategia, Euskal Herriko garrantzitsuenetarikoa

Urtero moduan, uztailean jo eta ke jardun zuen arkeologian adituak diren kidez osatutako indusketa taldeak. Leze Txikiako aztarnategiak duen garrantziaren adierazle, aurten India-ko eta Ameriketako Estatu Batuetako bi kide izan dira lanok aurrera eroaten.

Alvaro Arrizabalaga arkeologoak adierazi zuenez, "Euskal Herrian bi lekutan bakarrik dauzkagu Euskal Herriko historiaurreak dituen sei geruzetatik lehen bostak ezagutzeko aztarnategiak: Irikaitzen (Zestoa) eta Leze Txikin."

ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



Urte berri on!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuarte D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate


Goizez eta arratsaldez irekita

IRAILA



"Gorputzak uda ostean ez du behar deskantsurik, eritmoa baizik"

Jone Beitialarrangoitia
> Psikoterapeuta



"Zerrajera utzi genuen, argazkiekin lan egiten hasteko"

Pedro Sologaiztoa 'Laso'
> Argazkilari ohia



GOIENKARIA

Mondragonek 55 urteratzen zuten erretiroa

Hilaren 24an egindako urteko kongresukideen batzarrean, Mondragon taldeak aurretiko erretiroa 55 urteratzen zuten. Aurretiko erretiroek gehienez ere sei urteko iraupena izatea erabaki zen; hortaz, langileak beranduenetan 61 urterekin erretiratuko lirateke. Erabakiak hautsak harrotu zituen.

Amaia antzokian egin zen kongresuan, hala ere, garbi utzi zuten krisian dauden enpresek hartu beharreko neurria zela, eta erreferentzia, betiere, 65 urterekin erretiratzea izango zela.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturrioz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LANDALUZE
HARTEGIA - URDAITEGIA

Zorionak eta
Urte berri on!!!

Iturritz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

artizar latza

**Label kalitatea
duen esnea**

Gabon zoriontsuak
Zabola-Azkoaga
ARAMAIO
945 44 51 58
679 162 499

**Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak**

**HORTZ KLINIKA
UARKAPE**

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

hileko esaldia

"Merkataritzagune handiak herri barruan integratu beharko lituzkete "

Jose Allende > Hirigintza planifikazioan katedraduna

hileko datua

175

Zabalgunea eremuko eta Uribarriko babes ofizialeko etxeak Etxebidek kudeatuko zituela erabaki zuen Udalak. Guztira 175 etxebizitza dira: 44 Uribarri auzoan eta 131 Zabalgunean.



Nobenaixue, dantza taldeen sortzaileentzat

Marga Mercader eta Ixiar eta Xeli Arregi izan ziren protagonista Maritxutako Komisiñuen sariotan.



Fagorren irabaziek %98ko jaitsiera

Irailean aditzera eman zutenez, 2008ko lehen sei hilabeteetan 2007an baino %98 gutxiago irabazi zuen.

izen propioak



**Inazio
Lakuntza**
ALKATE OHIA



**Arantza
Arantzabal**
IBAI-ARTE



**Rafa
Mungia**
KAZETARIA

Gelmako etxeen auziaren harira, bere aurkako akusazioa erretiratu ahala, "zuzenketa publikoa" eskatu zuen.

Ibai-Arteren fidelizazio txartela aurkeztu zen. Elkarteo presidenteak iragarrri zuen lehen hilean %5eko deskontuak izango zirela.

Paralinpiar Jokoe-tan izan zen BAT Basque Team-eko komunikazio arduraduna. BAT taldeak egindako lanaz harro bueltatu zen.

URRIA



"Tranbiaren proiektua martxan jartzea urrutu dago oraindik "

Ino Galparsoro
> Arrasateko alkatea



"Arrasatek lehen futbol taldea maila altuago batean izatea merezi du"

Mikel Gonzalez
> Realeko jokalaria

San Josepe berreskuratzeko ideien lehiaketa

Urri erdialdean erakusketa zabaldu zen San Josepeko harrobia berreskuratzeko ideien proposamenekin. Hilabete inguruz izan ziren proiektu ezberdinak ikusgai Kulturateko klaustroan.

Udalak bultzatutako herritarraren partaidetzaren adibide garbia izan zen, arrasatearrek euren gustuko idea bozkatzeko aukera izan zuten-eta. Guztira 18 proiektuen artean aukeratu ziren bost finalistak. Horietatik lau epaimahai batek aukeratu zituen; herritarrek finalista bat aukeratu zuten. Ikuemin handia piztu zuen erakusketak.



OIHANA ELORTZA

hileko esaldia

"Bolognara egokitzen lehenak gara; halako sei ikasketa ditugu aurten"

Josu Zabala > Mondragon Unibertsitateko errektorea

hileko datua

100

Zerrajerako lehen alokairuzko etxebizitzetako giltzen banaketa egin zen urri amaieran. Hala, 100 pertsonak -eta euren familiak- tokatu zitzaien etxebizitzetan sartzeko aukera izan zuten.

izen propioak



Maite Iturraran
LEHIAKIDEA



Jasone Mendizabal
TOPAGUNEAK



Itziar Mallabiabarrena
SASKIBALOI JOKALARIA

Patagoniara joan zen urri amaieran Maite Iturraran arrasatearra. *El conquistador delfín del mundo* izeneko ETB2ko lehiaketan hartu du parte Iturraranek.

Jasone Mendizabal zuzendarri duen Maite Iturraran arrasatearra. *El conquistador delfín del mundo* izeneko ETB2ko lehiaketan hartu du parte Iturraranek.

Azken hiru urteak Hondarribia-Irun saskibaloit taldean jokatu ostean, Biurrarena-UPV taldeera egin zuen salto Itziar Mallabiabarrena jokalari arrasatearrak.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!!

altzari denda
ikerlek zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

AZAROA



"Garaian gura dugu heldu nazioartean garatzen diren proiektuetara"

Jesus Mari Herrasti
> Garaiko presidente



"65 urtetik gorako artean %10-15 hasten da dementzia arazoekin"

Goretti Gozalo
> NIBE elkarteko kidea



'KO' proiektua gustuko, herritarrek

San Josepe harrobiaren ideia lehiaketaren harira, bosgarren finalista aukeratu zuten herritarrek: *Kareharria Oinarri (KO)*. Herri bozketan balioetsitako 336 botoetatik %22rekin aukeratu zuten KO proiektua. Horrela, lehiaketa bigarren fasean sartu da azaroan; aurrera begira, finalista izatera iritsi diren bost proiektuak (*KO, Kisky, Harrizate, Suelo eta Tronera*) sakon landu beharko dituzte lehiakideek, lehiaketaren epaimaiak irabazlea aukeratu dezan. 88.000 euroko saria eramango du irabazoleak etxera.

hileko esaldia

"Euskara ez da salbatu behar, erabili egin behar da, bestela ez dauka baliorik"

Joxemari Muxika >AEDko presidente ohia

hileko datua

721

2002 urtetik 2008ra, Arrasaten erroldatuta dauden etorkin kopurua 3,6 aldiz biderkatu da; gaur egun 721 etorkin daude Arrasaten erroldatuta, arrasatearren %3,27a.



Gripea garaiz atzemateko sistema

Gizakion eta hegaztien gripea garaiz atze mateko sistema lantzen dihardu, besteak beste, Ikerlan-IK4k



Des-Kontrol musika taldeari boikota

RASH kolektiboak faxistatzat jo du Des-Kontrol taldea eta euren aurkako kanpaina egin du lau urtean

izen propioak



Velez de Mendizabal

IDAZLEA



Maria Arana

BASERRITARRA



Fernando Zufiria

ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Debagoineko Kirol Sarietan herritarrek sarituko dituzten hautagaien artean daude Zufiria eta Ezpeleta.


Lentilek eboluzionatu egin dute jarrita daramatzazula ere ez duzu ia igarriko

- Ultrasuabeak
- Oxigenazio handia
- Ez dira sikatzen
- UV babesia

Oraintxe astigmatismorako ere bai

ACUVUE®
LENTES DE CONTACTO CÓMODAS
Johnson & Johnson

instituto optico



Eskatu txanda Instituto Opticon eta egizu proba doan

Lentilen UV filtroak ez ditu ordezkatzen UV filtrodun eguzkitako betaurrekoak, ez baitu begia erabat tapatzetan.
10 erabiltzaletik 9k diote ez dutela igartzen jarrita daramatzatela.

ACUVUE, OASIS eta HICRACLEAR Johnson&Johnson-ek erregistratutako markak dira.

Erdiko kale, 22

ARRASATE

Tel.: 943 79 71 68

ABENDUA



"AHT geldiarazi behar dugu, Lemoiz moduan jendea kontzientziatzu"

Balentin Tramon
> Arrasateko Iurjabea



"Arrasateko akordeoi lehiaketak urteko garrantzitsuenak dira"

Aitor Furundarena
> Akordeoi jotzailea

Ukan saria eman zioten AED elkarteari

Lehendakaritzan jaso zuen AED elkarrekin Ukan saria. Patxi Bartzarka Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskara elkartean mugimendu aitzindari, berritzaile eta bide-erakusle izatea eta euskalgintzak ezinbestekoak duen zabaltasunaren aldeko jarrera hasieratik erakustea aitorutz zion, besteak beste, Arrasateko elkarteari.

Egun berezia izan zen abenduko hura AEDrendako, sari hori eskuratu bitartean 25. urteurrenako ospakizun ekitaldia egiten zebilen-eta, Arrasaten. AEDko sortzaileak, sustatzaileak eta herriarrak omendu zituzten abenduaren 3an, Euskaran Nazioarteko Egunean.



MIRIAN BITERI

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Mondragon




BEHI-ALDE
ERKOP

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15



Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

hileko esaldia

"Ibai-Artekook herriaren eraikuntzan parte-hartze zuzena izan gura dugu"

Aranatza Arantzabal
> Ibai-Arteko presidente

hileko datua

100

Abenduaren 5ean bete zituen 100 urte Euzko Alderdi Jeltzalearen Arrasateko taldeak. Alderdikideek asmo sendoa erakutsi zuten orain dela 100 urteko egitasmoarekin aurrea egiteko.

Kalean bizi diren pertsonak erroldatzeko

Bazterkerian bizi diren pertsonak erroldatu ahal izateko modua aztertzen dihardu Udalak.

Krisiaren eragina, herriko enpresetan

Ibarreko herri guztietan moduan, Arrasateko enpresetan ere hasi ziren igartzen krisiaren eragina.


izen propioak



Jose Letona
KRONIKAGILEA



Pedro Biteri
FILANTROPOA



Luis Javier Arrieta
ASMATZAILEA


Herriko kronikagile eta historialariaren jaiotzaren mendurrenaren izan dela-eta, omenaldi xumea egin zioten Jose Letonari abenduan, hitzaldi sortarekin.

Pedro Biteri Aranaren jaiotza eta heriotzaren urteurrenaren harira, haren figura gogorra ekarri zuten abenduan, hitzaldi sortarekin. Harraska eta ontzi garbigailua batera dituen gailua asmatu zuen. Asmakizunarenengatik diploma eman zioten Kanta-briako feria batean.

ARBEL S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak

Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio



ARAMAIO

URTEARI BEGIRATUA

2008



> OTSAILA

Hiru aramaioarrek jardu zuten Arabako Bertso Txapelketan

Arabako Bertso Txapelketan pisu handia izan dute aurten aramaioarrek. Hiru aramaioarrek jardun zuten lehian: Iker Agirre, Andere Arriola-bengoa eta Manex Agirrek. Azken hori izan zen finalera iritsi zen bakarra, baina ezin izan zuen txapela lortu. Bigarren postuan geratu zen.

> APIRILA

Energia garbiak sustatzeko proiektua hasi zuen Udalak

Udalak energia berriztagarrak sustatu nahi ditu; Aramaion egurra erabilita energia sortzeko aukerak ere badaudela uste dute. Aukera horien gaineko azterketa egiteko faseka banatutako proiektua abiarazi zuten Solagro Elkartarekin. Proiektua bigarren fasean dago egun.

> MAIATZA

Desjabetze aktak sinatzeko lehen saiakera

Maiatzaren 6an Espainiako Sustapen Ministerioko ordezkariek Aramaioko udaletxera joan ziren lurren desjabetzeen aktak sinatzeko asmoz. Tentsio momentuak bizi izan ziren, AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek protesta egin zuten-eta udaletxeko atean. Sustapen Ministerioko ordezkariek, ertzinez lagunduta, udaletxearen sartzen saiatu ziren, baina ezin izan ziren sartu. Ondorioz, akten altxamendua bertan behera gelditu zen. Bigarren deialdia Gasteizen egin zuten, baina hura ere bertan behera gelditu zen. Desjabetzeen aktak, azkenean, uztailaren 29an sinatu ziren Zabolan bertan.

> MARTXOA

EIZIEko lehendakari izendatu zuten Oskar Arana aramaioarra

Oskar Aranak Euskal Itzultaile, Zuzentzaile eta Interpretleen Elkartearen zuzendaritza hartu zuen. Aramaioarrak gustura hartu zuen izendapena, baina ez zen ezustekoia izan. Aranak azaldu zuen lehendakariorde izanda bazekiela txartel asko zituela kargua lortzeko.

> EKAINA

EEAKo zinegotzi guztiak talde mistora pasatu ziren

Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek otsailaren 8an egindako autoak Eusko Abertzale Ekintzaren ekinetzak bertan behera uztea exijitzen zuen. Udal Gobernua osatzen zuten zinegotziak, orduan, talde mistora pasatzea erabaki zuten ekaineko osoko bilkuran.



"Aramaiko Udalbatzak Gabon zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudentenoi!"



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org





> ABUZTUA

MAIDER UNDA

Maider Unda, Olinpiar Jokoetan

Abuztuaren 17a egun handia izan zen Maider Unda borrokalarri oletarraren-dako; Pekinen jokututako Olinpiar Jokoetan borroka egiteko eguna zuen. Dominarik eskuratzea ez zuen lortu, baina lan bikaina egin zuen eta diploma batekin itzuli zen etxera. Dena dela, pozik itzuli zen Unda etxera Pekinen egindako lanarekin, aurkari gogorra dela argi utzi zuen-eta.

> UZTAILA

AHTren lanak hasi zituzten Zabolan

Abiadura Handiko Trena igaro den lursailen desjabetze aktak sinatuta, berehalako hasi zituzten lanak Zabola auzoan, uztaloko azken egunetan. Makina bat kamioi eta hondeatzeko makina sartu zen Zabolako haranean eta aste gutxiren buruan Zabola itxuraldatuta zegoen.

Aramaio Zainduz elkarteko salatu zuen Bolinburu errekatxoan hondatzen ari zirela, eta errekkara kutsatutako lurra botatzen zebiltzala. Alkateak, bestetik, salatu zuen lanetan zebiltzanek ez zituztela segurtasun neurriak betetzen. Bolinburu baserriko bizilagunak ere haserre azaldu ziren, kamioiek hauts handia jasotzen zutelako.

> URRIA

Erretiratuen Eguneko azokak sekulako arrakasta izan du aurten

Aurtengo Erretiratuen Eguneko azokak nobedadeak izan ditu. Azoka berrindartu egin nahi zuen Udalak, eta horretarako ganadua ipintzea erabaki zuten: behiak, ahuntzak, ardiak eta hegaztiak, besteak beste. Aramaioarrek oso ondo erantzun zuten eta sekula baino jende gehiago ibili zen azokan.



SABIN SALABERRI Manuel Lekuona saria jaso zuen apirilean.

GOIENKARIA

> APIRLA

Sabin Salaberrik Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen Aramaiko kultura etxeean

Eusko Ikaskuntzak bere programan jasotako ekitaldiak aprobetaxu ohi ditu halako sariak banatzeko, baina Sabin Salaberrik tokia aukeratzeko ohorea izan zuen, eta ez zuen zalantzarik izan Aramaio hautatzeko orduan. Ekitaldira joandako guztiak hartze-ko txiki geratu zen kultura etxea. Ekitaldia benetan hunkigarría izan zen eta Salaberrik berak oso hunkituta jaso zuen saria.

> AZAROA

Udal Gobernuak iragarri zuen 2009an tasak asko igoko direla

Udal Gobernuak iragarri zuen 2009an tasek igoera nabarmena izango dutela; uraren eta zaborraren gaineko tasa %35 igoko da eta estolderiarena, berriz, %100. Asier Agirre alkateak adierazi zuen bost urtean tasa horiek mantendu egin direla eta horrek zor handiak eragin dizkiola Udalari.

> ABENDUA

Urtea Plan Orokorra onartu barik bukatu du Udalak

Duda barik, Plan Orokorra izan da oraingo urtean Udalaren arazo nagusia. Udal Gobernuaren asmoa zen martxoan onartzeko aurreproiektua, baina, ezinezkoia izan zen; Estoan enpresari egozten diote atzerapena. Oposizioak, berriz, erantzukizunak eskatu dizkie Udal Gobernua osatzen dutenei.

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinak eta autoen salmenta eta konponketa.
Olio, gurpil eta balazten konponketa

Ondo ibili Gabonetan!!!

Santi Kurtz plaza 14. Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

Iturrieta Sagardotegia



- Ostegunetik domekara zabalik
- Astelehenetik asteazkenera enkarguz bakarrik zerbitzatuko da.

URTE BERRI ON GUZTIO!!

Aramaio (Araba) Tel.: 945 44 53 85 - 685 72 15 93

• Bost logela komunarekin • Afariak • Internet WI-FI sistemarekin

UXARTE

Zorionak eta urte berri on herritar guztioi!


Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 Faxa: 945 44 59 10
www.uxarte.net • uxarte@euskalnet.net




GABONETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URBETXEBAARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO




TXUS GOIKOETXEA




JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIETA



NATALE LANDA



ERREFUXIATUAK

ETXLEAN NAHI DITU GU!


Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Iturriotz, Irati, Iluntz, Ekaitz, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Taupa, Dat.

Goienkaria


Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARETXABALETA URTEARI BEGIRATUA 2008



ARGAZKIAK: GOIENKARIA


EGUZKIGRAF *inprimategia*

Gabonak Zoriontsu eta bakean pasa ditzagun.
Urte Berri On !!

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

Atxabaltar danoi Gabon zoriontsuak eta urte barri on!



Aretxabaletako
Udala

URTARRILA



"Lan asko jaso ditugu literatura lehiaketan eta asko bertsoak dira"

Larraitz Iñurrategi > Loramendi Eko dinamizatzailea



"Xakea ezagutarazi eta jokatzeko gogoa pizteko sortu dut xake eskola"

Aitor Alcaide > Xake jokalaria eta irakaslea



Txapel Txin eguna Aratuste aurretik

Txapel Txin egunak egin zien ongietorria Aratusteei. Atxabaltako Karna-balen Lagunak izeneko taldeak antolatu zuen ospakizuna urtarrilaren 26an, eta Kultura Sailaren laguntza jaso zuen. Umeek eta helduek, guztiak zuten txapela janzteko deia, eta kalejira egin zuten kirol etxeen hasi eta Herriko Plazaraino, Bentazaharreko Mutil Alaiak taldeak girotuta. Plazan pregoia irakurri eta sagardoa edan zuten.

Txino-dantza hartu zuten erreferentzia Txapel Txin izena jartzerakoan eta ospakizunaren helburua zen Aratuste aurretik hastea herria girotzen.

hileko esaldia

"Zortzi umerekin hasi ginan orain dela 18 urte eta 100 ditugu aurtengo ikasturtean"

Amaia Aizpurua > Pausoka haur eskolako hezitzalea

hileko datua

500

Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia ikusteko sarrerak ordutik agortu ziren. Hala ere, 250 inguru gorde zituen Kultura Sailak egunean saltzeko. Guztira 500 bat lagun izan ziren kirol etxeen.

Egubakoitzero kontzertuak

Hainbat eratako musika kontzertuak antolatzen hasi ziren Haizea tabernan, egubakoitz guzietan.

Igerilekua itxita sabaia konpontzeke

Abendua eta urtarrila bitartean 17 egunean egon zen itxita igerilekua, sabaia egoera eskasean zegoelako.


izen propioak



Karmele
Igartua
IRAKASLEA



Bixen Calzon
GOIENA SPORT-EKO
ARDURADUNA



Aritz
Larrinaga
DISEINATZAILEA

Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Felipe Arrese Beitia saria irabazi zuten *Hitzak orbaianetan* poesia lanagatik.

Peña Zubi txapelketaren ordez futbol eskolen artekoia antolatu zuten. Arrasate, Bergara, Oñati eta herriko gazteek jardun zuten.

Aratusteak iragaratzeko antolatutako kartel lehiaketa irabazi zuen. Zortzi lanetatik onena iruditu zitzzion epaimahaiari.



Mitartegeari!
Baserri turismoa eta taberna
Zorionak denoi!



- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.

Areantza auzoa ARETXABAleta Tel.: 943 79 17 51

**J.J. iTURGiNTZA
iRURE**

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABAleta

943 793 187

Zorionak eta urte berri on!



OTSAILA



"Makrobiotiko sano batek denetik jan dezake, oreka bilatu behar du"

Gorka Gereñó > Makrobiotika ikastaroko irakaslea



"Umeek esaten digute arraro egiten dugula berba euskaraz"

Ana Flores > Barriketan egitasmoko kidea



M.A.

12 milioi euroko aurrekontua onartu zuten

Otsailaren 18an onartu zuen udalbatzak 2008ko udal aurrekontua. 12 milioi ingurukoa zen -iaz baino bi milioi euro gutxiago- eta aurrekontuan %35 inbertsioetara bideratu zuten, tartean Herriko Plazako saneamendu lanak eta kirol etxe berria egiteko.

Aralaren, EAren eta Ezker Batua-Berdeak taldearen aldeko botoak jaso zituen aurrekontuak. EAJko bi zinegotziak abstentu egin ziren, egindako proposamen garrantzitsuenak ez zitzuela jaso esanaz, eta PSE-EEko zinegotziak ez ziren izan osoko bilkuran, gaixotasunagatik.

hileko esaldia

"Benetan larria da Espainiako Estatuak EAE-ANVren jarduera etetea"

Anjel Bergaretxe > Legez kanpo utzitako hautetsia

hileko datua

5

Solohandi auzunean hasi eta Mitarte kalera bitartean dagoen Araba ibilbidean bost zebrabide espaloien parean jarri zituzten. Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko planaren barruan zeuden lanok.



Sahararen aldeko krosa

Iesbaa elkartea antolatu zuen krosa, eta ume eta heldu, guztira 65 lagunek hartu zuten parte.



Merkatariak kezkatuta lapurretekin

Dendari eta tabernariak kezkatuta zeuden izandako lapurretekin; alkatearengana jo zuten laguntza eske.

> OSPAKIZUNA

Paregabeko giroa eta mozorro ikusgarriak Aratusteetan

Inoiz baino lehen iritsi ziren Aratusteak, San Blas egunarenkin batera -otsailaren 3an-. Urtero legez desfile dotorea egin zuten goiz partean koadrilek, mozorro ikusgarriak gertatu zituzten-eta: *Ertaizaintzaren banda, Kalebarrengo ijitoak, Antartidako bizilagunak, pirata mordoa, beldurraren trena, zanpantzarrak, artzainak eta inudeak...* Sortutako giro onak kirol etxeen izan zuen jarrai-pena, 600 lagun inguru elkartu ziren-eta bazkaltzeko.

Martitzenean, osteria, umeek ospatu zituzten Aratusteak.

> HEZKUNTZA

1.000 metro koadroko tailerra eraiki zuten lanbide institutuan

Soldadura eta metal eraikuntzako tailerra eraiki zuten Aretxabaletako lanbide institutuan, eta otsailerako martxan zeukan. Institutuko kiroldegia zegoen lekuaren eraiki zuten 1.000 metro koadro inguru dituen tailerra, eta, arduradunen esanetan, "espezialitate horretako Euskal Herriko tailer handienetako da".

Institutuko arduradunek gogorarazi zuten soldadura eta metal eraikuntzak garrantzi handia duela gure bailaran, eta tailerra aurrerapauso handitzat jo zuten.

Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak

Mitarre 7, behea
ARETXABAleta
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Zorionak eta
urte berri on!

Zure
Osasuna
gure **ardura** da
Zorionak eta urte berri on!



- **Hidroterapia SPA.**
- Masaje terapeutiko eta Kirol Masajea.
- Akupuntura.
- Presoterapia.
- Osteopatia.
- Errehabilitazioa.
- Pancafit Metodoa.
- Podología



2009 urtetik aurrera:
Lagun Aro, Adeslas,
Sanitas, Mapfre...



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Gipuzkoa
Tel.: 943 79 95 64

MARTXOA



"Merkataritza suspertu gura dugu, herriari bizitasuna emateko"

Lore Martinez > Merkataritza
Saileko zinegotzia



"Kultura etxea kudeatzeko enpresa hartzearen aurka gaude"

Tomas Fernandez > Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia

Zuzendaritza aldatu zuen Basotxok

Batzar orokorra egin zuen Basotxo erretiratuen elkartea martxoaren 13an. Diru kontuen eta egindako ekintzen berri eman zuten, eta 2008ko aurrekontua aurkezu. Gainera, zuzendaritza batzordeko hiru kidek agur esan zuten: Martin Zaloña presidenteak, Jose Maeztu idazkariak eta Antonio Gartzia diruzainak. Euren ordez beste hiru baziak sartu ziren, eta karguak banatu zituzten ondoren egindako batzar baten: Imanol Arantzial izendatu zuten presidente; Itziar Errasti, presidenteorde; Jesus Mari Martinez, idazkari; eta Carlos Gutierrez, diruzain. Eta gainerako hirurak, osterak, bokal edo batzordekideak: Juanita Jauregi, Frantziska Sasiain eta Javier Sainz.



M.A.

garbittu, s.coop.

Errekabarren 3 Behea ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbitu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

Zorionak eta urte berri on!



Andra Mari Auzunea, 3 Behea
ARETXABAleta
Tel. / Fax.: 943 79 29 26

**ANDRA MARI
AHOLKULARITZA**

FISKALA • KONTABLEA
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

hileko esaldia

"Plaza berrian irisgarritasunak du lehentasuna, eta funtzionala izatea da helburua"

Jose Mari Segovia > Udaleko Hirigintza teknikaria

hileko datua

50

Zirkulazioko arau-haustea Udala hasi zen bideratzen 2007an onartutako ordenantzaren arabera. Autoa txarto aparkatzeagatik 50 eta 75 euro arteko isunak ezarriko zituela iragarri zuen.



Zuhaitz Eguna ospatu zuten 90 ikaslek

Kanposantu alboan landatu zituzten gereziak, haritzak, iparraldeko haritzak eta lizarak; 50 inguru.



Mailaz jaitsi zen Arlutz xake taldea

Euskadiko txapelketako ohorezko mailari ezin izan zion eutsi Arlutzek, aurkari gogorrak izan zituelako.

izen propioak



Mikel Cubillo

SCAM MUSIKA TALDEA



Markel Uriarte

TRIALSIN JOKALARIA



Odei Vazquez

KARATE JOKALARIA

Danbaka musika lehiaketan parte hartutako taldeak Strung Out talde kaliforniararekin batera jo zuen Durangoko kafe antzokian.

Herrian jokatutako Gipuzkoako txapelketako proban lehenak izan ziren Markel Uriarte -juniiorra-, Aitor Murua -haurra- eta Unai Zunzunegi -kimua-.

Gipuzkoako karate txapelketako proban, kumite modalitatean, lehenak izan ziren Odei Vazquez -gazteen malla- eta Ekaitz Irusta -haurren malla-.

*Jai Zoriontsuak
eta
Urte Berri On!*

APIRILA



"Tokian tokiko arkitekturari adi egonez gauza onak har daitezke"

Amaia Agiriano
> Arkitektoa



"Herriko kultura astintzeko asmoarekin aurkeztu gara Arkupera"

Iñigo Louvelli
> Jaiki elkarteko kidea



M.A.

Euskara erabiltzen dutenak, %43,9

Euskararen kale erabilera neurketa egin zuen Soziolinguistika Klusterrak otsail eta martxoan, eta emaitzen berri eman zuen apirilean. 1.523 lagun behatu zituzten kalean berriketan zeudela eta Aretxabaleta-k euskararen erabilera %43,9 zen. Umeak eta gazteak izan ziren euskara gehien erabili zutenak: umeak (%53,7), gazteak (%51,7), helduak (%38,9) eta nagusiak (%39,3). Umeak izan arren euskaldunenak, jaitsiera handia igarri zuten 2001etik hona: 13 puntuko, hain zuzen. Horregatik, klusterreko teknikariek eskatu zuten arretaz egiteko jarraipena horiei.

hileko esaldia

""ETA ez/ ETA no' leloa duen pankartaren eskaera aspaldi geneukan eginda"

Ainhoa Sagarrubai > PSE-EE alderdiko zinegotzia

hileko datua

30

Udal Gobernuak erabaki zuen herriko familia ugarie -30etik gora- erdira murriztea kirol etxeko tasa. Diru sarrera kontuan hartu barik familia ugarria izatea nahikoa zen murrizketa aplikatzeko.



Arrasatera doan bidea konponduta

Hilabetetan oso egoera eskasean egon ostean Arrasatera doan bidea, konpondu egin zuen Aldundiak.



Saharako umeak hartzeko eskaera gutxi

Uda pasatzera ekarri gura zituzten Saharako umeak, baina oso eskaera gutxi egin ziren familien aldetik.

izen propioak



Gurutze Muxika
MARGOLARIA



Ander Ginart
INSTITUTUKO IKASLEA



Nati Abasolo
IRAKASLEA

Aretxabaletako institutuko Ander Ginart eta Maia Ruiz ikasleak Suedian izan ziren fundizio eta pulbimetalurgiako praktikak egiten.

Deba Garaia eta Debemen elkarteek antolatutako landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburuko lehiaketa irabazi zuen, egindako ekarpentengatik.



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!




GUREA

Ondo pasa gabonak! TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITU GU

• UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITU GU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABAleta

Ondo ibili jaietan!

Urte berriak zakukada bat amets eta
 ilusio ekar dezala zeure ingurura,
 eta pakean eta elkarlanean
 bete daitezten.

2009 ZORION!!!

aretxabaletako

aralar

www.aralar.net



Fino

Gizonezkoen

ile apaindegia



Ileko tratamenduetan espezialistak

Ondo pasau gabon jaixak!

Durana 19 • Aretxabaleta
 Tel.: 666 264 886

MAIATZA



"Pelbisa indartzeko saioak menopausia sasoirako dira bereziki"

Saioa Baena > Amazulo elkarteko fisioterapeuta



"Herrian integratzeko aukera eskaini dit Barriketan egitasmoak"

Bego Urieta > Barriketan egitasmoko kidea

Larrinbeko errekkak gainezka egin zuen

Maiatzaren 25eko euri jasek uholdeak sortu zituzten Durana kalean eta Ilargi plaza aurreko kalean. Ordu erdian botatako euriaren erruz lur azpitik pasatzen den Larrinbeko errekkatoak gainezka egin zuen eta aipatutako bi kaleak erreka bihurtu zituen. 22 urtean halakorik sekula ez zuela bizi izan jakinarazi zigun Hirigintza teknikariak. Kalterik handienak Lezama merkatari eta etxe hainbat lokalek, bertako garajeek eta Eroskik jasan zituzten.

Handik bi egunera errekan sartu ziren Udalak hartutako langileak, eta garbitzen hasi. Hilabete baino gehiago behar izan zuten barruan pilatuta zegoen zikinka guztia ateratzeko.



MIRARI ALTUBE

AUKERAKO TRATAMENDU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU!

"Edertasuna areagotu eta barneko oreka harmonizatzen dute ongizatea lortuz"

OSTEGUN GAZTEA

ESTETIKAKO zerbitzu guztieta %40-eko deskontua 30 urte baino gutxiago baditu!!!



ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10

TEL: 943 77 01 26

20550 ARETXABAleta

ALAN COAR



L-10-ek zorionak opa dizkizue!

hileko esaldia

"Entzuteko ohitura galdu dugu eta entzundakoak hiztun hobeak egiten gaitu"

Beatrix Zabalondo > Irakaslea

hileko datua

15

Deba ibaiaren beste aldean eraikitzenten zebiltzan 15 etxebizitzak tasatu hutsik zeuden. Bruesa enpresa eraikitzalearekin hitzarmena egin ondoren berriro zozketatzea era-baki zuen Udalak.

Kanpai-joleen erakustaldia Otala Zelain

Kanpaiak zelan jo erakustaldia egin zuten Otala Zelain egunean, Areantzako kanpai eskolak antolatuta.

Lau zinegotzi bakarrik osoko bilkuran

Udalbatza osatzen duten 10 lagunetatik lau –Udal Gobernuko kideak– agertu ziren ohiko osoko bilkuran.

> INGURUMENA

Urkuluko bidegorriak zituen zartadurak konpontzeko asmoa

Zartadura handiak zituen Urkuluko urtegiari buelta ematen dion bidegorriak. Goroeta auzoko Deisaotz baserri alboan zeuden, bat baserrira iritsi baino lehen eta bestea pasatu eta gero. Errepideko lurra behera egin zuelako agertu ziren.

Arazoa aspalditik zetorren, urtegia egin zutenean Deisaotz inguruko errepidea lurrez betetako hutsunaren gainean jarri zutelako. Horregatik, konpontzen hasi aurretik, azterketa geoteknikoa egin zuen ur kontsorazioak, harkaitza zenbat metrora zegoen jakiteko.

> MERKATARITZA

Herrian bertan erostera bultzatzeko kanpaina abian

Udalak, Aretxarte merkatarien elkarrekin eta Erostegi enpresak sinatu zuten merkataritza sustatzeko hitzarmena. Hala, hileko zapatu goiz baten gaztelu puzgarriak jarriko zituzten, urtarrilean hasitakoari jarraituz. Horrez gain, puzgarriak jarritako zapatuetan 25 euroko gastua eginez gero Aretxarteko dendaren baten, txartelak banatzen zituzten Kioskoan gozokiak eskuratzea, Brasileña kafetegian kafe bat hartzeko edo Orly tabernan freskagarri bat. Herriko dendetan erostea zuen helburu ekimen horrek.

EKAINA



"Udaletxearen aurrealdearen maketa egin dut egurrarekin"

Jose Manuel Mateos
> Maketa egilea



"Udaero egitasmoa gazteen harremanak sendotzeko da"

Jessica Amozarrain
> Hezitzalea



M.A.

Arkupe kultura etxea, inauguratuta

Ekainaren 6an inauguratu zuten Arkupe kultura etxea, Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua lagun zuela Inaxio Garro alkateak. Ekitaldian Debagoieneko hainbat ordezkari politiko elkartu ziren. Eraikinaren lanek 19 hilabete irau zuten, eta 3.650.000 euroko aurrekontua.

Inauguratu orduko jarri zuten martxan bost solairuko eraikina: liburutegia, Zaraia aretoa eta Kultura teknikarien bulegoak. Musika eskolak irailean hasi zuen lan jarduna, baita gaztelekuak ere. Eta hainbat eratako ikastaroak antolatzen urrian hasi ziren.

hileko esaldia

"Guretako jai garrantzitsua da Atzegi jaia; kalera irten eta ondo pasatzea da helburua"

Jokin Antxia > Atzegiko kidea

hileko datua

168

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako V. mendi zeharkaldian 168 lagun elkartu ziren. Eguraldi narrasa izan zuten eta lokatz handia ibilbide osoan, baina gustura bukatu zuten guztiak.



Kontsumo jarrerekin arduratuta gazteak

Tokiko Agenda 21 barruan kontsumo iraunkorra aztertu zuten Kurtzebarriko ikasleek, eta Udalari aurkeztu.



Eguraldi eskasa San Juan bezperan

Kirol etxe aurreko zelaian egin zituzten ekitaldiak, baina eguraldi eskasak ez zuen utzi behar bezala ospatzenean.

> UDALA

Hautetsi zilegiak zirela aldarrikatu zuten legez kanpo utzitakoek

Udalak osatu zirela urtebete pasatutakoan, udal hauteskundeetan aukeratutako lau hautetsiek erabat zilegiak zirela aldarrikatu zuten, eta "bozka gehien lortutakoak, gainera". Aralarrek hasieran sortutako itxaropena atsekabe eta mesfidantza bihurtu zirela argitu zuten, "nahiz eta harremanak izan". Salatu zuten ezker abertzalearen aurkako erasoak gogortu egin zirela orokorrean, eta eskubideen eta bazterketarik gabeko elkarritzeta politikoaren aldeko aldarrikapeneren segitzeko asmoa azaldu zuten.

> HIRIGINTZA

2.000 metro kubikoko ur-deposituaren lanak bukatzean zeuden

2007ko udazkenean hasi zituzten ur-depositu berria egiteko lanak, eta 2008ko ekainerako bukatzean zeuden. Aozaratz auzora bidean dagoen depositu zaharraren alboan zebiltzan egiten berria, eta biek edukiera bera izango zuten: 2.000 metro kubiko. Hala, bukatutakoan 4.000 metro kubikoko bi edukiontzidun depositua egongo litzateke herria urez hornitzeko. Lanen bukaera datak atzerapena izan zuen, ur-depositu zaharrari hobekuntza lantxo batzuk egin behar izan zizkiotela.



GALAKO PROGRAMA

Kantariko ekitaldian parte hartutako taldeak.

ERAKUSTALDI BEREZIAK

- Samu Crew (Break dance)
- Kapoeira
- Trialsin

ANTOLATZAILEA



Kantari Debagoienean
Kantari gala
2009 urteari ongi eterria emango diogu!
Zatoz Oñatiko Gaztelekura!

Abenduaren 28a

Ordua: 18:00etan
Lekua: Oñatiko Gazteleku
Aurkezleak: Ainhize eta Joanes

UZTAILA



"Oso-osoko jokalaria' sariak beste balio batzuk bultzatzeko dira"

Jokin Antxia > Aretxabaleta Kirol Elkarteko presidenta



"200 bat ume ibili dira udalekuetan, eta ederto pasatu dugu guztiok"

Larraitz Garai > Udaleku irekien arduraduna

Urkulura ibilbide berria Iturriondo parketik bueltan

Urkulu urtegira joateko beste ibilbide bat egokitzen hasi zen Udala: Bainuetxe industrialdearen atzeko partetik -Arkarazora doan errepidea gurutzatuta- Iturriondo parkera jo, eta handik Bolinaga aldera; gero Areantza auzoko Mitarte Garai baserri ondoan ezkerretara hartzeta eta bidegorria-rekin elkartu. Oinezkoendako bakarrik zen egokitutako bidexka.

Gainera, Iturriondo parkeko zuhaitz eta zuhaixka guztiek behar bezala izendatu eta txukuntzeo asmoa zuen Udalak.



M.A.

**jar
ku
pe**
kultur etxea



LENIZ LIBURUDENDA

MARIA JESUS
ARGAZKILARITZA

HERRIKO PLAZAKO DENDARI
KULTUR ETXE ETA TABERNEN PARTEZ...

JAI ZORIONTSUAK
ETA
URTE BERRI ON



ARTANO
AKAITEGIA



ILEAPAINDECIA & ESTETIKA

hileko esaldia

"Lau urterako udal programa osatu dugu, eta proiektuak abian jartzen gabiltza"

Inaxio Garro > Alkatea

hileko datua

190

Kirol Zerbitzuak antolatutako Udako Kirol Kanpainan 190 neska-mutikok jardun zuten. Batuka, igeriketa, tenisa, patinajea, multikirola eta, lehen aldiz, trialsina egin zuten bi txandatan banatuta.

izen propioak



Jokin Carrillo

IRUDIGILEA



Ibon Antero

HIRUATXEKO KIDEA



Igor Gordobil

ENTRENATZAILEA

Bederatzi kartel aurkeztu ziren Andramaixak iragartzeko lehiaketa- eta eta Jokin Carrillo arrasatearrarena hautatzen zuen epaimahaiak –iaz legez–, koloretsua eta alaia zelako.

2005ean Ekuatore Ginean abian jarritako egitasmoarekin segitzen zuen Hiruatzek: oilaskoak hazi eta saltzeko kooperatiba. Nekazaritza egoera hobetzeko lanean ibili ziren udaberria ezkerro.

Igor Gordobil arrasatearra izendatu zuen UDAk futboleko preferente mailako taldeko entrenatzale. Igor Arenatza, ostera, preferente eta lehen erregionaleko taldeen arduradun jarri zuten.

ABUZTUA



"Kirol etxea botatzeko 11 enpresa eraikitzaile aurkeztu dira"

Asier Muxika
> Kirol teknikaria



"Arkupe kudeatzeko bigarren deia hilaren 29 arte dago zabalik"

Xabier Mendizabal
> Udal idazkaria

Azken eguneko pilatu zen jendea Andramaixetan

Giro tristearekin hasi ziren Andramaixak baina egunetik egunera berotzen joan eta abuztuaren 17rako jendea piloa elkartu zen. Barricada taldearen kontzertua izan zen jaietako izarra eta jendetza handia eterri zen ikustera. Akrobata txinatarrek, osteria, ikuskizun bikaina eskaini zuten eta Azpeitiko zaldiek ere ekitaldi polita egin zuten. Iturrigorri pilotaleku bete egin zen paella jateko, eta koadrilen egunak kaleko giroa piztu zuen azken egunean.



M.A.

Mobiliario ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABAleta
Tel.: 943 79 08 07

- **Altzariak**
- **Diseinua**
- **Apainketa**



Urte berri on guztioi!



hileko esaldia

"Bi urtez kudeatuko ditugu Zaindusz gimnasioan emango diren kirol jardunak"

Bixen Calzon > Goiena Sporteko arduraduna

hileko datua

40

Elizbira egin zuten Andramaixari egunean, Ama Birjinaren irudiarekin. 40 urte ziren elizbirarik egiten ez zutela, eta herritarrekin batera udalbatzak hartu zuen parte Milagroko banda lagun zutela.

KIROLA > KIROL ETXEA

Abuztuaren 1a ezkerro, itxita kirol etxeko ateak

Uztailean bukatu zitzuten kirol etxeko jarduera eta ikastaro guztiak eta abuztuaren 1a ezkerro itxita ditu ateak. Udalaren asmoa zen eraikina bota eta bertan eraikitzea berria. Horretarako, barruko material guztia ateratzen hasi ziren abuztuan bertan, eta guztiz hustutakoan botatzen hasiko zirela iragarri zuten. Botatzen hasi aurrelik, baina, hainbat material kendu behar izan zituzten, batzuk birziklatzeko eta beste batzuk arriskutsuak zirelako; aurrealdean eta sabaian zituen uralita xaflak, esaterako.

EGOERA ESKASEAN

Frontoi erraldoi bat zen kirol etxea eraiki zutenean, eta 1987an berrikuntza batzuk egin eta kiroldegi bihurtu zuten. Urteak pasatu ahala, gero eta arazo gehiago zituen: hezetasuna, gimnasioan baldintza eska-sak, igerilekua txiki geratuta... 2006ko udaberrian ideien lehiaketa deia egin zuen Udalak. Kirol etxe berria egitea proposatu zuten Asier Akuriola eta Fernando Bajo arkitektoek, baita proiektua egin ere. Abuztuan oraindik onartzeko zegoen behin betiko proiektua.

IRAILA



"Giro onean eta bertsoak lagun, euskararekin jolas egiten dugu"

Leire Lardizabal > Loramendi
EEko dinamizatzailea



"Dendariak gonbidatu gura ditugu Barriketanen parte hartzera"

Gurutze Larrinaga > Barriketan egitasmoko koordinatzailea



MIREN ARREGI

Gai organikoak batzeko edukiontziaik

Materia organikoa jasotzeko edukiontziaik jarri zituzten herrian; edukiontzia marroiak hain zuen eta 19 guztira. Gipuzkoan hainbat herrian jarri zuten abian esperientzia eta Debagoienean, gurean.

Gai organiko gordina eta begetala bakarrik hasi ziren jasotzen -egosi bako barazkiak, fruta, arrautza oskolak...-, eta esperientzian parte hartzeko izena eman beharra zegoen. Horiek ikastaroa jaso zuten gero, eta hondakin organikoendako ontzia eta giltza eman zieten arduradunek; kaleko edukiontzi marroiak zabaltzeko zen giltza.

hileko esaldia

"Emakume eta gizonen arteko berdintasun diagnostikoa egin eta plana garatuko dugu"

Jaione Fraile > Berdintasun Saileko teknikaria

hileko datua

200

Haur Dantzarien Egunean sei dantza talde ~200 dantzari-elkartu ziren: Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak, Oñatioko Oñatz, Antzuolako Oinarria, Soraluze Urrats eta herriko Loramendi.

Herriko jolas guneak berritzen

Kurtzebarri eskola alboko eta Bedarreta auzuneko jolas guneak berritu zituzten eta txintxaun berritzaleak jarri.

Gaztelekuari erasoa

Inauguratu berri zegoen gaztelekura indarrez sartu eta su itzalgailuarekin bazterrak zikindu zituzten.

> GAZTEAK

Gazteleku berria inauguratu zuten Arkupe kultura etxeean

Arkupe kultura etxeean egin zioten lekua Atxagazte gaztelekuari –ordura arte Iralabarri plazan– eta irailaren 19an inauguratu zuten egoitza berria. Hainbat gela zituen gaztelekuak: harrera eta sukaldia goiko solairuan, eta topagunea eta musika lokalak, behean. Gazteria teknikariaren dako bulegoa ere bertan jarri zuten.

Inauguratzeko ekitaldirako hainbat eskulan eta musika talde antolatu zituzten, eta hurrengo hilabeteetarako ere egitarau dotorea iragarri zuten arduradunek.

> INGURUMENA

Iraeban eta Irurikoa baserrietarako proiektuak aurkeztuta

Urkulu inguru guztia biziberitzeko asmotan Naturgintza elkartearrekin zebilen lanean Udala. Goroeta auzoko Iraeban eta Aozaratzako Irurikoa baserriei zegokien proiektuak aurkeztu zituen Naturgintzak. Horren helburua urtegi inguru suspenditza zen eta 14 proposamen aurreikusi arren lau garatu eta aurkeztu zituen: Euskal Mendi Federakuntzaren egoitza; kooperativismoaren gaineko museoa; Slow Food mugimenduaren egoitza; eta ekologia eta nekazal-ekologiarren gaineko zentroa.



Aretxabaletako EAJ/PNV-k

gabon zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!

URRIA



"Portugaleteko Ama-Lur enpresak kudeatuko du Arkupe kultura etxea"

Edorta Mendieta > Kultura zinegotzia



"Kultura harremanak sendotzea du helburu holandarrekiko trukeak"

Iñaki Urreta > Kurtzebarri BHI eskolako zuzendaria

Ondasunen zerga %7,8 gora, eta ura eta zaborra %10

Alkateak iragarri zuen Foru Aldunditik %11 gutxiago jasoko dutela 2009an, eta ondorioz zerga batzuk igoera nabarmena izango dutela: hiri lurrei dagokien ondasunen zergak, %7,86; industria lurrei dagokienak, %6,75; eta baserri lurrei dagokienak, %5,77; jarduera ekonomikoaren gaineko zergak, %7; zaborrak, %10, mankomunitateak proposatako moduan; eta urak ere %10. Gainera, gutxieneko kontsumoa baino gehiago gastatzen dutenei KPI ere igoko zietela iragarri zuten.

Ezker Batua-Berdeak taldeak hiru zuzenketa jarri zizkien gobernuaren proposamenei, baina ez zitzuzten onartu.



M.A.

hileko esaldia

"Beste bizimodu asko baino deserosoagoa da gurea, abeltzantzan dihardugunona"

Xabier Abasolo > Abeltzaina

hileko datua

23

Gastronomia eta folklore jaialdi barruan XIV. patxaran lehiaketa antolatu zuen Zaraia Mendizale Taldeak. 23 botila aurkeztu zituzten eta irabazlea Eibarko Amaia Isas-Isasmendi izan zen.



Gizarte Zerbitzuendako leku gehiago


Gizarte Zerbitzuen bulegoa liburutegia izandako eraikinera aldatuko zutela iragarri eta egokitzen hasi ziren.



'ETA ez/ETA no' pankartari margoa bota

Margo gorria bota zioten udaletxeko balkoian jarritako *ETA ez/ETA no* pankartari.

izen propioak




Paulo Letona

ABADEA



Jose Maria Horcajada

GERRAKO LEKUKOA



Jesus Atxa

EUSKALTZALEA

Bidegileak bildumaren 52. alean euskarari bultzada eman-dako *Josetxiki-k* gerrako bizipenak jaso zituen *La Mancha nos dio un guarda* ri liburuan.

Leintz Pastoral Barrutiko abadeak 50 urte bete zituen abade. Eskoriatza-ko eta Aretxabaleta-ko parrokietak kideek omenaldia eskaini zioten.

DANBAKA
III. SIKHEHI ETA

ETORRI
KONTZERTURA
ETA IRABAZ EZAZU
SNOWBOARD
TAULA BAT!

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

urtarrilak
16
EGUBAKOITZA
22:30

SARRERAK //

SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO


KAMISETAK //

SALGAI DAUDE:
1> ESPALOA KAFE ANTZOKIAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN

KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2> 22 EURO 3> 30 EURO

INFORMAZIO GEHIGORAKO WWW.DANBAKA.COM

FINALA



BASABE *jatetxea*

Basabe poligonoa Aretxabaleta
Tel.: 943 77 07 94

- **Eguneko menua • Karta**
- **Plater konbinatuak eta ogitartekoak**

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)
GABON ZORIONTSUAK IGARO!



IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizuite!

AZAROA



"Euskarak etorkizuna badu, identitate emaile moduan da"

Amaia Antero > Arizmendiko Bazara taldeko koordinatzailea



"Kanpai jotzaileak egon badaude, baina nagusiak eta gero eta gutxiago"

Julen Abasolo > Areantzako kanpai jotzaile eskolako kidea



Udal Gobernua utzi zuen Eusko Alkartasunak

Azaroaren 17an Udal Gobernua uztea erabaki zuen Eusko Alkartasunak, urte eta erdi egon ostean Aralarrekin batera. Desadostasunik handienak hiru arlotan izan zituztela argitu zuten: Udal Gobernuaren kudeaketan eta herriarren partaidetza eskatzerakoan, Plan Orokorraren garapenean eta Basabe industrialdearen berregituraketan.

Aralarrek ezustekoan hartu zuen eta harreman ona izan zutela beti argitu zuen Inaxio Garro alkateak. Horregatik erabakiak goiko mailan hartutakoak zirudiela aipatu zuen, "interes pertsonalak tarteko".

M.A.

hileko esaldia

"Mendi Asteko ekitaldietan herriko mendizaleen ibilerak jaso ditugu"

Iñaki San Miguel > Murrukixo MEko presidentea

hileko datua

26

Akordeoi Orkestrako kideak –21 kide eta 5 senide– Argentinara joan ziren hainbat emanaldi egitera. La Platan, Mar de Platan, Buenos Airesen eta beste hainbat hiritan eman zituzten kontzertuak.



Al-Anon taldeak 18 urte herrian

Alkoholikoen lagun eta senideek osatutako taldeak lanean jarraitzen zuen 18 urte geroago.



Franco ohorezko alkate azaro arte

1949. urtea ezkerre zen Francisco Franco ohorezko alkate gure herrian; azaroan indargabetu zuten izendapena.

> ETXEBIZITZAK

Babes ofizialeko 100 etxebizitzaz zozketatu zituzten

Deba ibaiaren beste aldean egingo dituzten babes ofizialeko 100 etxebizitzaz zozketatu zituzten, 172 lagunen artean. Javier Madrazo sailburuak bertatik jarraitu zuen zozketa.

Etxeok Bruesa enpresa eraikitzailea zen egitekoa, etxebizitza tasatuen alboan. 53 eta 70 metro koadro artean izango zitzutela iragarri zuten eta guztiek izango zutela garajea eta trastelekua. Prezioak tamainaaren araberakoak ziren: 100.000 euro txikienek eta 126.000 handienek. Bi urte beharko zituela eraikitzeko esan zuen Bruesak.

> ELKARTASUNA

Saharara bidaltzeko jostailuak batzeko kanpaina abian

Algara ludotekak eta Iesbaa elkartea jostailuak batzeko kanpaina jarri zuten abian. Aljeriako Tindouf hiriko errefuxiatu kanpamenduan dagoen Martin Schreif zentroari laguntzea zen asmoa, hau da, berta-ko umeendako ludoteka egitea. Horretarako egoera onean zeuden jostailuak eskatu zituzten, trapuzkorik ez eta pila bakoak. Jostailu batzea girotzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten: ipuin kontaketa, marrazki festa, merienda Saharako jakiekin eta egitasmoari buka-era emateko jaialdia.



DISTIRA PROFESIONALA

Urte berri on!

Intxaurtxueta_16_behea
20540_Eskoriatza_Gipuzkoa
T_943 71 48 45
F_943 71 30 58
www.hemen-garbiketak.com




ABENDUA



"Koloreari eta mugimenduari eman diot garrantzia"

Idoia Elexpuru
> Margolaria



"Gustura gaude Arrasateko txapelketan egindako lanarekin"

Juanjo Orobengoa
> Akordeoilarien irakaslea

Herriko Plazak itxura berria azaldu zuen

Urriaren bukatzeoak ziren Herriko Plazako lanak, baina abendura arte irauen zuten. Gabonetan, guztiz itxura berria zuen plaza estreinatu zuten herriarrek. Saneamendu hodiak aldatzeko lanak aprobetxatuta erabaki zuen Udalak itxura berritza, eta irisgarritasunari eman zion lehentasuna. Hala, eskaliera bakarra jarri zuten Durana kaletik igotzeko eta alboetan bost metroko arrapala bi. Plaza eta arkupeak altuera berean jarri zituzten eta plaza barrenean zegoen harrizko pergola bota. Ondoren, farolak, zuhaitzak eta altzariak jarri zizkieten, eta, txikiagoa izan arren plaza berria, herriarrak gustura azaldu ziren.



M.A.

hileko esaldia

"Datorren urterako lau gela gehiago beharko dituzte Kurtzebarri eskolan"

Lore Martinez > Eusko Alkartasuneko zinegotzia

hileko datua

8

Kultura Sailak antolatutako Gabonetako erakusleihoko lehiaketan zortzi dendak eman zuten izena. Aurretik denek hartzen zuten parte, baina dendariek eskatu zuten izena eman beharra izatea.



Helbide elektronikoa kofradiak

San Martin-San Jose kofradiak helbide elektronikoa jarri zuen, baziideen kontsultak errazteko asmoarekin.



Lapurretak hainbat tabernatan

Lapurretak gehitzen hasi ziren Debagoienean eta abenduko lehen astean herriko bi tabernatan sartu ziren.

> KULTURA

Zinema abian berriro kultura etxearen, hainbat urteren ostean

Arkupe kultura etxea kudeatzeko hartutako Ama-Lur enpresak lanean hasi eta zinema antolatu zuen Kultura Sailarekin batera. Abenduko lehen egunean hasi ziren filmak ematen: zinekluba egunetan, umeendako filmak jaiegunetan eta helduendako filmak egubakoitzetik domekara bitartean.

Horrez gain, beste ikuskizun batzuk ere antolatu zituzten, eta Gabon bezperatan musikak izan zuen tarterik handiena, batez ere Leizarra musika eskolako emanaldiek. Akordeoi eta gospel kontzertua ere izan ziren.

> ELKARTASUNA

Nekazaritza ekoizpena hobetu nahian zebilen Hiruatz Afrikan

Hiruatz elkarrean Ekuatore Gineako proiektuaren berri eman zien baziide eta herriarrei. Nekazaritza ekoizpena hobetza zuen helburu: familiaren elikadura hobetu eta beste ereinketa batzuk jarri abian diru iturri izan zitezen. Hala, garapen eraginkorren oinarriak ezartzea gura zuen, eta kooperazioaren azken helburuak lortu: herri bakoitzaren autosustentua eta autokudeaketa.

Hiruatzek 100.000 euro batzeko konpromisoa hartu zuen 2007ko irailean eta 2008ko abenduan 70.000 euro zituen.

Gemes estetika

GABON ZORIONTSUAK!
Beti zuengandik hurbil!



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada giro!

ARLUTZ
TABERNA
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behe - Tel: 943 25 07 40

IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

Dorleta
DORLETA
Loteria primitiboak eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta

OTZETA JATETXEA
Aramburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABAleta 943 77 07 94

Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKIAK: GOIENKARIA



FAGOR 
Fagor Ederlan

URTARRILA

OTSAILA



"Herriarentzat 32 urte lan egiten ibili eta gero, eskertzen da herriak lan hori behar bezala balaratu izana"

Manolo Muñoz > Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea



"Zarimutzen paseatzen inspiratzen naiz idazteko orduan"

Ibon Segura > Bergarako Amodiozko SMSen irabazolea



"Eskertzen diogu Eskoriatzako herriari elkartasuna"

Agurne Juldain > Sahararen aldeko Nubi elkartekoak

UDALA > IRREGULARITASUNAK

Ustezko kontratazio irregulararrak aztertzen hasita

2007aren bukaeran, San Juan kaleko lanen gaineko aurreko agintaldiko faktura batzuk heldu ziren udaletxera. Gaur egungo udalbatzaren iritzia da ustezko kontratazio irregularitasunak egin zituztela. Eta hori hobeto aztertzeko, ikerketarako batzordea sortu zuten alderdi guztiak.

Honako ordezkariek osatu zuten batzordea: Ander Agiriano, Aitor Urrutia, Juan Luis Merino, Leire Okarantza eta Iñaki Pierrugesek. Eta Pierruges izendatu zuten batzordeko presidente. Alkatearen ustetan, irregularitasun horiek 2008ko aurrekontuak baldintzatu zituzten.

> INGURUMENA
Herriko eraikin publikoen kontsumoa aztertzen hasi ziren

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Udalak egindako hitzarmenaren ondorioz, eraikin publikoen kontsumoa aztertzen hasi zen EEE.

Horren ostean, asmoa zen Eskoriatzako eraikin publikoetan eguzki plaka termikoak edo energia sortzeoak jartzeko eta udalerrian energia hidroelektrikoa sortzeoak aukerak aztertzea.



Eguzki plakak kirolegian.

UDALA > UDAL AURREKONTUA

6.121.916 euroko udal aurrekontua onartu zuten

Otsailean onartu zituzten udal aurrekontuak, ezker abertzalearen babesarekin. Hain zuzen ere, EA, EAJ eta PSE-EE abstentu egin ziren eta EB-Berdeak taldeak kontra bozkatu zuen.

2008ko aurrekontuak 2007koak baino txikiagoak izan ziren; milioi bat euro inguru-

ko aldea zuten aurreko urtekoarekin. Inbertsio handiena Santa Anan egin gura duten erabileraren askotariko lokalaren dako izan zen. Beste inbertsio garrantzitsu batzuk izan ziren San Pedro eta Ibarraundi arteko ingurua hobetu, elizateetan hainbat lan egitea eta beste.

> JAIAK
Aratusteetarako hainbat berrikuntza egin zituzten

Azken urteotan Aratusteek herrian izan duten giro eska-sa kontuan hartuta, Udalak eta tabernariekin ahalegina egin zuten Aratuste-zapatua indartzeko.

Udalak makillaje tайлerra, dantzaldia, kalejira eta herri bazkaria antolatu zituen; eta tabernariekin hainbat zozketa egin zituzten.

> ONDAREA
Leintz Ibarraundi fundazioaren garapena gelditzea erabaki zuten

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak batera abiarazitako Leintz Ibarraundi fundazioa "oraingo gelditzea" erabaki zuen Eusko Ikaskuntzak. Fundazioaren helburua zen Leintz ibarreko ondarea ezagutzen ematea.

Bitartean, baina, bi erakundeek adostu zuten hainbat ekinmen bultatzeko elkarlanari eustea.

> OHITURAK
Bi neskak dantzan egin zuten lehenengo aldiz Santa Ageda bezperan

1990. urteko 30 bat lagun ibili ziren dantzan Santa Ageda bezperan. Horren harira, ohiturak aldatzen doazenez, oraingoan, lehenengo aldiz, bi neskak egin zuten dantza plazan.

Gadea Errasti eta Elixabete Gabilondok aitortu ziguten urduri zeudela, baina ederto egin zuten dantza, eta beste batzuei bidea zabaldu zieten.

> LANAK
Amaralek urbanizazio lan batzuk egin zizkion Udalari ordainean

Udalak eta Amaral enpresak izan zuten ika-mika konpondutzat eman zuten bi aldeek. Hala, Udalak enpresari ezarritako zigorra barkatzeko, hainbat lan egitea esku zion.

Hortaz, hainbat elkarrizketa izan ostean, isuna jarri beharrean Amaral enpresak hainbat markesina jarri zituen udalerrian trukean.



Zubia Pateek gabon jai zoriontsuak opa dizkizuete guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza

Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79

www.pateszubia.com



**Eraikuntzak
Obra Publikoak
Kontrata Orokorrak**

Ondo pasa gabonetan!



Urte berria arrimatu da
Eta agur urte zaharrai
Aurtengoa baino eskasagoa
Izaterik ez dugu nahi
Portasoleko Ion-en partetik
ta Eskoriatzako Pagaldai
Gabon zoriontsuak eta
Urte berri on bertako bezero danai



Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABAleta

Zorionak eta urte berri on!

Maulanda
merenderoa

Gabon
zoriontsuak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

MARTXOA



"Auzoa zarata bako leku lasaia zen; orain ez dago atsedenik"

Juan Carlos Beloki > Mazmelako auzo alkatea



"Gogoa, bizitasuna eta jakin-mina behar ditu komunikatzaile batek"

Andres Gostin > Huheziko Ikerentzunezkoetako irakaslea

INGURUMENA > URA

Udala Zaragozara joan zen ura nola erabili ikastera

Hilaren 14an Udaleko Ingurumen Saileko ordezkaritza bat Zaragozara joan zen, uraren gainerako azoka erraldoira. Udal Gobernuaren lehen neurrieta bat urari eta haren erabilera eta kontsumoari garrantzi handia ematea izan zen. Horren isla izan zen Zaragozarako irteera.

HERRITAREN EREDU

Administrazioak herritarren aurrean ura kontsumitzeko orduan eredu izateko konpromisoa hartu zuen. Hala, ura aurrezko teknologiak ezagutu eta lehengaia ahalik eta egoien erabiltzeko moduak ikastera joan ziren.



Uraren kontsumo arduratsua egiteko konpromisoa hartu zuten Udalak.

> INDUSTRIA Publizitatea egin behar, industrialdeko pabiloiak saltzeko

Pabiloi gutxi saltzen zirela eta, Eskoriatzako Industrialdea SA zenbait udal ordezkarirekin bildu zen –Udala da jabea– egoerari konponbidea emateko.

2005 eta 2006. urteetan salmentek behera egin zuten eta 2007an ia ez zen bulegorik saldu. Publizitatea kanpaina abiaraztea pentsatu zuten.

> ELKARTASUNA Antolatzaleak pozik saharar herriaren aldeko jaiarekin

Saharar herriari elkartasuna adierazteko jaia primeran irten zen. EAE mailako Sahararen aldeko elkarteeek antolatu zuten, eta elkartea horiek guztiak biltzen dituen Otsailak 27 Koordinadorea oso pozik agertu zen ekitaldiek izan zuten jarraipenarekin. Herri bazkaria eta ekitaldi politikoa izan ziren aipagarrienak.

APIRILA



"Helburua lortzen gabiltza: eztaba eta hausnarketa sortzea; ikasleek euskal nortasun krisia dutela uste dut"

Monika Madinabeitia > Huheziko irakaslea, 'Euskaldunak munduan zehar' hautazko ikasgai

OSPAKIZUNAK > JOSE ARANA HIL ZELA 100 URTE

Herriari emandakoagatik, merezitako omenaldia Aranari

Apirilean Jose Arana enpresaburu eta mezenas eskoriatzarraren heriotzaren mendeurreneko ospakizun ekitaldiak egin ziren. Ibarraundi museoak antolatuta, eta Udalaren laguntzaz, Arana zein zen eta haren ekarpenak gogoratzeko zenbait ekitaldi egin zituzten. Besteak beste, erakus-

keta bat, Aranaren bizitza eskoian ikasteko materiala eta haren mausoleoaren garbiketa.

ESKORIATZA, 'ZORRETAN'

Aranarekin zorretan da Eskoriazta. 1908ko abenduan, hil ostean, 200.000 pezeta uzi zituen testamentuan, herriko beharrak asetzeko.



Hainbat herritarrek ezetz esan zuten.

> ABIADURA HANDIKO TRENA Herritarrek desjabetze akten altxamendua atzeratzea lortu zuten

Apirilaren 15ean egin behar zuen Espainiako Sustapen Ministerioak AHTrako desjabetze akten altxatze ekitaldia. Hala ere, AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako mobilizazioak ekitaldia oztopatu zuen. Hainbat herritarrek gaua udaletxeen pasa zuten eta Espainiako Gobernuko ordezkariek ezin izan zuten udaletxera sartu. Ertzaintzaren babesia izan zuten.

Gabonetan oparitu edertasuna!



Hasi urtea Edurne estetika zentroan!

- Hertz zuritzea
- Fotodepilazioa
- Drainatze linfatiko masajeak
- Erlaxazio masajeak
- Solarium bonuak
- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

Aranburuzabala 4 2, behea ESKORIATZA Tel.: 943 71 51 54

MAIATZA

EKAINA



"Autobidea bukatu ahala, auzoa ahalik eta txukunen utzaráztea da gure ardura handienetarikoa"

Garikoitz Ibabe > Apotzagako auzo alkatea



"Ikusgarria da zenbat herriarrek egiten duten lan azokan"

Olatz Arrese > Eskoriatzako Ferixien koordinatzailea



"Musika klasikoa entzuten dut; Mozart asko gustatzen zait"

Pedro Lasagabaster > Eskoriatzako alkatea

HISTORIA > ATXORROTZ EGUNA

Ibarreko biztanleei babes eman zien gaztelua, gogoan

Maiatza hasieran hainbat eskoriatzarrek gogora ekarri zuten XII. mendetik egon zen Atxorrotz mendi tontorreko gaztelua. Atxorrotzko gazteluaren gaineko jardunaldiak antolatu ziren bi egunez. Hilaren 6an Iñaki Sagredo idazlearen hitzaldia eta bideo emanaldia izan ziren ikusgai Iba-

rraudin. Eta egun bat geroago, Iñaki Padilla arkeologoak beste berbaldi bat egin zuen.

ARBASOEN GOTOLEKU

Historia handiko gotolekua zen, Leintz bailarako eremu zabala menderatzen zuen eta ibarreko biztanleak babesten zituen.

> HEZKUNTZA

Aitaita-amamek ikasle txikien begirale lanak egin zituzten

Hilaren 22an aitaita-amamen eguna ospatu zuten Arizmendi ikastolako Jose Arana gunean. Aitaita-amamek egun batez irakaskle izateko aukera izan zuten.

Nagusiek ekintza asko egin zituzten txikiiek. Besteak beste, ipuinak kontatu zizkieten; eta ogia eta erroskilak egiten, loreak landatzan eta pilotan jokatzen irakatsi zieten txikienei.

> ERAKUSKETA

Islamaren xehetasunak ezagutzeko erakusketa izan zen Ibarraundin

Islam, guzion ondarea izeneko erakusketa izan zen ikusgai maiatza osoan. Ibarraundi museoan erakutsi zen islamari buruzko oinarrizko xehetasunak azaltzea helburu zuen erakusketa.

Zibilizazio islamiarraren gainerako informazioa eskaini zuen erakusketak, hamaika argazki eta marrazkik lagunduta. Jende askotxo interesatu zen.

JAIA > XII. ESKORIATZAKO FERIXIE

Herria saltokiz, ekimenez eta jai giroz bete zen eguna

Eskoriatzako Ferixie urtean zehar Eskoriatzan egiten den ekitaldi garrantzitsuenetarikoa da. Eskoriatzarentzat oso egun berezia da, eta ez da asperozko unerik izaten. Ferixie Jose Arana guneak antolatzen badu ere, Udalaren eta herritarren laguntza ezinbestekoa da.

GAZTA DASTATZE ETA LEHIAKETA

Aurreko edizioekin alderatuz, 2008an berrikuntzak izan ziren azokan. Garrantzitsuena herriko plazan egin zuten gazta dastatze eta lehiaketa izan zen.

Herriko hiru gaztagileren gaztak dastatzeko eta onena hautatzeko aukera izan zen.



Oso ekimen garrantzitsua da eskoriatzarentzat Eskoriatzako Ferixie.

> INTERNET
Gura dutenek gura dutena esateko, 'Eskohitza.com' bloga


Aitzorrotz elkartearren ideia izan zen eskoriatzarrek elkarren artean komunikatzeko blog komunitatea sortzea; erabiltaileek euskara lehenesten dute eta denak dira blo-garen kudeatzaile.

Herrikoendako zuzendu zen arren, denborarekin ibarreko herrietako jendea ere sartu zen komunitatean.

> V. ASTE ZAPATISTA
Zapatismoak bizirik dirauela erakutsi zuten, bosgarrenez

Eskoriatzako eta Aretxabale-tako Zapatisten Lagunek antolatu zuten, Amuska elkartearren laguntzaz. Bosgarren edizioa izan zen, eta ekitaldiak aste osoan izan baziren ere, zapatuan, hilaren 21ean, jai erraldoia ospatu zuten.

Bi herrietako lagunen artean egina, kolorea eta errebindikazioa izan zen nagusi.



Tel.: 943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

GATZA-GAIN Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitardekoak
- Espezialitateak:
Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



ONDO PASAU GABONETAN



Villar

ile apaindegia

Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA



UZTAILA



"Kolonbian lurrikarak izan genituen gure etsai handienak"

Jose P. Madinabeitia
> 50 urtez karmeldar fraidea



"Jaietako egitarauak erantzun itzela izan du herritarren aldetik"

Edorta Barandiaran
> Udaleko Kultura zinegotzia

EUSKARA > ETORKINAK

Etorkinak euskarara hurbiltzeko Aisa ekimena

Leintz Udal Euskaltegiak, Jaurlaritzak sortutako Aisa unitate didaktikoaz baliatuta, hainbat etorkini ikastaroak eman zizkien uztalean.

Unitate didaktiko horren helburua da Euskal Herrira etorritako etorkinei euskaran eta euskal kulturaren gai-

neko ezagutza ematea; betiere, euren jaioterriko kultura ere abiapuntu hartuta.

Ikastaroak oso emaitza onak izan zituen eta Aljeria, Ghana, Sahara eta Kubako ikasleek asko ikasi zuten. Are gehiago, horietako batzuek euskal-tegian jarraitu zuten.

> ONDAREA

Elorretako errota berritu egin zuten, bisitatu ahal izateko

Abasolo familiaren hainbat belaunaldik lan egin zuten Elorretako errota berriro eraiki zuten.

Berritzetako Sukia enpresak egin zuen, etxebizitzak egiteko errota zaharra leku aldatu zutelako. Udalaren helburua da errota horien funtzionamendua erakusteko bisita gidatuak egitea.

> KULTURA
Uztaileko asteburueta Errekan Gora jaialdia egin zuten

Udalak, Arriola eta Aitzorrotz kultura elkarteen laguntzarekin, Errekan Gora jaialdiari lehenengo edizioa antolatu zuen.

Elorrioko Musikaire jaialdiaren ildotan, helburua izan zen ikuskizun eskaintza dotorea herrira eramatea, herri-tarrak bertan gelditzeko eta kanpotarrak herrira gerturatzeko. Oso arrakastatsua izan zen.



Fado Em Si Bemol taldeak esku hartu zuten Errekan Gora jaialdian.

ABUZTUA



"Errekan Gora moduko ekimen gehiago behar ditugu herrian; are gehiago, udan herrian gelditzeko"

Delfin Guede
> Erretiratua

OSASUNA > OSASUN ETXEA

Pediatria zerbitzuan hainbat arazo izan zituen Osakidetzak

Haserre zeuden gurasoak eskaintzen zitzaien pediatria zerbitzuarrekin. Salatu zutenez, pediatria goizetan bi orduan baino ez zen egoten ume txikienekin, eta nagusigotxoak ziren umeak, berriz, familiako medikuak haritu behar izaten zituen haren ordez.

Osakidetzako arduradunek onartu zuten pediatria arloan giza baliabideak eskasak zirela, pediatria titularra bajan zegoelako. Hala ere, jakinarazi zuten edozein urgentzia izanda, mediku bazegoela.

Uda garaian halakoak gerta-tzen direla jakinarazi zuten.



Oinezkoendako pasabidean, lanak.

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua

• **Gazte menua**

• **Karta**

Bazkariak eramateko

Gabon jai zoriontsuak!



AMG

Alberto Murillo Gambría
Torrebaso pasealekua 14-B
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
Tel.: 943 71 42 79
amgautoak@yahoo.es

- Karrozeria
- Elektromekanika
- Mantenimendua

Ondo pasa Gabonetan!
a u t o a k

IRAILA

URRIA



"Guk antolatzen ditugun ekintzetan emakumeek lehentasuna duten arren, gizonezkoek ere esku har dezakete"

Dorleta Urrutia > Amuska emakumeen elkarteko presidentea



"Inoiz ez da berandu idazten ikasteko, oso gustura nago eskolan"

Rosalia Blanco > Helduen Heziketan ikasle 100 urterekin



"Jose Arana oso gizon ekimentsua eta ausarta izan zen"

Isabel Aramendia > Jose Arana erakusketaren arduraduna

HIRIGINTZA > INDUSTRIALDEA

Industrialdea kudeatzeko asmo berriak onartu zituzten

Aurreko ikasturtean egindako hausnarketari jarraituta, Udalak ondorioztatu zuen Eskoriaztako Industrialdearen ordura arteko kudeaketa ez zela egokia izan, eta aldaketak egitea erabaki zuen.

Horren barruan erabaki zuten udalerriko industrialdea-

ren kudeaketa Debagoieneko Industrialdea erakundearen eskuetan uztea.

Aldaketa hori egitea onartu ostean, Udalaren asmoa zen Debagoieneko Mankomunitatearekin eta Jaurlitzaren Sprilurrekin batzartzea, horien oniritzia jasotzeko asmoz.

> INGURUMENA
Bizikleta ibilaldia, tailerrak eta beste Mugikortasun Asteak

Udaleko Gazteria sailak eta Ibarraundi museoak elkarlanean mugikortasunaren gaineko astea antolatu zuten *Aire garbia denon-tzat* izenpean. Helburua izan zen herriarri erakustea mugitzeko modu erosoago eta onuragarria-koak daudela.

Bizikleta ibilaldia, bizikletak konpontzeko tailerra eta berbal-di garrantzitsuak egin zituzten.

> ETXEBIZITZAK
Kuatruenan eta Aranburuzabalan, etxebizitza sozialak

Udalbatzak ezhiko udal bilkuraren aho batez onartu zuen Kuatruenako plan partziala aldatzea ingurune horretan 40 etxebizitza sozial eraiki ahal izateko.

Bestalde, Aranburuzabala inguruko plan bereziaren aldaketa ere onartu zuten, nahiz eta EB taldeko ordezkariek ezetz bozkatu zuen. Udalaren asmoa da bertan 40 etxe sozial egitea.

ONGIZATEA > MESEDEETAKO AMAREN EGOITZA

Zaharren egoitzaren geroa eztabaidatzen hasi ziren

Mesedeetako Amaren egoitzaren etorkizuna eztabaidagai jarri zuen Aldundiak Udalerri egindako jakinarazpen baten bitartez.

Hala, Aldundiak Udala behartu zuen egoitzan aldaketa sakonak egitera gaur egungo legedira egokitzen.

ALDUNDIA ETA GSR

Aldundiak jakinarazi zuen egoitza berria eginez gero, lanak ehuneko ehunean finantzatuko lituzkeela, baina egoitzaren kudeaketa GSR enpresa pribatuaren esku geldituko zela. Horren aurrean Udalerri erabaki zuen herritarrei galdeztea.



Mesedeetako Amaren kudeaketa udalerriko patronatuak izan du luzaroan.

> ETXEBIZITZA
Etxebizitzen gaineko eskaerak beherakada nabaria izan zuen

Krisi ekonomikoa dela eta, herrian abian zeuden etxebizitzak proiektu batzuk geldirik egon ziren sasoi baten.

Horien artean, nabarmen-tzko da Santa Marinan egin beharreko etxebizitza tasa-tuen hainbat eskatzaile atze-ra bota zirela. Horren aurrean Udalerri Visesarekin batzar-tzen saiatu zen.

> INGURUMENA
Biomasa energia ibilikoz duen galda jartza erabaki zuten

Udalbatzak erabaki zuen kul-tura etxeen zuten gasolioko galda kendu eta pelletea era-biltzen duen berri batekin ordezkatzea.

Galdara berria jartzearen arrazoia zen eraginkortasunagoa izatea eta erregai gu-txiago kontsumitzea. Egur hondakinez osatutako pelle-ta aukeratu zuten.

Goiena Magazinea

Abenduak 29, 30 eta 31

- Solasaldia
- Berriak
- Kirolak
- Eguraldia
- Elkarteak
- Osasuna / nutrizioa
- ...

ORDUTEGIA: 19:45 - 21:15 - 23:30



AZAROA



"Pazientzia eta dedikazioa behar da turroiak ondo egiteko"

Joxe Mari Arkauz
> Turroi egilea



"Ibarrean ez dago entrenatzeko instalazio egokirik"

Sergio Frutos
> Auto telegidatuen gidaria

INGURUMENA > ERAIKUNTA IRAUNKORRA

Bioeraikuntza azoka egin zuten lehenengoz ibarrean

Ibarraundi museoak eta Udalak antolatutako ingurumen zikloaren barruan, eraikuntza jasan garriaren gaineko azoka egin zuten asteburu batean kiroldegan.


Euskal Herriko hainbat puntuatik etorritako hamaika enpresa espezializatuk esku

hartu zuten azokan. Horien artean, egurrezko eraikuntzak lantzen dituztenak, biomasako galddarak merkaturatzen dituztenak, energia alternatiboen adituak, material informatikoa birziklatzen dutenak eta beste. Azokak oso harrera ona izan zuela jakinarazi zuten.



Ibarreko herri askotako jendea joan zen Eskoriatzan jarritako azokara.

ABENDUA



"Txakurraren lana garrantzitsuena da, hark jaso behar ditu piezak, eta horrek meritu handia dauka"

Alex Oiartzabal
> Euskadiko ehiza txapelduna

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA


Bidegorriaren hilerrirainoko tramua lizitaziora atera zuten

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorreko Sailak bidegorriaren Eskoriatza eta hilerrari arteko tramua lizitaziora ateraz zuen.

Baldintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, asmoa zen lanak 2009ko udaberrian hastea, eta bost hilabe-

teko epea aurreikusi zuten lan guztiak bukatzen. Onartutako aurrekontua 949.714 euro zen.

ASPALDIKO TUNELA AZALERA
Tramu horretako lanei esker, orain dela 20 bat urte sarrera itxi zioten tunela berriro erabilgarri egongo da.



Bidegorriaren traztua egiteko aspalditik itxita dagoen tunela zabalduko dute.



**Zenbaki
Ahokulariak**



**EMPRESA
CERTIFICADA
ISO 9001:2000**

• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• Fiskala:

- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilidadea:

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABAleta
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



Tel. Faxa: 943 71 43 41
Aranburuzabala 6, behe
20540 Eskoriatza
ainara@hotmail.com



Aitor Odriozola Lopez
1081 Elkargo-zentroak

Oihana Loiti Loiti
946 Elkargo-zentroak



Tratamenduak

- Zaintiratuak
- Bizkar hezurreko arazoak
- Operazio osteko errekuperazioa
- Pelbis eta pirineoaren errehabilitazioa
- Buruko minak, migrañak
- Zorabioak, bertigoak
- Umeak (erditze arazoak)
- Kontrakturak, distensioak
- Kirol-lesioak
- Estatika arazoak
- Postura
- ...

Teknikak

- Masajeak
- Osteopatia kraneala, biszerala eta estrukturala
- R.P.G. (Errekuperazio postural globala)
- Bendaje funtzionala eta kinesiotaping
- Elektroterapia
- Kinesiterapia
- Fisioterapia abstretikoa
- Drenaje linfatikoa
- Cyriax

Beste zerbitzu batzuk

- Podologia
Doniantzu Larrea
- Dietetika
Leire Pagaldai

Partikularrak

Etxez etxeko zerbitzua

Seguru ezberdinak

- Lagun Aro
- Mapfre
- Zurich
- Lagun Aro Sinistros
- Catalana Occidente
- Axa
- ...

**Gabon jairik zoriontsuenak
opa dizkizue Lenizek!
Urte bermi on!**



KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

**Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa**

LEINTZ GATZAGA

URTEARI BEGIRATUA

2008

> URTARRILA

**Autobus gehiago
hasi ziren
pasatzen herritik**

Urte berriarekin batera zazpi autobus hasi ziren pasatzen herritik egunero. Udalak eta Garraio batzordeak eskatu zioten Aldundiari autobus gehiago jartzeko, eta azkenean onartu egin zuen. Jarritako autobusok bai Gasteizera, bai Arrasatera joateko ziren, eta Arrasateko institutura joan beharra zuten gazteek gustura hartu zuten.

Ordura arte herrian zegoen taxi-bus zerbitzua, ostera, kendu egin zuen Aldundiak urtarri erdian. Udal eta herritarrok ez ziren konforme geratu murrizketa-rekin, goiz erdian Eskoriatzara joan-etorria egiteko zerbitzu barik geratu zirelako.



> OTSAILA
**Gatz museoan gas
bonbona jartzeko
asmoa zuen Udalak**

Repsolek egindako eskaaintza bat onartu eta gatz museoan gas bonbona jarriko zuela iragarri zuen Udalak. Ordura arte argindarra erabiltzen zuten, eta aldaketa egiteko arrazoia izan zen gasa merkeagoa dela. Lanok 2008ko udal aurrekontuan sartuko zitzuela iragarri zuten.

> MARTXOA
**XX. urteurrena ospatu
zuten 'sorginek'
martxoaren 8an**

Sorginak emakume elkartea 20 urte bete ditu aurten. Emakumearen Nazioarteko Egunean urtero egiten duten bazkarian ospatu zuten XX. urteurrena. Aurrekoetan baino gutxiago elkarte arren –23 guztira–, umore onean eta isuskiak banatuta ospatu zuten eguna.


**Josunek eta Maitek
gabon zoriontsuak opa dizkizuite!**



Harmanta

Lentzeria,
umeen moda eta opariak

Tel.: 943 71 53 87
Gaztainadui 21
ESKORIATZA





> UZTAILA

Gasaren azpiegitura lanak, bukatuta

Martxoan hasi zituzten bigarren faseko azpiegitura lanak: saneamendu hodiak aldatu, zangak egokitu, gasaren hodiak sartu eta argiteria berritu. 291.000 euroko aurrekontua zuten lanok -Jaurlaritzak 169.000 euroko laguntza eman zuen-, eta Arrasateko Aikia enpresak egin zituen. Pilar kalean, frontoi inguruan eta Erronda pasealekuaren egin zituzten lanok, eta kaleak txukundu zituzten bien bitartean. Hala, San Inazio kalean zegoen komun publikoa bota egin zuten eta haren ordez pasabidea egin errepideraino. Oso dotore utzi zuten errepeide alboko pasealeku.

> APIRILA Errepidean zegoen zuloa konpondu zuen Aldundiak

Gatzagatik pasatzen den GI-3310 errepeide nagusian zuloa zegoen, kanposantura hartzan den bidegurutzean. Udalak egoeraren berri eman zion Errepide Sailari, eta laster etorri ziren konpontzera. Astebeetan estali zuten eta errepeide alboko horma berregin. Lanok iraun bitartean semaforoak ematen zuen pasatzeko txanda.

> APIRILA 427.826 euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak

Aurrekontuaren erdia inguru Udalean sortzen diren gastu arruntak ordaintzeko zela iragarri zuen alkateak, eta inbertsioendako diru gutxi geratzen zela: 60.000 euro. Aurreikusitako diru partidariak handienak bigarren faseko azpiegitura lanak ordaintzeko eta eskolan eta gatz museoan berogailua jartzeko ziren.

> EKAINA Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza, onartuta

Ordenantza aurretik zegoen, baina aldaketa batzuk egin zizkion udalbatzak. Onartu zuten gatzgarrek lehentasuna izatea abereak mendian ibiltzeko eskaerak egiterakoan, eta lekua egonez gero kanpokoei aukera ematea. Gainera, mendian ibiltzeagatik gutxiago ordaindu beharko zuten herritarrek.

> IRAILA Bi izar dituen Soran Etxea hotela inauguratu zuten

Iraillaren 11n inauguratu zuten Soran Etxea hotela Montse Valerio eta Loren Larrañaga ugazabek. XVI. mendean eraikitako jauregia 2006an erosia eta guztiz berri zuten lehenengo itxura mantenduta -egurra eta harria gordeta-. 10 logela, batzar gela, jatetxea eta taberna ditu hotelak.



Inauguratzeko ekitaldia.

M.A.

> IRAILA Jende askorik ez zen ibili, baina oso giro polita izan zuten Andramaixetan

Rock kontzertua, hainbat eratako dantzak, kenpo erakustaldia, adardunak, gaztelu puzgarriak eta jolasak umeendako eta mendidi zeharkaldia bizikletan. Hori eta gehiago antolatu zuen Kultura Sailak herriko jaietarako, eta, uste baino jende gutxiago hurreratu arren, giro polita izan zuten ekitaldi guztietan. Herri afarian 150 lagun elkartu ziren eta Otxandiotik ere makina bat jende etorriz zen, urtero legez.



Alchemy taldearen kontzertua Andramaixetan.

GOIENKARIA


MARTIN

Fruitategia
Kontserbak
Ardoa



Ondo pasa Gabonak!

San Juan kalea 12 A Tel.: 652 77 53 58



> URRIA

Dorletako Amaren 50. urteurrena

Urriaren 26an ospatu zuten Dorletako Ama koroatu zuteneko 50. urteurrena. Gatzagako txirrindulari batzordeak eta Udalak antolatu zuten ekitaldia, Dorletako santutegian, eta Juan Maria Uriarte gotzainak esan zuen meza. Hainbat zikloturista joan ziren ospakizunera, eta bertsolariek, dantzariek eta Eskoriatzako abesbatzak girotu zuten ekitaldia.

GOIENKARIA

> AZAROA

Arlaban gaineko planaren aurkezpena

Urriaren 28ko osoko bilkuran behin behineko onarpena egin eta herritarren aurrean aurkeztu zuen Udalak Arlaban gaineko plan berezia. 45 egun zituzten herritarrek aleazioak aurkezteko.

Plan barruan Gatzagain eta Arlaban inguruko 45 hektarea sartu zituzten eta honela banatu: nekazal turismorako, 17; nekazal ekipamendu eta enpresendako, 4; ingurumenaren babeserako, 10; eta Aizkorri-Aratz parkeko mugetarako, 14. Turismorako aurreikusitako 17 hektarea horietatik %5 bakarrik izango lirateke eraikitzeko eta gainerakoak aisialdirako. Nekazal ekipamenduetarako zeuden 4 hektareen kasuan, osteria, erdia eraikitzeko zen.



Hiruerreketara bidean dagoen Sanjuanzar baseria.

GOIENKARIA

> URRIA

Sanjuanzar baseria kultura ondare izendatzeko lehen pausoak ematen hasi zen Jaurlaritza

Gatzagako Olaun aldean dagoen Sanjuanzar baseria Euskal Kultura Ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko lehen pausoak ematen hasi zen Jaurlaritza. Monumentu izendapenaz sartzea gura zuen, kultura interesa zuela arrazoituta. XVIII. mendekoa da baseria, Arabara bidean ostatu izateko eraikia, eta oraindik jatorrizko itxura gordetzen duena.

> URRIA

Gaztainuzketako mendi etxeak berriro zabalik

Irailean itxi zituzten mendi etxeak, eta urrian berriro zabaldu. Amaia Olabek eta Xabier Jausorok hartu zuten Gaztainuzketako zappi mendi etxeen arduera lau urterako -20 urte arte luza daitezkeenak-. Jatetxea ere zabaldu zuten eta menuak eta plater konbinatuak eskaintzen hasi ziren.

> URRIA

Zaborra %10 eta gainerako zergak %4,5 igotzea onartu zuten

2009rako udal zerga eta tasen igoerak onartu zituzten. Gehienek %4,5eko igoera izango zute la iragarri zuten; hau da, KPI: ondasun higiezinen gaineko zergak, urak, potentzia handiko automobilien zergak... Eta auto txikiena ez igotzea onartu zuten. Zaborra, osteria, mankomunitateak esandakoa igoko zuten, %10.

> ABENDUA

Ur-depositua eraikitzeko laguntza eskaera egin zuten

Gaztainuzketako mendi etxeek uda partean izaten duten ur arazoa konpontzeko eta Arlabango plana aurrera eroateko, Udalak aurreikusi zuen ur-depositua Gatzagain inguruan eraikitzea. 550.000 euroko gastua zuten lanek, eta Landagipuzkoa egitas-mora aurkeztu zuen proiektua, dirulaguntza jasotzeko.

Izan 2009 zoriontsua!

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE IRRATIA · ASTELEHENKO GOIENKARIA · GOIENA TELEBISTA · GOIENA.NET · GOIENKARIA



2009ak hurbildu gaitzala merezi dugun bake eta normaltasunera
Zorionak Leintz-tar guztioi

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko Eusko Alkartasuna



**ONDO PASA
GABONETAN!**

Gipuzkoa etorbidea, 7
20500 Arrasate
Tel. 943 79 59 06

Santa Ana, 11
20540 Eskoriatza
Tel. 943 71 48 61



www.eguren.eu

670 41 38 91

eguren@eguren.eu

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



Diru babestua.

Egunetik egunera, gero eta jende gehiagok erabakitzentzu du **Kutxaren Inbertsio-Irtenbideen** aterkipean babestea. Zure egoera pertsonalari gehien egokitzen zaion irtenbidea bilatzen lagunduko dizugu, zure dirua erabat babestuz.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net


 **kutxa**

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKIAK: GOIENKARIA



**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!**

LASA jatetxea
Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorean
leihoak
ateak
horma-armairuak



**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!!!**

atzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

motozerrak

motosegak

heskaia
mozteko
makinak

haizatzaileak

xurgagailuak

atomizagailuak

trontzatzeko
makina



Ingurugiroa zaintzen dudu



comercial BRUNET



Zorionak eta urte berri on!



Telleria kalea 2, Labegaraieta industrialdea - BERGARA
Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12 - e-mail: brunett@telefonica.net
www.comercialbrunet.com

kale inuesta

Urte bukatzean dagoela-eta, zer eskatzen diozu urte berriari?



Iker Herran
Langilea




Irene Varela
Langilea



Selvira Montesinos
Langilea



Miguel Diaz Ramirez
Erretiratua



Paulino Arriola
Langilea



Josu Goenaga
Langilea

Egia esan, ez daukat eskaera berezirik. Orain nagoen moduan egonda konformatuko nintzateke datorren urtean. Krisiak, oraingoz, ez dit askorik eragin; hortaz, nahiko ondo nago.

Hiru gauza eskatuko nizkiokoe urte berriari: osasunez ondo egotea; krisian gauden arren lana izatea; eta guztiondako bakaera lortzea. Hirurak lortzea zaila izango da, baina tira...

Ohiko galderari ohiko erantzuna emango diot: osasunarekin arazorik ez eduki- tza gurako nuke, eta lanean jarraitza. Krisiarekin etorkizuna beltza da, baina itxaropentsu nago.

Gauza guztien gainetik, bakaera eskatuko nuke guztiondako. Bestalde, osasuna izatea garrantzitsua da. Ekonomikoki urte zaila izango dela diote, eta dagoeneko nabaritzen hasi gara.

Urte zaila izango da, duda barik. Dagokionak bideak topatu beharko lituzke krisiari irtenbidea emateko. Bestalde, osasun aldetik oraingo moduan egon gurako nuke.

Bi eskaera ditut urte berriako: alde batetik, eskaera politikoa da Euskal Herriaren askatasuna lortzea; eta beste alde batetik, eskaera ekonomikoa da, krisia bukatzea.

AURKIBIDEA

Urtarrila > 04
Otsaila > 06
Martxo > 08
Apirila > 10
Maiatz > 12
Ekaina > 14
Uztaila > 16
Abuztua > 19
Iraila > 20
Urria > 22
Azaroa > 24
Abendua > 28


ANTZUOLA > 31
ELGETA > 45

Onena eta txarrena > 40
Erretratu Zaharra > 54



Txotxongiloen Mostrarekin zabaldu zuten Zabalotegi aretoa.

GOIENKARIA



Untzeta-Arrizuri moduko parke urbanoak ez daude oso erabilgarri.

GOIENKARIA

> ZABALOTEGI ARETOA ETA GATEXOENDAKO EKITALDI UGARI

Formatu txikiko ekitaldi eta zinema emanaldiendako primerako aretoa. Gainera, ume eta gazteendako ekitaldi asko antolatzen dihardu Udalak, horietako asko Zabalotegi, baina baita kalean ere.

> ERREGE MINTEGIA, UNED-BERGARA PATRONATUAREN

Milioi bat eurotan erosiz zion Estatuari Bergarako UNEDeko Patronatuak Errege Seminarioa. Eraikin emblematico Bergarako herriaren esku.

> MUNDUMIRA

Orain arte egin diren lau edizioetatik arrakastatsuena, Bergarakoa. Nabarmenzekoa, egubakoitzean Alpha Blondy San Martin plazan eskainitako kontzertua. Oso aspaldian ikusi bako jendetzarekin.

> EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA BERGARAN

Udal Pilotalekua leporaino bete zen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ikusteko. 18 urte ziren Bergarara eterri barik. Musika Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldiei hasiera emateko modu ezin hobea.

> IRALA KALEA ZABALIK

Ederto geratu da Irala kale berritua. Oinezkoendako gune bikaina.

> IPINTZAKO FUTBOL ZELAIA

A ze aldea lehengo Ipintzareniko. Orain, belar artifzialarekin, futbolean ondo egiten ez duenak ez du aitzakiarik.

> UNED: ARAZOA KONPONTZEKE

Eta eskolen arteko auziari behin betiko irteerarik eman barik. Bergarako Udal eta UNED-Bergarako zuzendaritzat ados daude UNED Arrizuriagan kokatzeko, baina Diputazioak ez du oraindik erabakia hartu eta Bergarako EAJ aurka dago. Gaia gehiegi luzatu da, tamalez.

> MOZIO "ETIKOEN" HARIRA SORTUTAKO GIROA

Giro zatarra sortu zen ETAK Isaías Carrasco hil ostean, udalez udal EAE-ANVren aurka aurkeztu ziren mozio "etikoen" inguruan. Bergaran egin zen osoko bilkuran, jendearen irainak entzun behar izan zituzten EAJko zinegotziak (denak ez ziren izan), hedabideen zirkuaren aurrean.

> KRISIA: HAINBAT ENPRESA LARRI

Mundu mailako krisiak herriko hainbat enpresa kinka larrian laga ditu, eta, horrelakoan gertatzen den moduan, langileek sufritu dute gehien.

> UDALEKO PARKE HISTORIKOAK, NARRAS

Merezi dute Untzeta-Arrizurik, Errotaldek eta Errekaldek konponketa eta herriarrek erabiltzeko moduan jartzea. Ea berandu baino lehen datorren soluzioa.

> ZAHARRENDAKO EKITALDI GUTXI

Udalak ahalegin berezia egin du ume eta gazteei zuzendutako ekimenak antolatzen; hala ere, zahar bat baino gehiago protestaka eterri zaigu, esanez haiendako "ez dagoela ia ezer".



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundutako aldizkaria

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Leire Kortabarria, Larraitz Zeberio, Oihana Elortza, Irati Agirreazaledegia, Jasone Zabala, Jokin Bereziartza **Maketazioa** Itxaki Iturbe, Oxel Arrieta, Imanol Soriano **Publizitatea** Mirela Larrañaga, Amaia Mundiláinio, Ziotzta Martín, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

OJD erakundeak
ikuskatutako astekaria



EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 05 05 00

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 6.400 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udal



Antzuolako
Udal



Elgetako
Udal

URTARRILA



**"Eguneko, batez beste,
900 erabiltzaile sartu
zen Agorrosinen, iaz"**

Amaia Zabaleta >
Agorrosingo gerentea



**"Bergara gauez legerik
gabeko herria da eta
neurriak behar dira"**

Mari Carmen Barrenetxea >
PSE-EE alderdiko zinegotzia



GOIENKARIA

Ipintzan belar artifiziala jartzeko erabakia

Agorrosin inguruneari dagozkion bi erabaki hartu zituen Udalak: bata, Ipintzan belar artifizialeko futbol zelaia egitea; bestea, igerilekuko kanpoko zelaian umeendako igerilekua egitea. Belar artifizialeko zelaia gaur egun hareazkoa dagoen lekuaren egiteko erabakia hartu zuten eta horretarako, Alvaro Perez de Amezaga arkitektoari 2002an egindako zeukan proiektua eguneratzea eskatu zioten; gaur egungo kostuetara eguneratzea, hain justu. Igerilekuaren kasuan, 2002ko proiektua egokitzeko eskatu zioten Amezagari, Udalaren baliabide ekonomikoak kontuan izanda.

hileko esaldia

**"Martzial
Agirreri buruz
egin den lan serio
eta osatuena
da monografia
berria"**

Mikel Elkoroberezibar >
Ondare Artistikoko zinegotzia

hileko datua

1.329

Horiek dira 2007. urtean
herrian egon ziren odol ema-
teek. Hori dela eta, urtearen
balorazio positiboa egin zuen
Fernando Idigoras elkarteko
arduradunak. 2008rako 20 ate-
ratze iragarri zituen.



Hesia Mugertzako aparkalekuau

Auzotarrek hainbat aldiz eskatutakoari erantzunez,
segurtasun hesia jartzea onartu zuen Udalak.



Berogailua Gabonetako jolasparkean

Hainbat arazo tarteko, hiru egunerako jartzekoak ziren
berogailuak batean bakarrik funtzionatu zuen.

> HEZKUNTA

San Martin ikastetxeak bertan behera laga zituen mobilizazioak

San Martin ikastetxeak 2007an
aurrera eroandako mobilizazioak
bertan behera laga zituen
urtarrilaren 11n, honako arra-
zoientzat, besteak beste: "Dau-
kagun leku arazoaren behin-
behineko irtenbidea martxan
dagoelako; "behin betiko arazoa
gero eta gertuago" ikusten zute-
lako eta "udalbatzak azaroaren
26an hartutako erabakiaren ara-
bera, martxorako proposamen
bat aurkezteko konpromisoa har-
tu zuelako eta han jasoko dela-
ko Martinez de Iralaren erabile-
ra bi ikastetxeen artekoa izatea,
eraikina osorik eskuratu arte".

> HIRIGINTZA

Arrizuriaga parkeko Arregineko etxea bota egin zuten

Urtarrilaren hirugarren aste-
an bota zuten Arrizuri parke-
an zegoen adreilu gorriko etxea
-arregitarren etxea-. Bizpahi-
ru egunetan bota zuten eta bes-
te horrenbeste behar izan zituz-
ten guztia garbitzeko. Etxea
bota eta gero, Arrizuriaga par-
kea ixteko lanei ekin zieten
-Iparragirre aldera ematen
duen itxitura- eta harrizko
horma eraikitzen hasi ziren
parkea erabat itxi arte. Bestal-
de, parkerako sarrera ere egin
zuten horma horretan, parke-
ko antzinako sarreretako baten
harriak erabiliz.



Felsinee www.felsinee.net

IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA
20570 BERGARA
Tel.: 943 53 44 53

FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA - FISIOTERAPIA OBSTETRIKOA
ERREHABILITAZIO UROGINEKOLOGIKOA - TECARTERAPIA - R.P.G
ETXEZ-ETXEKO FISIOTERAPIA - PODOLOGIA - ELIKADURA eta DIETETIKA

López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

Errioxako ardo beltza, urtekoa

SEÑORIO DE OJEDA

CASTILLO DE OJEDA

Nafarroa

Luis Canas CONCEPCION

Urtekoa eta ondua

Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizue!

ATXEGA ARDOAK S.L.

albiste izan zen

> DEBAGOIENA
Hezur-muina ematearen alde

Mankomunitateak bat egin zuen emateak bultzatzeko Iturrigorri elkartaren eskaerekin. 2008.01.16

> EUSKAL HERRIA
Igor Portu eta Mattin Sarasola

Guardia Zibilak Arrasaten atxilotu zituen bi lesakarrak. Tortura salatu zuten. 2008.01.06

> MUNDUA
Langabeziak gora egin zuen

Sekula baino igoera handiagoa izan zuen langabeziak Spainian. 2008.01.05

Pasealeku berria San Antonio eta Martoko artean

San Antoniotik Martokorainoko pasealekua egiteko 249.000 euro inguru bideratuko zituela eman zuen aditzera Aldundiak. Kamiñeruen orubeen eraikitzetan dihardutene etxebizitzenten ingurua urbanizatu egin behar dela eta, ingurune guztia txukuntza erabaki zuen Udalak. Hala, dirulaguntza eskatu zion Aldundiari eta hark baiezkoa eman zion urtarilean. Pasealekuak 200 bat metro izango ditu eta erreka kontra izango da. Hormigoi inprimatuzko zoladura jarriko diote eta atseden tokiak eta berdeguneak izango ditu. Hau da, eserlekuak jarriko dituzte, pergolak eta baita farola berriak ere.

Horrekin batera, aparkalekuak ere egokitutu dituzte errepide ondoren, pasealekuaren paralelo.



OIHANA ELORTZA

> JAIAK
Ruben Monterok eroan zuen Inauterietako kartel lehiaketako saria

Ruben Montero Bergarako gazteazian zen Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako Inauterietako kartel lehiaketa irabazlea.

Epaimahaia osatu zuten Kultura batzordeko kideek eta erabaki zuten saria Monterori ematea haren lana "originala, freskoa eta ezberdina" iruditu zitzaielako. Saridunak 300 euro jaso zituen.

> HIRIGINTZA
Oinezkoek soilik erabili ahal izateko jarri zuen Goenkalea Udalak

Urtarril hasieran oinezkoendako soilik jarri zuen Udalak Goenkalea. Ordura arte handik pasatzeaz gainera, autoa aparkatu ere egiten zuten bizilagun zein herritarrek. Bada, oinezko bihurtzearekin batera, hori ere ezinago da egin. Horrek Goenkaleko eta Artekaleko hainbat bizilagunen kexua eragin zuen.

AUZOAK > BERPIZTU PROGRAMA

Angiozar, Elosu eta Ubera auzoak berpizteko bultzada

Angiozar, Elosu eta Ubera auzoetan Berpiztu izeneko programa abiarazi zuten. Itxasmendi koi zentroak landa eremuen animaziorako eta sustapenerako sortutako programa da eta Deba Garaia Landa Garapen Elkarreka dihardu programa

gauzatzen. Hain justu, bi urtean -agian hirugarrena ere beharko du- gauzatuko da auzoan dinamizazio plana.

Lehenengo urtean auzoen diagnostikoa egingo dute eta bigarrenean ekintza plana zehaztuko dute.

> ZERBITZUAK
Udal aldizkari berritua etxez etxe banatu zuten

Urtarril erdialdera kaleratu zuten. Etxerik etxe eta auzorrik auzo banatu zuten, lehenengoz. Modu horretan, herriko etxe guztieta iristeko esfortzua egin nahi izan zuen Udalak, "herritarrengandik gertuago egoteko". 2007an ez bezala, Arteman Komunikazio Agentziak egin zuen.



Gabon zoriontsuak igaro!

Embalan**3**
Enbalaje Sistemak

Tel.: 943 76 99 72 Faxa: 943 76 41 85
San Lorentzo Industrialdea, Amillaga 28
20570 Bergara (Gipuzkoa)

ibili
1942a ezkero

San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net

Zorionak bergararroi!

Aro berriko sukaldaroko tresneria



OTSAILA



**"Erramu Zapatuko giroa
luzatu nahi dugu, herri
bazkaria antolatuta"**

Aritz Alustiza > Erramu Zapatuko
bazkariko antolatzaleetako bat



**"Umeen hazkuntzan
arazoa azaldu aurretik
aurreratzea da gure lana"**

Juan Luis Martin > Psikologoa eta
Etxadi elkarteko kidea



GOIENKARIA

Bergararen etorkizuna, hausnarketara

Herriaren etorkizunaren gaineko hausnarketa sakona egin zuen Udal Gobernuak eta, etorkizunari begira, herriari ahalik eta etekin handiena ateratzeko proiektu integral eta orokorra behar duela ondorioztatu zuten. Hain justu, hiru zutaberen gainean sostengatuko den proiektua: kultura, turismoa eta arlo akademikoa. Hori gauzatzeko azpiegitura egokiak behar direnez, hainbat eraikini erabilera berria ematea ere pentsatu zuten. Hausnarketa prozesua ekainean hasi zuten eta otsailean eman zioten amaiera, herritarren aurrean egindako aurkezpenarekin. Osoko bilkuren aretoa bete egin zen Agurne Barruso alkatearen eta Mikel Elkoroberezibar Ondare Artistikoko zinegotziaren azalpenak entzuteko.

hileko esaldia

**"On Serafinen
argazki bilduma
herritarren
eskuragarri
egongo da Udal
Artxiboan"**

Migel Angel Elkoroberezibar >
Bilduma eman zion Udalari

hileko datua

31

31.163.198 euroko aurrekontu
osoa onartu zuen udalbatzak
aurtengo –2007an baino %8,8
handiagoa-. Herriari bizitza-
suna eman nahian igo egin
zitzuten kultura ekitaldieta-
rako eta jaietarako partidak.



Mozorro desfilea Inauterietan

Inauteri-zapaturako mozorro desfilea antolatu zuen
Udaleko Kultura Zerbitzuak, lehenengoz.



Plazako baranda erotik atera zuten

Inauteri-martitzen gauean Udal Artxibo ondoko mai-
letako baranda apurtu egin zuten eezagun batzuek.

> GIZARTEA


Mugikortasunaren gaineko diagnostikoa jaso zuen Udalak

Herriko mugikortasunaren gaine-
ko azterketa egin zuen Uda-
laren LEBER Planifica-
cion e Ingenieria SA enpresak.
Mugikortasun iraunkorrera
iristeko asmoarekin, gaur egun-
go egoeraren diagnostikoa da
azterketa hori. Bost gai jaso
zituen lanak: herrian dagoen
mugikortasuna, lurralte erre-
konozimendua, aparkalekuak,
errepiide sarea eta garraio publi-
koak. Agurne Barruso alkateak
diagnostikoa aztertu eta gero
mugikortasun iraunkorrera
iristeko ekintza plana zehazte-
aren beharra azpimarratu zuen.

> AUZOAK

Hilaren 25ean zerbitzua ematen hasi zen taxi-busa Angiozarren

Angiozarko auzotarrek taxi-
bus zerbitzua dauka otsailaren
25a ezkerro. Azkeneko bi
urteetan inolako garraio publi-
korik gabe egon da auzoa eta
hutsune hori betetzeko hitzgar-
mena sinatu zuen Udalak Peger-
to Blanco taxilariarekin.
Zortzi lagunendako lekua
dauka eta egubakoitzetan ema-
ten du zerbitzua, auzotik Bergara
eta alderantziz. 09:00etan
abiatzen da Angiozartik eta
bidean dauden geltokietan jasot-
zen ditu auzotarrak. Prezioa-
ri dagokionez, bidaia bakoitzak
euro bat balio du.



Aratz

Zurradero 6, behea

Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

*Aratzek Gabon jai zoriontsuak
opa dizkie bezero guztiei*

ZubeR®

Zuber

- Metal gogorrezko erramintak ZB®
- Hotzeko estanpazioareko metal
gogorrezko matrizea®

Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adegi.es/zuber

Leizeaga kalea 8
112 posta-kutx
BERGARA



**Urte berri on
bergararroi!**

albiste izan zen

> DEBAGOIENA
Epaitegiari
eraso

Lehergailua jarri zuen
ETAk Bergarako
epaitegian eta kalte
ugari egin zituen.
2008.02.08

> EUSKAL HERRIA
Greba
orokorra

EAE eta EHAK alderdien
jarduera etetearen
aurka greba orokorra
egin zen.
2008.02.14

> MUNDUA
Sarkozy eta
Bruni ezkonduta

Frantziako presidentea
eta Italiako modeloa
ezkondu egin ziren.
2008.02.02



GOIENKARIA

Auditoruma Seminarioan ez egitea erabaki zuten

Halaxe eman zuen aditzera Udal Gobernuak. Ezezko hori oinarritu zuen, besteak beste, Ereitte enpresa espezialduak, Udal Museologoak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Iñaki Azpiazu arkitektoak egindako proiektuari buruz -urreko agintaliak eskatutakoak- egindako txostenetan. Ezezko emateko arrazoiak hiru dira, nagusiki: ekonomikoak, teknikoak eta ondarearen babesari dagozkionak.

Auditoruma egiteko alternatiba moduan Elementaleko bi eraikinetan berriena aurkeztu zuen Udal Gobernuak.

> EUSKARA
Euskararen kale
erabilera gaineko
balorazioa

Udaleko Euskara Zerbitzuak 2007. urteko euskararen kale erabilera gaineko balorazioa kaleratu zuen. Besteak beste, esaten zuen euskara gutxien erabiltzen dela San Antonio, Labegaraieta eta Zubiaurre auzoetan eta azken urteetan igo egin dela, oro har, kaleko erabilera.

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Artabila aldea urbanizatzeko lanak hasi zituzten

Hil hasieran hasi zituzten Artabila ingurunea txukuntzeko lanak. Errepidearen bi alboetan, gainera. Candy Hoover enpresa ondoan, batetik, eta Miguel Altuna berria egingo duten aldera, bestetik. Lehenengoari dagokionez, helburua zen Surrarako bide-

gurutzeraino errepidea konpontea, espaloian egitea eta baita argia jartzea ere. Beste aldearen kasuan, airetik zihoazen argindar kableak kendu eta lur azpitik sartu zituzten, institutu berria eraikitzen hasi behar zutenerako guztia prest izateko.



Irudian, Artabila ingurua.

> EUSKARA
Alaitz Sarasola
ordiziaria, amodiozko
gutunen irabazle

Jardunek antolatutako amodiozko gutunen lehiaketako irabazlea Alaitz Sarasola ordiziaria izan zen. Bigarren saria Karlos Aizpurua oartzuarra jaso zuen; Bergarako gutun onenarena Iraitz Salegik eroan zuen eta gazteendako saria, berriz, Josu Gonzalez bergararrak.

> INGURUMENA
Zuhaitz feria eta
Zuhaitz Eguna egun
banatan, lehenengoz

Aurreko urteetan biak egun berean egin izan diren arren, 2008an bereiztea erabaki zuen Udalak. Hala, batean zuhaitz azoka egin zen –salmentara bideratutako ekimena– eta bestean, Zuhaitz Eguna –sentsibilizazioa garatzeko ekimena–. Basoa berreskuratzea izan da egun horren helburua, aurtent.

> GOBERNAZIOA
Usondo parkeko
komuna konpondu
egin zuten

Usondon hainbat egokitzapen egin zituen Udalak otsail eta martxo bitartean. Batetik, denbora luzez itxita egondako komuna konpondu egin zuten –ezazagun batzuek matxuratzen zuten–. Horrez gain, iturriko pintaketak ere garbitu zituzten eta tratamendu berezia eman harriari.

20 urte BERGARAN zuekin *Eskerrik asko, guztioi*

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologia
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

Aseguruak: **PADI** (Osakidetza)

AEGON

MARTXOA



"Nahi duenari landareen gaineko kontsulta egiteko aukera eman nahi diot"

Jose Antonio Aperribai
> Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea



"Instituzioek ahaztuta duten adin tarterako egin ditugu topaketak"

Enara Minguez
> Kultura zinegotzia

Kolunbarioak jarri zitzuten kanposantuan

60 kolunbario jarri ditu Zaragoza-k Lufuble SL enpresak hilerran, guztiak horma-hilobietako baten hegalean. Aurreko aldea granito beltzekoa dute eta zilar koloreko plaka bat hildakoaren izen-abizenak eta leloa jartzeko. Neurriari dagokionez, 25x30x20 centimetro dute. 60 jarri bazitzen ere, gehiago jartzeko aukera ere badagoela aurreratu zuten. Udaleko arduradunek, beste bi horma-hilobietako hegaletan, hain justu ere. Hori, betiere, eskariaren arabera egingo zutela gehitu zuten.

Kolunbariook otsail bukaeran jarri zitzuten, baina erabiltzeko ordenantzak onartu beharrean zeuden oraindik.



OIHANA ELORTZA

OXIRONDO BANAKETAK

Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

Espesialitateak:

- Urdaiazpiko iberikoak
- Paletak
- Kordobako urdaiazpikoak
- Solomoak

- Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
- Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
- Erriberako esparragoak
- Pikillo piperrak
- Guardiako Luis Alegre ardoak

Gabon zoriontsuak izan ditzazu!

- Margoketa orokorrean -
Enpapelatuak
Iztukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industriala

Ondo pasa Gabonetan!

hileko esaldia

"Egileor"-en heriotzarekin bertsoak kantatzeko modu bat galdu dugu"

Sebastian Lizaso >
Bertsolaria

hileko datua

200

Erramu Zapata ohi bezain arrakastatsua izan zen, Aste Santu bezperan izan arren. 200 bat postu jarri zitzuten eta 100 bat animalia egon ziren ikusgai. Herri bazkarian 150 bat lagun egon ziren.



Gazte Topaketetarako izenematea

Lehenengo aldia izateko, izenematea nahiko handia izan zen: 13 eta 15 urte arteko 32 gazte apuntatu ziren.



Kultura etxeko leihoko bat eta atea apurtuta

Aste Santuko oporretan gertatu zen: eraikinaren alboko atea eta leihoko kristalak apurtu zitzuten.

> EAJ ALDERDIA
EAJk berretsi egin zuen auditoriuma Seminarioan egitea

Prentsurrekoan berretsi zuten, eta, besteak beste, bi arrazoi eman zitzuten: batetik, duen "kokapen ezin hobea"; eta bestetik, "eliza horri beste era bilerak bat ematea oso zail" ikusiten dutela. Iñaki Azpiazu horretarako egindako proiektuari dagokionez, esan zuten "goitik jota" eginda dagoela, eta, horregatik, "Bergarak gaur egun dituen posibilitateetara egokituko den proiektua" behar dela. Horrekin batera, herriko beste hainbat eraikini emango liekeen erabilera ere azaldu zuen.

> ERREPIDEAK
Hiru auzotako autobus geltokietako arriskua ekiditeko ahalegina

Udalak eskaria bidali zuen Foru Aldundira, Ola, Elorregi eta Mekolalde auzoetako autobus geltokietako arriskua ekiditeko neurriak har zitzan. Izan ere, erabiltzaileek errepidea gurutzatu behar izaten dute, bai autobusa hartzeko, bai autobusetik jaitsi eta etxera joateko. Kontuan izan behar da, gainera, hiru auzotako errepideak direla zirkulazio handia dutenak, luze eta zuzenak, eta autobus geltokiak daudela errepide kontran kokatuta. Hala, oso arriskutsu gertatzen da errepideok gurutzatzea.

ION MURGIZU PINTURAK

Zabalategi 9, 2. esk • BERGARA
Esozia 24-2º behe • SORALUZE
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

albiste izan zen

> DEBAGOIENA **Isaias Carrasco ETAk eraila**

Arrasateko PSE-EEko zinegotzi ohia zen. Udalapartzea ekarri zuen, besteak beste. 2008.03.07

> EUSKAL HERRIA **Espainiako hauteskundeak**

Sozialistak izan ziren garaile nagusi Debagoienean, Euskal Herrian eta Spainian. 2008.03.09

> MUNDUA **Olinpiar zuzia martxan**

Tibeten independentziaren aldeko oihu artean hasi eta egin zuen bidea. 2008.03.31

> ZERBITZUAK **Taxi tarifa berriak onartu zituen udalbatzak**

2008ko taxi tarifa berriak onartu zituen udalbatzak osoko bilkuran. Bergarako ez ezik, Debagoien osorako balio zuten tarifok. Tarifa arrunta ri dagokionez, bandera jaitsiera 2,9719 eurokoa onartu zen; 0,9310 euro egindako kilometro bakoitzeta eta itxoite ordua, berriz, 17,7800 euro.



GOIENKARIA

Babestutako 32 etxe Ozaetan egiteko akordioa

Udalak eta Inmobiliaria Bittor SLko ordezkari Bittor Alberdik hitzarmena sinatu zuten Ozaetan, 3.2 deritzeren gunean, babestutako 32 etxebizitza egiteko. Hitzartutakoaren arabera, enpresa eraikitzalea konprometitu zen kostu osoaren %7ko abala jartzera eta %10eko hirigintza aprobetxamendua Udalari ordaintzera -67.200 euro-. Bestalde, etxebizitzon adjudikazio prozesua Udalaren esku geratu zen, baita zozketa ere. 32 etxeetatik 27 ziren zozkatzeko. Gainerako bostak Zubiaurren eraitsitako etxe bateko bizilagunak kokatzeko ziren.

> ZERBITZUAK **Bizikletak aparkatzeko lau gune jarri zituzten**

Udalak bizikletendako apar-kaleku berriak egokitutu zituen herriko lau gunetan: San Martin plazan, Ibargaraiko autobus geltokian, anbulatorioan eta Seminarioko jolaslekuuan. Herritarrek egindako eskaerei erantzunez jarri zituzten bizikletendako apar-kalekuok.



Irudian, San Martin plazan jarritako aparkaleku.

> AZPIEGITURAK **AHTz informatzeko hainbat ekitaldi egon ziren**

Bergarako AHTren kontrako taldeak antolatu zituen eta helburua izan zen "herritarra azpiegituraz informazioa eta bultzatzaileek daramilten ezkutukeria salatzea", taldeko kideen esanetan. Besteak beste, informazio mahai jarri zuten plazan eta hitzaldiak ere egon ziren.

> HEZKUNTZA **Hezkuntza Sistema Nacionala aldarri egiteko ekitaldiak**

Euskal Herriak Bere Eskola herri mugimendua antolatu zituen ekitaldiok, Euskal Herri mailan egiten ari zen kanpainaaren barruan. Helburuak ziren, besteak beste: "Arlo horretan ematen diren urratsak herri aldarrikapen biltaketa eta inposaketak salatzea", taldekieen esanetan.

> EUSKARA **65 elkartek inguru euskararen erabilera bultzatzeko prest**

Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatzekoan apirilaren 12an Euskara batzordea arlo soziokulturalen jarduten duten herriko taldekin. Martxo bukaeran 65ek emana zuten izena eta sinadura ekitaldirako gehiago aurreikusita zituzten Euskara Zerbitzuan.



Arrizuri 5 BERGARA 943 76 41 63

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Azkoin****
Industriak

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu berargarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa 109 posta kutxa Bergara Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20
azkoin@azkoin.com www.azkoin.com

APIRILA



"Bergara kulturalki hilda dagoela uste dut eta mindu egiten nau"

Sergio Romero
> Aktorea



"Ekonomiak behea joko du datorren urtean eta kostako zaio berpiztea"

Miguel Lazpiur
> Confebask-eko presidentea



GOIENKARIA

Euskara hitzarmenaren aldeko sinadura

Herriko 82 elkartek euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten apirilaren 12an, Udaleko Euskara Zerbitzuarekin. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izan zen ekitaldia eta *Bergaran euskaraz eingou* lelopean datozen urteetarako lan ildoak zehaztu zituzten Udalak eta herriko erakundeek. Sinadura eman zutenak arlo soziokulturalean dihardutenean taldeak dira guztia, eta, batik bat, ume eta gazteekin lan egiten dutenak. Horrelako lehen hitzarmena 1991. urtean sinatu zuten eta apirilekoan haren jarraipena izan da.

hileko esaldia

**"Pazientzia
izatea eta
taldea batuta
egotea da
garrantzitsuena
Realean"**

Agustin Arantzabal > Realeko eta Zaragozako futbolari ohia

hileko datua

100

Raizabal gozategia zabaldu zutela 100 urte bete ziren apirilean. Artekalen zabaldu zuten eta 1944an, Bidekurutzetan. Gaur egun laugarren beaunaldia arduratzen da bi gozotegiez.



Mendekotasunen tratamendua arautu

Drogak eta beste mendekotasun psikologiko batzuk tratatzeko laguntzen araudia berritu zuten.



Antzuolak irabazi zuen derbia

Bergararen eta Antzuolaren arteko derbian, Agorosinen, antzuolarrak izan ziren garaile (0-1).

> POLITIKA

PSE-EEk eta EAJk bakarrik babestu zuten 'mozio etikoa'

Apirlaren 29ko osoko bilkuran herritar eta hedabide asko izan ziren. PSE-EEk eta EAJk batera aurkeztutako *mozio etikoa* deitua ziona zen gaien zerrendako puntuatako bat. EAJko bi zinegotzi ez ziren osoko bilkura joan eta ondorioz, bost boto bakarrik (bi sozialistenak eta hiru jeltzaileenak) jaso zituen mozio horrek. Gobernuko alderdiek aurka bozkatu zuten eta EA abstenitu egin zen. Haren alternatiba moduan, Aralarrek eta EAk mozio bana aurkeztu zuten, baina bi horiek ere ez ziren onartu.

> POLITIKA

Isaias Carrascoren heriotza gaitzesteko mozioa onartu zuten

Isaias Carrascoren heriotzaren lotutako hiru mozio aurkeztu zituzten apirileko osoko bilkuran. PSE-EE alderdiak aurkeztutakoari, mozio alternatibo bana aurkeztu zuten EAEk eta Aralarrek.

Ohi bezala, alternatiboak bozkatu zituzten lehenengo. EAErenak, Aralarren abstentzia eta EAJ, EA eta PSE-EEN aurkako botoak jaso zituen. Aralarrenak, EAJ, EA, eta Aralarren aldekoak, PSE-EEren abstentzia eta EAEren aurkako botoak. Aurrera egin zuen. PSE-EErena ez zuten bozkatu.




umelaga

JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21

66 urte zuen zerbitzura!

*Gabon jai zoriontsuak izan
ditzazuela denok!*



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga Eiguren, B. M.

Juan XXIII plaza
Tel. eta Faxa: 943 76 11 88
20.570 BERGARA

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

albiste izan zen

> DEBAGOIENA **Ino Galparsoro espetxeratua**

Ino Galparsoro
Arrasateko alkatea
espetxeratu zuten
Garzonera aginduz.
2008.04.30

> EUSKAL HERRIA **Arrantzaleak piraten esku**

Playa de Bakio 26
marinel sei egunez
bahitu zituzten itsas
lapurrek, Somalian.
2008.04.26

> MUNDUA **Tibet, Txinak setiatuta**

Txinak Tibeteko mugak
ixi zituen, protesten
beldur.
2008.04.14

Liburutegia plazan, Liburu Eguna ospatzeko

Liburuaren Eguna ospatzeko,
plazara aterazituzten liburuak
apirilaren 23an. Urtero bezala,
liburutegi zerbitzua plazan jarri
zuten. "Helburua da liburuak
herritarrei hurbiltzea. Liburutegi
ze informazio eskaintzen
dugun ikusteko aukera ere bada",
esan zuen Mila Agirrezabalek.
Goiz partean, eguraldiak lagundu
ez zuen arren, udaletxe
arkupeetan izan ziren liburutegiko
langileak. Han egin zituzten
mailegu zerbitzuak. Eskoletako
umeak inguratu ziren, batez ere.
Arratsalderako eguzkia irten zen
eta arazo barik egin zuen Iñaki
Martiarena *Mattin* ilustratzaileak
erakustaldia herriko umeen
aurrean.



GOIENKARIA

> ZERBITZUAK **Labegaraietako kirodegiko taberna zabaldu zuten**

Labegaraietako kirodegiko
taberna zerbitzua martxan jarri
zuten berriro. Lehengo ustiazai-
leek martxoan utzi zuten hango
ardura eta apirilaren erditik
aurrera herriko bi mutilek zabal-
du zuten berriro. Tabernaz gain,
kirol instalazioen mantentze-
lanaz eta garbiketaz arduratzeko
konpromisoa ere hartu zuten.

> LEHIAKETA **Mikel Calvok irabazi zuen Mendekosteetako kartel lehiaketa**

Mikel Calvo Abartzua bergara-
rrak irabazi zuen Mendekoste
jaietako kartel lehiaketa. Guztira
40 lan aurkeztu zituzten: 18
urtetik beherakoek egindakoak
-34- eta 18tik gorakoek eginda-
koak -6. Irabazleak, Mikel Cal-
vok, 600 euroko saria irabazi
zuen. Aurkeztutako lanekin era-
kusketa egin zuten.

ZERBITZUAK > HILERRIA

Herriko kanposantuan 60 kolunbario jarri zituzten

Hilerrian kolunbarioak jarri
zituzten, errautsak gordetze-
ko. Herritarren eskariari eran-
tzunez jarri zituen Udalak, hor-
ma-hilobietako baten hegalean.
Guztira 60 kolunbario jarri
zituen Zaragozako Lufuble SL
enpresak. Eskaria handia bada
eta kolunbario gehiagoren
beharra dagoela ikusiz gero,
horma-hilobietako beste hega-
lean gehiago jartzeko aukera
zegoela esan zuen Udalak.
Kolunbarioen prezioak eta bal-
dintzak arautzeko ordenantza
ere onartu zuen udalbatzak.

> JENDARTEA **San Joxepeko zuzendaritz berria eratu zuten**

San Joxepe erretiratuen
elkarteko zuzendaritz berria
eratu zuten apirilean. Hamar
kideko zuzendaritz batzordea
osatu zuten. Carlos Arron-
do izendatu zuten presidente
eta Rosa M. Kortabarria pre-
sidenteorde. San Joxepe
elkartea 1.650 bazkide zituen
momentu hartan.


> HEZKUNTZA **Hezkuntza Sistema Nazionala eskatzeko ekitaldia egin zuten**

Hezkuntza Sistema Nazionala
aldarrikatzeko kanpaina
Bergarara iritsi zen apirilean.
Hitzaldiak, jolasak eta
kontzertuak antolatu zituzten
eta Euskal Curriculuma izan
zen ekitaldi guztietako arda-
tza. "Hezkuntzaren gaineko
erabakiak hartzeko eskubi-
dea" aldarrikatu zuten.

> EUSKARA **Euskara elkarrean erakusketa ibiltaria etorri zen Bergarara**

Topaguneak, Euskara Elkar-
teen Federazioak, 10 urte bete
ditu aurten eta urteurrena
ospatzeko egindako ekital-
dietako bat euskara elkar-
en erakusketa ibiltaria izan
da. Apirilean iritsi zen Bergar-
ako kultura etxera. Euskara
elkarrean iragana eta
oraina jasotzen zuen.

logotipoak txartelak ezkontza gonbidapen personalizatuak tipografia personalizatuak egutegiak kartelak



Vorionak
eta
urte berri on

www.kohdiseinua.com



diplikoak karpetak katalogoak publizitatea pegatinak ...

MAIATZA



"Neolito garaiko pintura interesgarriak aurkitu ditugu aurten Saharan"

Xabier Errasti
> Arkeologoa




"Herriko gazte gehiago animatu behar dira odola ematera"

Fernando Idigoras
> Odol emailea

Jaien balantze positiboa egin zuen Udalak

Errekortadoreak eta Koadrilen Eguna izan dira aurtengo Mende-koste jaietako ekitaldi jendetsuenak. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu -lehen egunetan, batez ere-, baina, Kultura Saileko arduradunen esanetan, eguraldiak ez zituen jaiak zapuztu. Ekitaldi bakarra gelditu zen bertan behera euriagatik: Brakala taldeak egin behar zuen kale antzerkia. Partehartzeareni buruz, Kulturako udal ordezkarien ustetan, jende askok harti zuen parte eta gustura zeuden. Herri bazkarian, esaterako, 500 txartel saldu zituzten.

Edalontzi berrerabilgarriak erabili zituzten txosnagunean, eta horiei esker zikin gutxi batu dute garbitzaileek aurtengo jaietan.



GOIENKARIA

hileko esaldia

"Iragarle batek esan zidan Ezkioko Ama Birjina ikustera joateko"

Bixenta Larrañaga >
Etxekoandrea

hileko datua

68

Duela 68 urte sortu zuten Zerrajerako Ekonomatoa, 1940an. Oraingo Arcelor Mittal enpresako langileenda-koi jakia eta arropa saltzen dituzte bertan. Debagoieneko ekonomatoa bakarra da.



Kolunbarioak, erabilgarri

Apirilean hilerran jarritako kolunbarioak erabilgarri zeuden maiatzean, 60 guztira.



Mendizale bat hil zen Elosun

Debako mendizale bat hil zen Elosun, Irurutzeta inguruan, bihotzekoak jota.

> ZERBITZUAK

Babes-etxea prestatu zuten sexu indarkeria jasan dutenendako

Babes-etxea prestatu zuen Bergarako Udalak sexu indarkeria jasan dutenendako. Tratu txarreren kasuak gero eta gehiago direlako erabaki zuen Udalak babes-etxea egitea. Hiru uniterendako tokia du eta behin behinekoa izango da: gehienez sei hilabetez egon ahal izango dira etxe horretan sexu indarkeriaren biktima.

Urteko lehen lau hilabeteetan zortzi pertsonari eman zieten laguntza psikologikoa. Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin: sei biktimak ziren eta bi, erasotzaileak.

> EUSKARA

'Apatxi' aleen bilduma banatu zuten herriko ikastetxeetan

Apatxi izeneko aldizkariaren aleen bilduma argitaratu zuen maiatzean Udaleko Euskara Zerbitzuak. 2007 urtean kaleratutako zenbakien bilduma zen eta herriko eskoletan banatu zuten, haurtzaindegietan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

Apatxi gehigarria Gehixago eta hobeto izeneko programaren barruan sortutako proiektua da eta GOIENKARIA aldizkarien txertatuta banatzen da hilean behin. Bilduma osoaren ale batzuk Udaleko Euskara Zerbitzuetan egoten dira harazteko.

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA
KONDE
PANADEROKUA

Zorionak eta urte berri on!

Burdinbate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA



Iratxo mertzeria

Telesforo Aranzadi 3B
Tel.: 943 76 00 79
BERGARA

Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!



albiste izan zen

> DEBAGOIENA Etxeko ospitalizazioa

Ospitalizazioa etxeen egiteko aukera jarri zuen Debagoieneko ospitaleak.
2008.05.30

> EUSKAL HERRIA 30 urte AAM sortu zela

Amnistiaaren Aldeko Mugimendua sortu zela 30 urte pasa ziren maiatzean.
2008.05.16

> MUNDUA Nepal, monarkia gabe

Monarkiari agur esan zion Nepalek, Errepublikaren alde eginez.
2008.05.28



GOIENKARIA

Udal Artxiboa sarean sartu zuten

Udal Artxiboen webgunea sarean jarri zuten maiatzean. Modu horretara, artxiboen dauden dokumentuen gaineko kontsulta egin dezake edozeinek ordutik. Guztira, 60.000 erregistrotik gora sartu zituzten webgunean. Maiatzean aurkeztu zuten, baina, proiektuaren lehenengo pausua izan zen hori. Bigarren pausua datorren urterako utzi zuten: Udal Artxiboen dauden 23.000 argazki eta zenbait bideo ere webgunean sartzea. Euskal Herrian webgunea duen lehen Udal Artxiboa izan zen Bergarakoa.

> NEKAZARITZA Bergara gune ez transgeniko izatea onartu zuen udalbatzak

Bergara transgenikorik gabeko gune izatea onartu zuen udalbatzak, aho batez. Bergarako lurretan genetikoki eraldatutako organismorik ez duela nahi adierazi zuen Udalak agiri horrekin. Hori praktikan jartzeko mekanismorik ez du Udalak, eta ekin-tza sinbolikoa dela adierazi zuen orduan alkateak.

> ERROMERIAK Maiatzeko erromeriak egin dituzte aurten ere Munibe plazan

Aurten ere erromeriak antolatu dituzte maiatzeko egubakoitzetako. Munibe plazan.

Hileko azken egubakoitzean Bergarako trikitilarien kalejira eta erromeria izan zuten. Eta ondoren, afaria. Kultura Saileko arduradunak gustura agertu ziren erromerietan egondako parte-hartzearekin.

ONDAREA > TRIKUHARRIAK ETA TUMULUAK

Bi eremu megalitikoak garbitu zituzten

Herriko bi eremu megalitikoak garbitu egin zituzten: Udal-Intxortakoa eta Elosuko. Lehenengo eremuan bost trikuharri eta bi tumulu daude Bergarako lurretan eta bigarren eremuan, bost tumulu. Guztira 12 megalito daude, eta

horiek garbitu zituen Udaleko mendiko brigadak, Luis del Barrio arkeologoaren zuzendaritzapean. Megalito batzuek 5.000 urte dituzte, eta garbiketak kontu handiz egin zituzten, trikuharriak eta tumuluak apurtu barik.

> MUSIKA XX. udaberriko kontzertua eman zuen Musika Eskolak

Bergarako Musika Eskolako taldeek XX. udaberri kontzertua eskaini zuten Udal Pilotalekuaren. Eskolako talde guztiek hartu zuten parte: Suzuki taldeak, trikitilariek, txistu taldeak, akordeoi orkestrak, abesbatzak, Gazte Bandak, orkestrak eta hizkuntza musikaleko ikasleek.

Lentilek eboluzionatu egin dute jarrita daramatzazula ere ez duzu ia igarriko


- Ultrasuabeak
- Oxigenazio handia
- Ez dira sikitzen
- UV babesia

Eskatu txanda Instituto Opticon eta egizu proba doan

Lentilen UV filtroak ez ditu ordezkatzen UV filtroden eguzkitako betaurrekoak, ez baitu begia erabat tapatzan. 10 erabiltzaitik 9k diote ez dutela igartzen jarrita daramatzatela.

ACUVUE, OASIS eta HICRACLEAR Johnson&Johnson-ek erregistratutako markak dira.

Orain
astigmatismorako
ere bai



ACUVUE®
LENTES DE CONTACTO CÓMODAS
Johnson & Johnson



instituto optico

Bidekurutzeta, 10
BERGARA
Tel.: 943 76 97 03

EKAINA



"Boluntarioen esku dago Gurutze Gorriaren etorkizuna"

Mikel Garagorri > Debagoieneko Gurutze Gorriaren sortzailea



"Ederra izan da liga irabaztea, Lauko Finala eta kopa ahazteko"

Ander Gartzia > Tau saskibaloi taldeko jokalaria



GOIENKARIA

Arrakastatsua izan zen Mundumira

Mundumira jaialdiaren laugarren edizioa Bergaran ospatu zuten ekaineko lehen asteburuan eta inoiz baino arrakasta handiagoa lortu zuen. Alpha Blondyren kontzertua jendetza batu zuen eta igaro ezin bihurtu zuen San Martin plaza. Kale animazioak, umeendako zirkuko akrobaziak, azokak, irteerak, musika ikuskizunak edo bisitaldiak, hitzordu guztietan bildu zen jendea. Antolatzaileen iritziz, "dagoeneko Debagoienean finkatu den jaialdia da Mundumira". Bergarako arrakasta ikusita, datorren urteko jaialdia handitzeko asmoa agertu zuten antolatzaileek.

> EGURALDIA
Euri jasa bortitzak arazoak sortu zituen hainbat kaletan

Ekainaren 16an, astelehenetik, euri jasa bortitzak bota zuen Bergaran eta arazo asko sortu zituen erreka ondoetan, etxabe eta garajeetan, baserritan, kamoinetan e.a. Arazo handienak sortu ziren Uberan, Angiozarren, Elosun, Aranen eta San Martzialerako bidean. Ur handiak ez ezik, luiziak ere izan ziren Bergaratik Elosurako bidean, adibidez. Oro har, kalteak ez ziren handiak izan.

Egun horretan 58,6 litro euri egin zuen metro koadroko, gehiena arratsalde hasieran.

> ONDAREA
'Bergarako ahotsak' proiektua interneten jarri zuten

Bergarako Udalak, Badihardugu elkartearren laguntzarekin, interneten jarri ditu azken 25 urteetan herriko euskara jasotzeo egindako grabazioak. 140 herritar inguru egin zitzazkien grabazioak. Grabazio zaharrena 1983 urtekoa da eta hiztunik zaharrenak 1888an jaiotakoak dira.

Bergarako Ahotsak proiektua *Euskal Herriko Ahotsak* egitasmoaren parte da. Helburua da Euskal Herriko ahozko ondarea herri hizkerak bildu eta hedatzea.

Unai Arantzabal >
Txirrindularia

↑ Bigarren, Segurako dantza txapelketan
Ibane Baseta eta Mikel Igartua bigarren izan ziren Segurako Euskal Herriko dantza solteko txapelketan.
↓ Bi lan bakarrik argazki rallyan
Mendekoste jaietako argazki rallyan bi lagun bakarrik aurkeztu ziren; biek jaso zuten saria.

25

Bergarako Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu aurten eta ekainean hasi ziren urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiekin. Mende laurdean, 6.000 ikasle inguru pasa dira euskaltegitik.

Zorionak eta urte berri on guztioi!



- ▶ **Grua zerbitzua**
- ▶ **Zerbitzu publikoa**
- ▶ **Era guztietako kargak**

 **ANDUZU**
ANDUZU S.L.
Tel.: 607 34 90 43


**GRUPO
GOITU**

ETXEEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA

PABILIOIAK

ZAHARBERRITZEAK

URBANIZAZIOAK

**BERGARA
943 76 11 23**


aoitu
eraikuntzak . S.A.
Maztarreka, 14-16 BERGARA
Tel. 943 761123 Fax 943 763041
E-mail: goitu@goitusa.com



Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



Diru babestua.

Egunetik egunera, gero eta jende gehiagok erabakitzentzu du **Kutxaren Inbertsio-Irtenbideen** aterkipean babestea. Zure egoera pertsonalari gehien egokitzen zaion irtenbidea bilatzen lagunduko dizugu, zure dirua erabat babestuz.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

UZTAILA



"Ludotekaren helburua da neska-mutikoek ondo pasatzea aisialdian"

Ainhoa Arbelaitz
> Xipizaro ludotekako arduraduna



"Aldaketa politikoari beldurra ziotelako itxi zuten 'Egin"

Martin Garitano
> Kazetaria



GOIENKARIA

Herriko 27 talde 'Txaparrada Musikalean'

Txapa Irratiaren gonbidapena onartuz, herriko 27 musika talde eta bakarlarik kontzertua eman zuten gaztetxeen hilaren 4an. Txapa Irratiak kontzertu guztiak grabatu zituen, CD bat kaleratzeko. Musika maratoi harten parte hartu zuten: Pedre, Aitzol Mujika, Larra, Ady Holden, Cool Panic, Yotox, Morley, Sententzia, Rotten Teenagers, Turboshit, Olimpic Darts, The Street 77, Garate, Azkaiter Pelox, Mikel eta Fer, Mahaster River, Zigor eta Hebert, Folsom Four, Fly Shit, Extorsion, No hay Solucion, Lord Witch, Nobox, Against the Rapist, Hardflip, Aldaketa eta Emon.

hileko esaldia

"Zabalotegiko errepeidea ez dugu sartu Plan Orokorean, aukerak ikusi behar ditugu"

Agurne Barruso > Alkatea

hileko datua

4

Aurten ere Espaloiko Ostiral Musikalak antolatu zituen Udalak Zuhaitz tabernarekin batera. Uztaileko lau egubakoitzetan musika beltza entzuteko aukera egon zen lau talderen eskutik.

Euskal Unibertsitatea Bergaran

Euskal Unibertsitateren azpiegitura bat Bergaran egoteko aukera onartu zuen osoko bilkurak.

Kanpoko igerilekuriak ez

Berdegunea egon arren, kanpoko igerilekua igarri zuen faltan batek baino gehiagok.

> KIROLA

Hirunako Saskibaloi Txapelketa egin zuten herriko plazan

Saskibaloiak kalera ateratzeko asmoz, Hirunako Txapelketa antolatu zuen herriko Saskibaloi Taldeak. Adin ezberdinak 200 jokalarik hartzuten parte. Elite, senior eta junior mailetan 40 taldek jardun zuten. Sei kanasta jarri zituzten herriko plazan, partiduak jokatzeko. Finalak, eguraldiagatik, Labegaraietan jokatu behar izan zituzten. Hirukoen txapelketan 54 lagunek hartzuten parte eta Iker Murillok irabazi zuen: minitu baten bederatzi hiruko sartu zituen.

> UDA

Liburutegiak zerbitzua eskaini zuen Agorrosinen ere

Liburutegia jarri zuten uztailean eta abuztuan Agorrositzen. Liburu berrienak ez ezik, CDak eta DVDak ere jarri zituzten jendearen eskura. Urte guztian zehar Errotalden duen zerbitzu bera eskaini zuen liburutegiak igerileku o berdegunean: liburuak hartzeko baziak izan behar zen baina bazegoen aukera momentuan baziak egiteko ere. Erreserbak egiteko aukera ere eskaini zuten, liburu gutxi eramaten zituzten-eta. Eguzkia hartztu eta irakurri, biak egin zuten batzuk.



**Erramu batekin,
ilusioa eta poza lortuko dituzu.
Opari itzazu! Aukera zabala daukagu.**

Zorionak eta urte berri on!

- Loradenda**
-
- Lorak**
-
- Landareak**
-
- Opariak**


GOROSTI
UME 175001

Matxiategi 1 BERGARA

Tel.: 943 76 07 47

Faxa 943 03 40 80

gorostiloradenda@euskalnet.net

ALTUBE tailerrak SM


ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA

Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99



URTE BERRI ON!

San Lorentzo poligonoa - Urarte 22
94 posta-kutxa - BERGARA



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

**Gabon jai
zoriontsuak!**

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37


Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



**SVMS
SERVIMASA**
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Finantzaketa kuota personalizatuak

RENOVE PLANA

*Etxetresna elektrikoak aldatzeko
aukera aparta!*



metagra

*Gabon zoriontsuak eta urte
berri on herritar guztioi!*

Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34
e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com

ABUZTUA



"Pozik nago Europako Txapelketan egindako probarekin"

Aitor Eraña
> Atleta beteranoa



"Irailaren 1ean lanera bueltatzea gauza on askoren seinale da"

Elena Laka
> Abokatua



GOIENKARIA

Txomin Amasorrainen erakusketa

Txomin Amasorrainen argazkiak, idatziak, filmak eta bestelako materiala jaso zuen erakusketa zabaldzuten abuztu bukaeran Aroztegi aretoan. Familiak prestatu zuen erakusketa, euskaltzalearen jaiotzaren 100. urteurrenean. Argazkiak, *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratutako *Izkimirikia*, filmak, Ernai antzerki taldearen kartelak, berak erabiltzen zuen idazmamina eta euskal gramatika eta matematikak uztartzen zituen *makina bitxia* egon ziren ikusgai. Inaugurazio ekitaldira jende asko joan zen, goiko argazkian ikusten den moduan.

hileko esaldia

"Material berria atera dugu aurten, baina turismo plan bat egiteko asmoa dugu"

Mikel Elkoroberezibar >
Turismo zinegotzia

hileko datua

33

Euskal Akuarelisten Elkarteak antolatuta, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Burgosko 33 akuarelistaren lanak egon ziren ikusgai Aroztegin abuztuan. Elkartearen 175. erakusketa zen.



Domingo Iralako lanak, oso aurreratuta

Domingo Irala kaleko lanek ez zuten atsedenik hartu abuztuan, eta irail hasierarako ia prest zegoen kalea.



Labegaraietako kiroldegia, itxita

Labegaraietako kiroldegia eta haren barruko instalazioak ere itxita egon dira abuztu osoan.

> TURISMOA

Kataluniarrak izan ziren abuztuan eterri ziren turista gehienak

Kataluniarrak ziren abuztuan Bergarara eterri ziren turista gehienak. Aurten, gainera, Gazzetea-Leoiko jende asko eterri zela ere nabarmendu zuten Turismo Bulegoko langileek. Atzerritarrei dagokionez, bisitari gehienak frantsesak izan ziren: Belgika eta Holandakoak ere iritsi ziren Bergarara. Hainbat bisita frantsesetan eta ingelesetan eman zituzten.

Aurten, material berria aterra zuen Turismo Bulegoak: eskuorri berriak, txartel posta sorta eta Turismo Bulegoaren poltsak.

> LAPURRETAK

Autoetako erregai-tangak zulatu zituzten, erreagaia lapurtzeko

Autoetako erregai-tangak zulatu eta erreagaia lapurtu zuten behin baino gehiagotan Bergaran abuztuan. Jaso tailerrean, esaterako, hiru eraman zituzten erregai-tangak zulatzen. Tailerreko Hipolito Jasok esan zuenez, ez ziren adibide bakanak izan. "Dagoeneko sei auto konpondu ditut; bost Bergaran zulatu zituzten, eta beste Osiñetxun. Lapurrek badakite zertan dabiltsan. Normalean gasolinazko autoak zulatzen dituzte. Puntadun tresna batekin egiten dituzte zuloak", zehaztu zuen Jasok.

Garaje Murillo

Zorionak bergarar guztioi!



DEBA
GARAIA
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

INMUEBLE AGENTZIA

BERGARA • ARRASATE • ELGOIBAR • DONOSTIA



API: Jesus Maria Markaide Sanpedro

T. Aranzadi 2 behe
20570 BERGARA
TEL.: 943 76 21 80 - 943 76 06 37
FAXA: 943 76 06 37

IRAILA



"Gimnasta batek behar ditu borondatea eta konstantzia"

Sonia Corredera > Gimnasia erritmikoko entrenatzailea



"Itsasoan bizi izandako esperientzia positiboa izan da gure bizitzarako"

Aimar Agirre > 'Itsasotik datozen hitzak' dokumentalean egon zen



GOIENKARIA

Ohorezko kofradiakideak izendatu zituzten

Tostoien eta Erreilenoen Kofradiak beste sei ohorezko kofradiakide izendatu zituen San Martin jaietan. Hauexek izan ziren ohorezko kofradiakide horiek: Reyes Azkoitia, pilotu munduan egindako lanagatik; Ramon Etxaniz txistularia; Mari Carmen Gallastegi ekonomialaria; eta Felix Beitia, Luis Mari Gutierrez eta Felix Iñiguez de Heredia, herrian antolatzen diren ekitaldietan urtetan lagundu dutelako. Hain justu ere, Euskal Herriko eta kanpoko 20 kofradia elkartu ziren Bergaran irailaren 14an.

hileko esaldia

"Gakoa da sozietateen gaineko zergan eta errentakoan berezko araudia izatea"

Mari Carmen Gallastegi >
Ekonomialaria

hileko datua

122

San Martin eguneko ferian 122 postu jarri zituzten: 22 plazan eta 100 postu seminarioan. Martutene, Igorre eta Araiara joan ziren barazki, fruitu eta gazta lehiaketetako lehenengo sariak.

Gorren nazioarteko eguna ospatu zuten

Pertsona gorren alde Gipuzkoan lan egiten duten elkarrekin antolatu zuten sentsibilizazio jaialdia.

Iralako zerbitzuen kexa

Domingo Iralako hainbat zerbitzuk kexa azaldu zuten Udalean, obrek sortutako eragozpenengatik.

> FUTBOLA

Realak 11.000 euroko zorra zuen Bergara Kirol Elkartearekin

Gipuzkoako futbol talde gehienek Realarekin eta Diputazioarekin egiten dute hitzarmena, jokalariak Realeko harrobiko kide izan daitezten. Kategoria txikietan dituzten talde kopuruaren araberako laguntza jasotzen dute futbol taldeek. Erdia Aldundiak ematen die, eta beste erdia, Realak. Irailean, Realak 11.000 euro zor zizkion Bergarako elkarteari.

Bestalde, Bergarako Juan Jesus Alberdi Gipuzkoako Federazioko hauteskundeetarako zerrendan agertu zen, Jaime Barriusoren taldean.

> ELIZA

San Pedroko parroko berria irailean hasi zen lanean

Iñigo Mitxelena San Pedroko parroko berria irailean etorri zen Bergarara, urtetan egon ziren Eizagirre anaiak Getariara eta Zarautzera joan zirelako. Villabonakoa da sortzez Mitxelena eta Bergara bere bigarren destinoa izan da. Ilusio handiarekin etorri zen Mitxelena Bergarara.

Juan Kruz Mendizabalekin batera, San Pedro, Santa Marina eta Antzuolako parrokiendu ardurra du ordutik Mitxelenak. Meza ordutegia ere aldatu egin zuten Bergarako apaiz biak, toki guztietara heltzeko.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Offset impresioa

Enkuadernazioa

Koloretako fotokopiak

Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41 • E-mail: imprespal@euskalnet.net



**GABON
JAI ZORIONTSUAK!**

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

JOXAN ARRAINDEGIA

Orain Super Amaran ere bai!

albiste izan zen

> DEBAGOIENA Ezpeleta, txapeldun

Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra, lehena Spainiako mendiko lasterketa txapelketan. 2008.09.14

> EUSKAL HERRIA EAE alderdia, legez kanpo

Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi zuen EAE alderdia, Batasunarekin lotu zuelako. 2008.09.16

> MUNDUA Umeak gaixo esneagatik

Txinan 13.000 ume gai-xotuziren egoera txarreko esnea hartuta. 2008.09.21

Domingo Irala kale eraberritua zabaldu zuten

Irailearen hasieran zabaldu zuten Domingo Irala kalea, eraberrituta. Bost modelo ezberdinak farolak jarri zituzten eta bost harri motatako baldosak lurrean. Batzuk, adibidez, Txinatik ekarritako granitoarekin egindakoak ziren. Zuhaitzak, esaterako, azaroan landatzeko utzi zituzten, orduan delako lan hori egiteak momenturik aproposena.

Domingo Irala kalea berriztzen 2007ko urtarrilean hasi ziren. Hainbat etenaldi izan zituzten lanek, baina irailean bukatu zituzten kale hori berritzeko proiektuaren lehen faseko lanak. Orain, Irizar lorategi pareko zatia eta plazatik Domingo Iralara joateko sarbidea egitea falta da.



GOIENKARIA

> DANTZA Baseta eta Igartua lehenak Moises Azpiazu dantza txapelketan

Txapeldunen txapelketa izan ohi da Moises Azpiazu dantza solte txapelketa. Euskal Herriko txapeldunen arteko norgehiagoka izaten da, eta aurten ere Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko zein Euskal Herriko onenak lehiatudira. Onena Bergarako Ibane Basetak eta Mikel Igartuak osatutako bikotea izan zen.

Udalak Gazteria Plana aurkeztu zien herriko gaztetxoei irailaren bukaeran. Nagore Narbaitza Hezkuntza teknikariak eta Agurne Barruso alkateak gaztetxoan planak, gogoak, ezagutu zituzten gaztetxoen euren eskutik. Ondoren, Udalak eurendako dituen asmoak azaldu zizkien. Osoko bilkuren aretoan egin zuten bilera herriko hainbat gaztetxok eta Udaleko ordezkariekin. Gazteei zuzendutako plana helduei ere azaltzeko beste bilera bat egin zuten udal ordezkariekin nagusiekin.

GAZTEAK > GAZTERIA PLANA

Gazteria Plana aurkeztu zien Udalak gaztetxoei

> FUTBOLA TLS eta Bergara taldeek inauguratu zuten Ipintza

Herriko bi taldeen arteko derbia jokatu zuten Ipintza futbol zelaiaren inaugurazioan, irailaren 28an. Agurne Barroso alkateak egin zuen ohorezko sakea, Luis Mari Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioaren ordezkariak lagunduta. Jende asko joan zen partidura. Bana egin zuten.

> ESKUBALOIA Bergarak irabazi zuen Oñati San Migel saria

Bergarak eta Eibarko Hariatzk taldeek jokatu zuten Oñati San Migel eskubaloitako finala. Lehia gogorra izan zuten bi taldeek eta partidua 25nako berdinaketarekin amaitu zen. Ondorioz, penalti jaurtiketen bidez irabazi zuten txapelpeta mahoneroek.

> UDALA Larrialdietarako plana eguneratu eta onartu zuen Udalak

Larrialdietarako egindako plana eguneratu eta onartu zuen osokoak irailean. Uhonde, sute edo istripu larriei aurre egiteko herriak zer baliabide dituen eta egoera horietan zer egin jasotzen du plan horrek. Aurreko planak 10 urte zituen, eta, herria aldatu denez, plana ere bai.

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45


•Era guztiak eraikuntzak •Erreformak

Teilatuak
Sukaldeak
Bainuak
Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen
erreformetan
eta txaleten eraikuntzan
espezializatuta gaude**

ELUSU ERAIKUNTZAK





**Gabon
zoriontsuak
bergarar
guztioi!**

URRIA



"Lehen itzuliaren amaieran ikusiko da noraino hel gaitezkeen"

Manu Diaz > Bergara KEko lehen erregionaleko entrenatzailea



"Blues berria aurkitu du jendeak diskoan, orain arte jorratu ez dena"

Oihan Vega > Belceblues taldea



GOIENKARIA

Errege Seminarioa, herriarena

Hilabetetan negoziazioetan egon ostean, Madrilgo Gobernuak, Errege Seminarioaren jabeak, saldu egin zion eraikina UNED-Bergara Patronaturi. Milioi bat eurotan saldu zion. Udalak 100.000 euro ordaindu beharko ditu, Patronatuan duen ordezkaritza zatiagatik (%10). Aldundiak %63 du eta Kutzak %27. Agurne Barruso alkatea eta Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendaria (argazkian) pozik agertu ziren erosketarekin, "historikotzat" jo zuten. Horrela, asmoa zen Arizuriaga UNEDi ematea eta Udalak liburutegia jartzea Seminarioan. Aranzadik ere eraikin horretan jarraituko luke.

hileko esaldia

"Tratuak egitea ez da erraza izaten, baina hitzordu polita da Elosukoa, berezia"

Patxi Badiola > Baserritarra

hileko datua

3

Bergarako hiru musika taldeek hartu zuten parte urrian hasi zen III. Danbaka lehiaketan. Taldeak ziren: Adi Holden, Lord Witch eta Turboshit. Kontzertuak Elgetako Espaloian egin zituzten.

Txotxongiloen mostra

Helduendako txotxongiloen mostrak Euskal Herriko eta atzerriko artistak batu ditu herriko kaleetan.

Ordenantza fiskalak onartu zituzten

2009ko zergek eta tasek %5eko igoera, orokorrean, izango dutela onartu zuen udalbatzak, aho batez.

> ZERBITZUAK

Urrian zabaldu zuen posta zerbitzuak Ibargaraiko bulegoa

Posta zerbitzuak urrian zabaldu zuen herritarrendako bulego berria, Ibargarai kalean. Urritik hona bulego hori erabiltzen dute herritarren edozein gutun edo pakete jaso edo bidaltzeo. Burdinako bulegoa langileek bakarrik erabiltzen dute. Guztira zortzi posta banatzale daude herri barruan eta bost auzoetako posta banatzen ibilten dira. Lehenengo posta bulegoa plazan egon zen, orain Kutxa dagoen tokian. Gero Pertxoa elkartearren ondoko pasabidean, eta azkenik, Burdinaten. 18 urte egin ditu hangoak.

> UDALTZAINGOA

Asteburu eta jai egunetan lanean hasi zen udaltzaingoa

Urria ezkerro dago udaltzain zerbitzua asteburuetan Bergaran. Urriaren lehen asteburuan hasi ziren zapatu arratsaldetan, domeketan eta jai egunetan lana egiten. Lan ordutegia lutzearrek batera, udaltzainen antolaketa ere aldatu egin zuten. Horrela, hiru lantalde egin zituzten. Urria hasieran 15 udaltzain zeuden Bergaran baina asteburuko lantaldea osatzeko udaltzain gehiagoren beharra zegoela ikusi zuten eta Udalak beste hiru udaltzain kontratatzeko asmoa zuela esan zuen.



Kalebarren instalazioak SM

- Proiektuak
- Instalazioak eta mantendimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak

Aurrekotuak konpromesorik gabe

GABON ZORIONTSUAK GUZTIO!

Bidekurutzeta 31 behea

Tel.: 943 76 11 67 BERGARA

E-mail.: kalebarren@inicia.es

Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE

944 75 99 60 DEUSTO

AITEC, S.L.

ESTALDUREN KALITATE - KONTROLA

• LABORATEGI INDUSTRIALEN EKIPAMENDUA

Harruriaga 12 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 08 09 • Faxa: 943 76 43 19 • E-maila: aitec.alvaro@telefonica.net

Gabon zoriontsuak!

albiste izan zen

> DEBAGOIENA Lan instripua Oñatin

Oñatiko 37 urteko langile bat hil zen Garay enpresan, makina batek harrapatuta.
2008.10.18

> EUSKAL HERRIA Babesa herri galdeketari

Ibarretxeren herri galdeketari babesera eman zioten hirukoak eta Aralarrek.
2008.10.25

> MUNDUA Krisi finantzarioa

Krisi finantzarioak munduko herrialde guztiak astindu zituen.
2008.10.23



GOIENKARIA

Bedelkarrek azoka egin zuen frontoian

Erosleak eta saltzaileak gustura gelditu ziren Bedelkarrek urrian frontoian egin zuen azokarekin. Saltzaileak pozik gelditu ziren jendea ibili zelako, eta erosleak ere gustura Bedelkarrek azoka egiteko ideia izan duelako. Salmentak ez ziren ikaragarriak izan, baina Bedelkarren helburua herrian giroa jarri eta herriko denda eta produktuak herritarren eskura jartzea zen, eta helburuak bete zitzuela adierazi zuten Bedelkarko kideek. Bedelkarren 85 kide zeuden urrian, hamar ostalaritza arlokoak. Azokan 24 komertzio izan ziren.

> ERRETIRATUA Kultura hamabostaldia egin zuen San Joxepek

San Joxepe erretiratuen elkartea kultura hamabostaldia egin zuen urriko bigarren eta hirugarren asteetan. Irteerak, jolasak, erakusketak eta hitzaldiak egin zituzten, besteak beste. Herritar guztiendako antolatu zituzten ekitaldiak, nagusi, gazte zein umeendako.

ZERBITZUAK > KULTURA ARETOA

IX. Txotxongilo Mostrarekin zabaldu zuten Zabalotegi

Zabalotegi areto eraberrituak urriaren 2an zabaldu zituen ateak IX. Txotxongilo Mostra arrakastatsuarekin. Stirman argentinarren *Entremets* lanak sortu zituen aretoko ikusleen lehen barre algarak. Lehen ikuskizunera hurbildutakoek, aretoa "hal-

koetarako nahikoa" dela adierazi zuten. Inaugurazioa, baina, hilabete bukaeran egin zuten, urriaren 31n hain zuzen ere: Bergarako Orkestra Sinfonikoko hari taldeak, Musika Eskolako Ganbara taldeak eta Bergarako Orfeoiak hartu zuten parte.



Irudian, Stirman aktorea Zabalotegin.

> ODOL EMAILEAK Herriko 43 odol emailek domina bana jaso zuten

Herriko 43 odol emailek domina bana jaso zuten urriaren 26an Arraten, egindako odol ateratzengatik. 43 emaileetatik zazpik 50 ateratzetan eginak, hiruk 40 eta gainerakoek 25. Gurutze Altzerrak domina berezia jaso zuen, ordurako 62 ateratzetan eginak zituelako.

LAGUN GARAJEA

ad®

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

ZORIONAK
GUZTIO!!



IBARGUREN PENTSUAK
BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

San Pedro 3 BERGARA Tel.: 943 76 23 79

AZAROA



"Futbola jokoa da eta, azken finean, emaitzek agintzen dute"

Asier Garitano > Alacanteko entrenatzalea



"AHT proiektua geldiarazi behar dugu jendea kontzientziatuz"

Mila Elortza > AHT Gelditu! Elkarlana

Aroztegin erakutsi zuen Muniategik

Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak erakusketa jarri zuen Aroztegin azaroan.

Nahiaren eta ezinaren deitu zion erakusketari eta ikuslea "astintze-ko" asmoz etorri zen. "Ikuslea astindu nahi dut. Ez dut jendeak 'zein polita' den esatea nahi, ez naiz horretara etorri", azaldu zuen Muniategiandikoetxeak.

Ispilua zen erakusketaren oinarria eta ekarritako lanen artean kaxa gorri bat zegoen, isipilu baten gainean. "Geometriaren bidea agortu zaidala esan nahi du kaxa horrek".

Manu Muniategiandikoetxeak 1986an erakutsi zuen azkenekoz Bergaran, kultura etxean, karretran zegoela.



GOIENKARIA

hileko esaldia

"Errege Seminarioan auditoriuma egiteko aukera bertan behera utzi dugu"

Rafael Amasorrain > EAJko zinegotzia

hileko datua

323

Servimasa Soraluze-Bergarako IV. krosoan 323 korrika-larik hartu zuten parte. Gizonetan azkarrena Driss Ben Said (Maroko) izan zen eta emakumetan, Tabita Wambui (Kenya).



Domingo Iralako komun publikoak

Azaroaren hasieran zabaldu zitzuten Domingo Irala kaleko komun publikoak.



Arazoak zinema estreinaldian

Zabalotegiko zinema estreinaldian arazoak izan ziren DVD errepraktorearekin.

> JENDARTEA

Azoka txikia San Martin plazara bueltatu zuen Udalak

Merkatu txikia San Martin plazan egiten da azaroaren 15etik. Azkeneko urteetan, Oxirondo plazan egin dute, baina gainbehera etorrira zegoela ikusita eta gero eta saltzaile gutxiago etortzen zirela kontuan hartuta, azoka herriko plazan egitea erabaki zuen Udalak. Herriari bizitasun handiagoa ematea ere izan zen aldaketa egiteko beste arrazoi bat.

Herriko San Martin plaza Oxirondo baino handiagoa denez, merkatua handitzeko ahalegina egingo zuela esan zuen azaroan Udalak.

> AZPIEGITURAK

Gasolindegia parean biribilgunea egiteko lanak, lehiaketara

Diputatuak Kontseiluak Amillagako biribilgunea egiteko lanak lehiaketara ateratzea onartu zuen azaroan. Aurrekontua 1.320.290 eurokoa da eta lanak egiteko epea, sei hilabeteakoa. Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du gastua bere gain.

Biribilguneak izango ditu lau adar nagusi eta bigarren mailako sarbide bat. Biribilgunea bi bidek inguratuko dute; bakoitza lau metro zabal izango da eta erdiko irla ere oboide formakoa izango da, 15 eta 20 metroko erradioarekin.

ARRERGI AROZTEGIA

Era guztiako arotz lanak

Tarimak
Parketak
Leihoa
Eskailerak
Erreformak
...



Tailerra: Urteaga 20
Tel./Fax: 943 76 11 73

Erakuslekua: Bidekurutzeta 38
Tel./Fax: 943 76 31 03

**ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!**



TORBER

**ZORIONAK
BERGARAR
GUZTIOI!**

ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!



Bidekurutzeta 34 BERGARA
9 4 3 7 6 1 7 4 1



Saunier Duval
Dicom
LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Tel.: 943 76 06 61
www.dicoman.com
dicomanbergara@dicoman.com

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



Gabon zoriontsuak!

*Gogor
estutzen dugu!*

Torlojugintza

Espesialitatea: era guztiako azkoinak

INDUSTRIAS



DNV
CERTIFIED

Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / San Juan auzoa 40 BERGARA / industriaszangitu@stl.logiccontrol.es

Gabon zoriontsuak
eta urte berri on
herritar guztioi!



www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81



www.gazteabertzaleak.org

albiste izan zen

> DEBAGOIENA AED elkartea, 25 urte

Arrasateko AED euskara elkartea 25 urte bete zituen azaroaren 29an. 2008.11.21

> EUSKAL HERRIA Krisia hedatu zen enpresetan

Krisi ekonomikoa Euskal Herriko enpresa eta langile askorengana heldu zen. 2008.11.7

> MUNDUA AEBn, Obama presidente

Barack Obama demokrata AEBetako presidente bihurtu zen, 44.a. 2008.11.04

> KOMUNIKABIDEAK Txapa Irratiak denboraldi berria hasi zuen azaroan

Txapa Irratia azaroan hasi zen denboraldi berriko irratsaioak emititzenten. Guztira hamar programa propio jarri zituen entzungai uhinetan. Gaineraiko orduak Arrosako irratsaioekin, antolatzen dituen kontzertuekin eta elkarrizketekin bete zituen. 15-20 lagun zeuden Txapan azaroan.




GOENKARIA

Behin-behineko Plan Orokorra onartu zuten

Bergarak datozen urteetan izango duen antolamendu eredua jasotzen duen behin-behineko Plan Orokorra onartu zuen udalbatzak azaroan egindako ezohiko osoko bilkuran. Udal Gobernuak eta PSE-EE alderdiak alde bozkatu zuten eta EAJ eta EA abstentzu egin ziren. 2005eko azaroan aurkeztu zuen Udalak Plan Orokorraren aurrerapena. Iرادوكيزونا، alegazioak، Jaurlaritzak onartutako Lurzoru Publikoaren Legea eta udal hauteskundeak tarteko, 2008ko azaroan onartu zuen orduko udalbatzak behin-behineko agiria.

> ARTEA Aro modernoko Bergarako arte erlijiosoa, liburuan

Bergarako arte erlijioso guztia jasotzen duen liburua aurkeztu zuen Mari Jose Aramburu donostiarak, egileak. *Arte y piedad. El arte religioso en Bergara en la Edad Moderna* da liburuaren izenburua. Parroquia, lehengo komentua, Seminarioa, ermitak... aztertu ditu egileak.



Bi liburukitzen atera zuten liburua, irakurlearendako erosoga izateko.

> AUZOAK Antzerkia, zinema eta gaztainak Osintxuko azaroko egitarauan

Gaztañatan izeneko egitaraua prestatu zuten azarorako Osintxun. Egitarau horren barruan hainbat ekitaldi antolatu zituzten: zinema, Jon Arretxe idiazle eta bidaiaiaren diapositiba emanaldia, erretiratuen eguna eta gaztaina jana sagardo eta guzti, bestek beste.

> ERAKUSKETA Xanti Arrieta artistak Nahikari tabernan erakusketa

Xanti Arrieta pintore, eskultore eta zeramika egile bergararrak Nahikari tabernan jarri zituen bere lanak ikusgai azaroan. Guztira 15 lan jarri zituen: zeramikazko bi mural abstraktu eta 13 koadro. Paisaiak ikusten ziren koadro gehienetan. Bolun du estudioa Arrietak.

> TXIRRINDULARITZA Pedalaren Eguna ospatu zuten Lokatzaren eskutik


Lokatza txirrindulari elkarrekin Pedalaren Eguna ospatu zuen azaroaren 22an. Lehenengo eta oraingo txirrindulariak eta zuzendaritzako kideak elkartu ziren afaltzeko Agorrosinen, 27 lagun guztira. Taldeak datorren denboraldirako dituen helburuak ere aztertu zituzten.

Gabon jai zoriontsuak igaro!

Fraiskozuri 7 Tel.: 943 71 09 10
Faxa: 943 76 93 77



"la Caixa"



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SM

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Zorionak eta urte berri on!



Zorionak eta urte berri on!

Agorrosin

Aralar

Ariznoa

Avenida

Azpeitxi

Biko

Etxagi

Eusebio II

Frontoia

Iraho

Irish pub galways

Kai

Kaiak

Kaixo

Pol pol

Sirimiri

Toki Ona

Usoa

Zunbeltz

ABENDUA



"UNED Arrizuriaga jauregira eramatearen erabat aurka gaude"

German Muruamendiarraz
> EAJko zinegotzia



"Gero eta jende gehiagok bidaiatzen du; gehienek eguzkia bilatzen dute"

Garbiñe Elortza
> Barcelo Bidaietako arduraduna



JOSETXO ARANTZABAL

Euskadiko Orkestra gurean, 18 urte eta gero

Abenduaren 12an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa izan zen gurean. Pilotalekua lepo bete zen Orkestrak eskainitako sei lanak ikusteko; horietatik bi, Gonzalez Bastida anaiena: *Lorea eta Leyenda Vasca*. Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia izan zen. Iker Sanchezen gidaritzapean aritu ziren musikariak. Bertara hurbildu zirenak gustura geratu ziren ikuskizunarekin. "Orkestra oso kontzentratuta ikusidut eta Gonzalez Bastida anaien lanekin hurbiltasuna lortu dugu publikoarekiko", adierazi zuen Sanchez zuzendariak.

hileko esaldia

"Gure lana ezagutzera eman nahi dugu; bigarren mailako kirola da piraguismoa"

Oskar Lizarralde >
Beti Bustiko kidea

hileko datua

1,75

Horixe da Osintxu eta Mekolalde artean dagoen tarteak kilometrotan. Tarte horretan udaberri aldera hasiko dira bidegorriko lanak. Lanok enkanterera atera dira 1.080.816 eurotan.



Bizikletak udal langileendako

Udaleko ohar eta gutunak banatzen dituzten langileendako bizikletak erosi zituen Udalak.



Labegaraietako zebra-bidea

Jende asko ibiltzen da Labegaraietako bidegorrian; bertan dagoen zebra-bidea ez dago leku onean kokatuta.

> HIRIGINTZA

Arrizuriagan UNED kokatzearen aurka azaldu zen EAJ

Bergarako EAJk ez du nahi Arrizuriaga jauregian kokatzea UNED-Bergara. Hala, Bergarako Udal Gobernuak eta UNED-Bergarako zuzendaritzak agertutako asmoen aurka azaldu ziren abendu hasieran zinegotzi jeltzaleak. Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko jabetza erabilpen permuta "akats larria" dela diote jeltzaleek. Horren harira, Lorategi historikoan aldeko ekimenak uste du guztiz bateragarria dela UNED Arrizuriagan kokatzea parkeak dituen kultura balioen babesarekin.

> GAZTEAK

Adin txikikoendako babes-etxea zabaldu zuten Moiua kalean

Gipuzkoako Foru Aldundiak adin txikikoendako babes-etxea jarri du Moiua kalean.

Abenduaren erdialdean da martxan eta 13 eta 18 urte arteko zortzi neska-mutiko bizi dira han: sei, gipuzkoarrak; eta bi, etorkinak. Gipuzkoan barrena babes-etxe sarea du Aldundiak, eta dagoeneko 40 badira. Horietako lau Debagoienean daude; hortaz, Bergarakoa bosgarrena izango da. Babes-etxea kokatuta dagoen auzoko bizilagunak kezkatuta daude halako etxe bat ondoan izateagatik.

2008KO GAUZARIK EDERRENA: GURE BEZEROEI EMANDAKO LAGUNTZA

902.444.222
www.bankoa.com

Gabon
zoriontsuak igaro

OLABE


OKINDEGIA-GOZOTEGIA

Amillaga 21
Matxiategi 4
Zurradero 2
Simon Arrieta 6


Tel.: 943 76 72 28
Tel.: 943 76 57 99
Tel.: 943 76 01 26
Tel.: 943 76 10 71

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA




ARGAZKIAK: GOIENKARIA



*Antzuolako Udalak
jai zoriontsuak eta urte
berri on opa dizkizue
herritar guztioi!*



Antzuolako udala
www.antzuola.com



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko
torlojungintza berezia

-
Plastiko eraldakuntza
injekzio bidez

Ate eta pertsanak
zabaltzeko automatismoak

Oinezkoentzako
ate automatikoak



Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA
Tel.: + 34 943 78 60 09
Faxa: + 34 943 78 70 34
<http://www.matz-erreka.com>

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN
ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO
IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUA.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 78 60 00
FAXA: 943 76 60 08 - 943 78 70 95
E-MAILA: goizper@goizper.com
Webgunea: www.goizper.com



URTARRILA OTSAILA



"Urtarrileko aldapak lotura dauka gastatu dugunarekin, eta baita nortasunarekin ere"

Enara Agirre
> Psikoterapeuta



"Gerra ematea eta iaz egindakoa hobetzea da nire nahia"

Gurutz Larrea
> Bidelan taldeko Txirrindularia



"Arrola biziberritzea da gure asmoa, aspaldian jende gutxi ibili baita"

Arkaitz Kortabarria
> Arrola elkarteko presidentea

JAIAK > MAIRUAREN ALARDEA

Alardeko mairuaren irudia duindu egin nahi dute

Eusko Ikaskuntzak eta Udalak Mairuaren Alardearen gainean egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten. Alardea modernizatzeko egungo ikuspuntueta egokitzeko beharra azpimarratu zuten arduradunek eta horretarako mairuaren irudia duintza ezinbestekotzat jo zuten.

Mairua astotik zaldira pasatzea, janzkeria dotoreagoa ipintzea, azalaren kolorea argitzea, euskaraz hitz batzuk egitea eta eskolta izatea zeuden proposamenen artean; baita diskurtsoa eta koreografia egokitzea ere. Aldaketatarako bi lantalek jardun dute urtean barrena.

> ONDAREA
Parroquia berritzeko 73.327 euro eman zituzten herriarrek

Parroquia zaharritzeko 73.327 euro jaso zituzten herriarren-gandik. Diputaziotik, Udaletik eta Donostiako Elizbarrutik ere jaso zuten dirua. Erreteila konpondu eta kanpandorreko lanekin hasita, ordulari eta tximistorratz berria ipini zituzten; baita sarrera berria eta kanalizazio lanak egin ere. Geroago barruko lanekin hasi ziren.



Elizako kanpandorrea.

Argazkiak
Oinetakoak • Bitxitegia

M^a Paz
ARGAZKIAK



Gabon jai zoriontsuak antzuolar guztilo!

Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66 ANTZUOLA

> GERTAERAK
Sutea izan zen anbulatorioaren kanpoko aldean

Sofa zahar bati su eman zioten gaztetxo batzuek domeka iluntze batean, eta ondoren, inguruko belarrek su hartu zuten anbulatorioko kanpoko aldean sutea eraginez. Suhiltzaileek berehalala kontrolatu zuten arren, leihok hondatu zituen eta fatxada belztuta utzi zuten garrek. Kanpoko aldea margotu egin zuten itxura berria emanez.

> GARBITASUNA
Txakur kakak garbitzeko eskatu zien Udalak jabeei

Bandoa kaleratu zuen Udalak txakur jabeei eskatuz kalera ateratzean arduraz jokatzeko eta eurek egindako kakak jasotzeo. Alkatearen esanetan, "ez da inorendako atsegina kalean txakur-kaka artean ibiltzea". Antzuolarrek herri txukuna nahi dutela eta Udalak kalea garbitzeko ardura duela gaineratu zuen jakinarazpenean.

> FUTBOLA
Athletic-eko beteranoak izan ziren nagusi Barkeroren omenaldian

Ohiturari jarraituz, Xabier Barkeroren omenez partidua jokatu zuten haren taldeko ohiek. Eztalan zale mordoa elkartu zen Athletic taldeko beteranoen aurkako norgehiagoka ikusteko. Lehia guztian barrena antzuolarrak nagusi izan baziren ere, 2-3 galdu zuten amaieran. Etxekoan golak Andoni Azkargortak eta Xabi Agirrek sartu zituzten.



ANTZUOLAKO URI BURU BATZAR
ETA ALDERDIKIDEEN IZENEAN

GABON ETA URTE BERRI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU HERRITAR GUZTIOI

Jose Antonio Agirrek, gudariei emundako mezu bat:

"Ludi guztiko errijak gure begira dagoz.

Gure erri zarra izango da antzian legez diña zintzua ta gogorra".



Azken belaunaldiko diodo laserrean
eskaintza:
%20, %30 eta %50eko deskontuak

Etorri eta informatu!



Ondo pasau Gabonak!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Itzar

LIBURU DENDA
ESTANKOA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

HORTZ KLINIKA

Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

Odontologia orokorra • Endodontziak
Periodontzia eta inplanteak • Protesiak

GABON ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behe 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

MARTXOA



"Badira Antiguau zebra-bidean hiru gau emandako autoak"

Joseba Lezeta
> Kazetaria



"AHTk Basalde auzoa aldenik alde pasako du, auzoa desitxuratuz"

Fernando Iturbe
> AHTren aurkako taldeko kidea

KIROLA > PILOTA

Olalde pilota elkartearen 30. urteurrena ospatu zuten

Olalde elkarteko pilota saila lanean hasi zela 30 urte aurten bate direnez, ospakizuna egin zuten elkartean jardun dutenen lana eskertzeko. Pilota herritarrengana gerturatu dute eta pilotari entzutesuak ere aterra dira Olaldetik: Berraondo eta Mendizabal, esaterako.

PARTIDUAK PALAZ ETA ESKUZ

Partiduekin ospatu zuten urteurrena, nola bestela. Palaz, Zabalo eta Mansok 35-14 irabazi zuten Zabalo eta Iturberen aurka. Eskuz binaka, Mendizabal eta Elkoro izan ziren irabazole Berraondo eta Muruamendia-razen kontra (22-17).



Urteetan egindako lanarengatik Olaldeko pilota sailekoak omendu zituzten.


> HIRIGINTZA
Pibote mugikorrak ipini zitzuten plazan eta Kalebarrenen

Aste bukaeretan oinezkoendako izaten da plaza eta Kalebarren arteko gunea. Zirkulazioa bideratzeko aguazilak astero ipintzen zituen pibotearak, baina martxoan sistema automatikoa abiarazi zuten. Pibote berriek 1,40 metroko altuera dute eta semaforo itxurako argiak bidea emateko edo sarrera galarazteko.

> AURREKONTUA
Udalak 3,7 milioi euroko aurrekontua onartu zuen

Udalbatzarrean baietzko sei botorekin, aurkako laurekin eta abstentzio batekin onartu zuten 2008rako aurrekontua. Inbertsioen artean nabarmendu zitzuten Torresoroa janzteko eta baserriatarako ur hornidura eta saneamendu lanetarako diruak. Bidegorria eta kirol instalazioak ere inbertsioen artean daude.

APIRILA



"Euskal gizartea behin eta berriro aldarrikatu du biolentziaren amaiera"

Fernando Lete
> Lokarriko ordezkaria

DANTZA > DEBAGOIENEKO DANTZARI EGUNA

Herriko kaleetan eta plazan ibili ziren 120 dantzari


Antzuolako Oinarin, Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz, Oñatioko Oñatz eta Soraluzeko Urrats dantzari taldeetako kideak elkartu ziren Debagoieneko Dantzari Egunean, guztira 120 inguru.

Kalejiran ibili eta goizean eta arratsaldean plazan dantza saio bana egin zuten eta talde bakoi-

tzak dantza berezi bat aurkeztu zuen. Amaieran, denek batera Larraintxu dantza egin zuten.

LANAREN ERAKUSLE

Antolatzailaek helburua beteta pozik geratu ziren. Dantzari nagusiek urtean barrena egindako lana erakustea zen asmoa.



Gurasoak umeekin jolasean.

TXOMIN GARAJEA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel.: 943 78 70 77



IGELTSEROTZA S.L.

Ondo pasau Gabonak!

ZAHARBERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilitauak

Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA

Tel./ Faxa: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51

E-posta: joseluis@zabaloazcarate.e.telefonica.net

MAIATZA

EKAINA



"Garai bateko herriko kooperatibistek diote orduko balio kooperatibistak krisian daudela"

Iñigo Ramirez de Ocariz
> Huheziko irakaslea



"Nahi duenak euskaraz jaso dezake zerbitza orain anbulatorioan"

Xabier Epaizabal
> Sendagilea



"Antzuolak erakutsi duen konpromisoa lortu nahi dut Mondran"

Andoni Azkargorta
> Mondrako entrenatzailea

UDALA > EZOHICO UDALBATZARRA

Ez zuten onartu EAJren eta PSE-EEren mozio 'etikoa'

Osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zela ezohiko udalbatzarra egin zuten bi mozio politiko eztabaidatzeko. Luze joan zen eztabaida eta udalbatzarraren amaieran tentsio uneak ere bizi izan ziren, herriarrek hitza haritu eta eta EAJri eta PSE-EEri kritikak egin zizkietenean.

BAT ATZERA ETA BESTEA ONARTU
Bozketen ostean, ez zuen aurrera egin EAJk eta PSE-EEk aurkeztutako mozio *'etikoak'*. Bai, ordea, Pedro M. Iturbe, Patxi Olabarria, M. Paz Ugalde, Andoni Azkargorta eta M. Carmen Jaurregi zinegotziak aurkeztutako mozio alternatiboak.

> ZERBITZUAK
Tabernetako terrazendako araudi berria onartu zuten

Ostalaritza guneetako terrazen ordenantzan aldaketak egin zituzten. Isunen gainekoak izan ziren batik bat aldaketak. Ostalariei jakinarazi zieten arau-hauste txikiengatik 300 euro ordaindu beharko direla eta 900 euro arau-hausteak larriak badira. Bidebatez, terraza ipintzeko bakoitzari dagokion eremuaren berri ere eman zieten ostalariei.

> INGURUMENA
Ibaiak eta errekok antolatzeko planak arazoak sor ditzake

Eusko Jaurlaritzaren EAeko ibaiak eta errekok antolatzeko lurralde zatiko planak herriaren garapen ekonomikoan eragin kaltegarria izan dezake. Horren harira alegazia ipini zuen Udalak. Eragina izan dezake, besteak beste, Ipurtikako ibarbidean, baita Antzuolako gune historikoan eta Kalegoiko eta Buztinzuriko eraikinetan ere.

KULTURA > ARTE MARATOIA

Herriko 15 artistaren lanak tabernetan ikusgai izan ziren

I. arte maratoiaren harira, herriko zortzi tabernatan, bi okindegitan eta landetxeen 15 artista antzuolarren lanak ipini zituzten ikusgai.

Arte diziplina asko izan ziren aukeran: pinturak, collageak, marrazkiak, argazkiak, eskulturak eta bonsaiak.

HERRITARREK, HERRITARRENTZAT

Maite Telleriak bultzatutako ekimenaren helburua izan zen herritarrendako herritarrek egindako artea bultzatzea; Antzuolako artistak eta euren lanak ezagutaraztea; eta artea ohiko aretoetatik ateratzea jendeari eskurago ipintzeko.



Herriko artistek aurkeztu zuten I. arte maratoia.

> SASKIBALOIA
Partiduak eta saskiratze lehiaketa saskibaloi jaian

Saskibaloi jaia antolatu zuen Udaleko Kirol batzordeak, herriko txapelketak antolatzeko beharra antzemanda. Partiduak eta saskiratze lehiaketa izan ziren eskolako patioan. Helburua zen kirola egiteko ohitura bultzatzea, saskibaloirekiko zaletasuna piztea eta herriko jai giroa eta harremanak suspertzea.

> LEHIAKETA
Loreekin apaindutako balkoikir politenek saria jaso zuten

Herriko balkoikir eta leihorrik apainenen jabeak saritu egin zituzten. Alde berriko politena Sagastiko Maider Muxika Barandiaranena izan zen eta alde zaharrekoa, berriz, Santigoneko etxekoa. Antolatzaileek esan zuten beste urte batzuekin alderatuta lore gutxiago egon zirela, eta zeudenak, ez hain ederrak.



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

KALEBARREN 5

943 76 62 90 ANTZUOLA

Ondo
pasau
Gabonak!



Zorionak antzuolar guztioi!

ILAIA
Ile apaindegia • Estetika

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33

UZTAILA



"Ulergarria da antzuolar gazteagoei lekua egin nahi izatea"

Salvador Peña
> Alardeko mairua



"Eskertzekoa da, diruz larri egonik, herritik jasotako laguntza"

Asentzio Zubillaga
> DYAKO boluntarioa

KULTURA > ORDENANTZAK

Olaran etxea erabiltzeko araudia onartu zuten

Olaran etxearen erabilera eta funtzionamendua egokia iza-teko araudia onartu zuten, horretarako ordenantzak onartuta. Araudi berrian zehaztu zuten zein izan daitezkeen era-biltzaileak, lokalak zertarako erabil daitezkeen, eskaeren nondik norakoak...

HIRU HERRIALDETARA LAGUNTZA
Hiru gune nagusi daude Olaran-en: hitzaldi aretoa, erakusketena eta gainontzeko gelak, esko-la, ikastaro eta bileretarako.

Adostu zuten taldekaiko lanak egingo direla Olaranen, herriko taldeen lana bultzatzea baita Udalaren helburua.

> AISIALDIA
San Jose parkean egokitzapen lanak egin zituzten

Herritik gertu egon arren, lehengo aldean jende gutxi joaten da aspaldian paseoan hara, eta San Jose parkea ego-kitu eta aisiaidigune moduan erabiltzera animatu zituzten antzuolarrak. Arbolak landatu, belarra moztu eta inguru-rua garbitu zuten, baita bidea txukundu, harriak kenduz, eta ubidea egokitutu ere.

> ELKARTASUNA
Anelkarrek 2.850 euro jaso zituen afari solidario eta guatekean

Afari solidarioa eta guatekeea antolatu zituen Anelkar elkar-tasun taldeak. Guzira 2.850 euro jaso zituen elkartek eta esker-tu egin zuten herriarren eta afaritarako eta jairako laguntza eman zutenen borondatea. Ondo pasatzeaz gain, Brasilen, Sene-galen eta Kongon dituzten proiektuetarako dirua jaso zuten pozik ziren antolatzaleak.



Jendea mozorrotuta eta dantzarako gogoz azaldu zen frontoira.

ABUZTUA



"Bajei aurre eginda, jokalari berrieikin mailari eustea da denboraldirako futbol taldearen helburua"

Igor Larrea
> Futbol taldeko entrenatzailea

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Zundaketak egiten hasi ziren AHTren proiekturako

Abiadura Handiko Trenaren Angiozartik Ezkiorako zatiaren oinarritzko proiekturako zunda-ketak egin behar zituzten lurre-tan, eta lurjabeen baimena behar zuten. Lurjabeek baimena uka-tu zieten eta eskatu zuten AHTren Antzuolako zatiaren gaineko informazioa jasotzea.

BAIMENA BERRIZ ESKATU

Informaziorik ez zuten eman, baina abuztuaren hasieran lur-jabeen deika hasi ziren baimenak eskatuz, eta, lurjabe batzuek bai-mena eman ostean, abuztuan eta irailean zundaketak egin ibili ziren, "inposizioz", AHTren aur-kako taldekoen esanetan.



Mendi bidea Koroso inguruan.

- Akupuntura
- Masajea
- Osteopatia

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!



Ana Etxeberria

Errekalde 6 behea ANTZUOLA

Tel.: 943 76 60 13

ANTZUOLA

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Biltegia: 943 78 70 40
Mobila: 676 99 74 00

ONDO PASAU GABONETAN!

- APAINKETAK
eta
ISOLAMENDUA

- PLADURREZKO
DIBISIOAK


IRAILA



"Bergaran edo Antzuolan gurekin topo egingo duzu; hor izango gaituzu entzuteko prest, lanerako gertu"

Juan Kruz Mendizabal
> Apaiza

URRIA



"Nire burua kantari moduan ezagutzen eman nahi dut"

Iñigo Irizar
> Musikaria



"Iturriak katalogatu nahi izan ditut, jende nagusia falta denerako"

Jose Mari Iturbe
> Nekazaritza zinegotzia

HIRIGINTZA > ETXEBIZITZAK

Eguzki auzoko etxe tasatuen giltzak eman zituzten

Eguzki auzoan Udalak bultzatutako etxebizitzak eraiki eta uztai-lean sinatu zituzten batzuen jabe-tza eskriturak; gainontzeoenak irailean sinatu eta jabe guztien esku ipini zituzten giltzak.

Irailean jadanik bizilagun batzuk joanak ziren etxe berrietara bizi izatera.

GIMNASIOA ETA GAZTE TXOKOA
Giltzak eman arren, eraikin horretan gimnasioa eta gazte txokoa egiteko lanak falta ziren.

Udalek jakinarazi zuten lur-zoru publiko falta dela-eta epe laburrean ez daukatela etxebizitza babestu edo tasatu gehiago eraikitzeko asmorik.

> INDUSTRIA
Elay lantegian egin zituzten LHC azeleragailuaren piezak

Large Hadron Collider (LHC) azeleragailu sonatua irailean ipini zuten martxan. Esperimendu fisiko horretako tramankuluarenak pieza batzuk Elay lantegian egin zituzten. Proiektuak iraunden bitartean hiru milioi pieza egin dituzte. Erronka handia izan da enpresarendako eta era berean izen ona ere ematen dio, eta ate berriak zabaldut.

> BASERRIA
Pikunieta baserrikoek bigarren saria irabazi zuten gazta lehiaketan

Ordiziako gazta lehiaketa ezaguenean bigarren saria eskuratu zuten Pikunieta gaztandegikoek. Gazta ez ezik ogi ekologikoa ere ekoizten dute izatez azkoitiarrak diren Pikunieta baserrikoek, Biolar elkartearen barruan. Ordizia-koa ez da izan aurten Pikunieta-koek lortu duten sari bakarra; izan ere, Gipuzkoako txapelketan laugarren saria jaso zuten.

ZERBITZUAK > GIZARTE ETXEA

Torresoroa inauguru zuten agintarien bisitarekin

Eguneko zentroa abian bazeen ere, urrian egin zuten Torresoroa gizarte etxearen inaugurazio ofiziala agintariekin.

Eguneko zentroaz gain, babespeko etxeak, liburutegia, erretiratuen elkartea, mediku kontsulta eta auditorioa ere izango dira Torresoroan.

HERRI TXIKIA, EGITURA EGOKIA
Agintariekin aipatu zuten gizarte aldatuz doan neurrian beharretara egokitu beharra dagoela, antzuolarrek eskertuko dutela horrelako gune bat, iza-tea herri txiki gutxitan ikusten delako horrelakorik, eta ez dute-la beste batzuen inbidiarik.



Markel Olano, Maite Etxaniz eta Pedro Iturbe, eguneko zentroko adinekoekin.

> AISIALDIA
Herriko begiraleek hartu zuten gazte txokoaren ardura

Eguzki auzoko gazte txoko zabaldut aurretik, Errekaldean gazte txokoabian ipini zuten, eta aurretik Txatxilipurdikoek egindako lanaren lekuak herriko gazte talde batek hartu du aurten. Asmoa da begirale talde horrek gazte txokoan ez ezik udaleku irekietan eta herriko beste aisiaaldi ekin-tza batzuetan ere jardutea.

> FRONTOIA
Udal Pilotalekua itxi egin zuten berritze lanetarako

Construcciones Pera ardura-tu zen frontoiko berritze lanez eta obrek iraun zuten artean Udal Pilotalekua itxitxa izan zen, eta partiduak Oñatin jokatu behar izan zituzten. Frontoiaren kanpoko aldeko drainatzetako ur bilketa sis-tema konpondu, ezkerreko horma pikatu eta pareta berdez margotu zuten.



Kalebarren 1. ANTZUOLA.
943 76 64 84

HARATEGIAK

Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu herritar guztioi!



Komenio kalea 2. BERGARA.
943 76 10 72



INDUSTRI MANTENIMENDUA

*Jose Gomez
Abad*

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
Tel.: 943 76 60 19 / 943 76 60 43
Faxa: 943 76 60 19

**GABON ZORIONTSUAK
HERRITAR GUZTIOI!**

**OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA**

**ONDO PASAU
GABONETAN!**

ALTZARTE

Kalebarren 18 943 76 62 94
ANTZUOLA

AZAROA



"Gure asmoa litzateke Herri Eskolako patioan aterpea ipintzea"

Pedro Iturbe
> Alkatea



"Adinekoen ondoan egoteak pozten dituela ikusteak betetzen nau"

Karmele San Sebastian
> Boluntarioa Mizpirualde egoitzan

INGURUMENA > BIDEGORRIA

Antzuola eta Bergara arteko bidegorria onartu zuten

Foru Aldundiak oinezkoenda-ko eta txirrindulariendako bideetarako inbertsioak egiten dihardu herrien artean moto-rrik gabeko mugikortasuna bul-tzatzeko. Asmo horrekin bide-ek eraikitzeko hainbat proiek-tu onartu zituzten tartean Antzuola eta Bergara arteko.



Bide zaharra edo Errege bidea egokituko dute oinezkoendako eta bizikletendako.

BI ZATI

Aurreikuspenen arabera dato-ren urtean barrena erabiltze-ko moduan egongo da. Bi zati egingo dituzte: herritik Antzuola errekara arte eta handik erre-karen eskumatik, bide zaha-retik. Trenbide zaharretik ere egingo dute bidegorria.

> LIBURUTEGIA

Eguzki auzotik Torresoroara eraman zituzten liburuak

Data zehatzik ipini ez arren Torresoroako liburutegi berria urte amaieran edo 2009 hasieran zabaltza da asmoa. Horretarako, liburuaren leku aldatzea egiten jardun zuten. Liburutegi berriak ohiko apa-lez eta mahaietx gain izango ditu umeendako gune bat, bi ikasgela, Kzgunea eta goxo irakurtzeko toki bat.

> JAIA

Trikitixa Egunerako dirua jasotzeko egin zuten saiheski jana

Trikitixa Eguna ospatuko dute 2009ko apirilaren 25ean Antzuolan. Trikitixa eskola-koak urtean barrena hainbat ekintza antolatu dituzte dirua eskuratzeko. Azaroaren hasieran saiheski jana egin zuten Zurragetin eta 300 pin-txo saldua 570 euro batu zituzten. Trikitixa doinurik ere ez zen falta izan jaien.

ABENDUA



"Kongo erabat beltz ikusi dut; hemen krisia dago, bai, baina Kongon goseak eta miserian bizi dira"

Begoña Egaña
> Boluntarioa Kongon

GABONAK > KONTZERTUA

Juan Antonio Lizarralderen omenezko kantu emanaldia

Brasilen urte mordoan misiolari lanetan ibili ostean, urrian hil zen jaioterrian Juan Antonio Lizarralde abadea.

Hark egindako lana eskertz Gabonetarako omenaldia gerta-tu dute Anelkarrek, abesbatzak, dantzariekin eta koadrilek parro-kiaren eta Udalaren laguntzaz.

KANTUAN

Gabonetako kantu jaialdian parte hartzeko a zen Juan Antonio Lizarralde bera eta kantuan ez izan arren gogoan izango dute herritarrek. Koadrila bakoitzak bina abesti eskaini eta dantzariak eta irudirik ez da faltako misio-laria oroitzeko.



Juan Antonio Lizarralde Brasilgo festa batean eliztarrekin.



Zabalo Iturgintza S.L.

Ondo ibili Gabonetan!

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitura
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel. / Faxa: 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren 1. Antzuola. Tel. / Faxa: 943 76 64 73



Gabon zoriontsuak guztioi!

Bustinzuri 6 behe - Antzuola
Tel.: 943 78 62 69




Lan gela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

**Urte berri on
antzular
guztioi!**



Gabon Zoriontsuak!



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Tomas Gezalaga
ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA

ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA
943 766407 616 277999 Antzuola

ONENA eta TXARRENA

Urte bukaeran gaude, eta balantzea egiteko ordua da. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako hainbat herriarri iritziak eskatu diegu: Zein da urteak eman

duen gertaerarik onena eta zein txarra? Askotariko erantzunak eman dizkigute. Hona hemen jasotakoak, labur-labur.



MARIJE UGALDE
Musika Eskolako zuzendaria
Bergara



DUNIXI OLABARRIA
Pol-Pol tabernakoa
Bergara

25. URTEURRENA
Eskolak 25 urte betetzea ez da makala, eta ospakizunetan denok parte hartzeko aukera izango dugu. Euskadiko Orkestra Bergaran izan da, hor dago *Misera-bleak*, musika talde guztiak...

KRISI EKONOMIKOA
Dudarik gabe, eta askorendako bezala, aurtengo txarrena krisi ekonomikoa izan da. Badiarudi gaizki pasatuko dugula 2009an ere, baina baikorra naiz eta laster pasatzea espero dut.

EGURALDIA
Niri neguko egeraldia asko gustatzen zait, eta baita elurra ere; eta urteko azken egunetan egin duen elurteak espero dut gure inguruan dugun *zikinka-bleak*, musika talde guztiak...

GUZTIAIRENTSARA
Bada, demokraziaren izeanen bere burua ezkertzale duten alderdi politikoek eta pertsonak nahi izan duten guztia irentsarazi digitela urte osoan zehar.



ANDER GARTZIA
Saskibaloi jokalaria
Bergara



REYES AZKOITIA
Pilota entrenatzailea
Bergara



SUSANA URIARTE
San Martin ikastetxeko zuzendaria
Bergara



GOTZON IPARRAGIRRE
Mariaren Lagundiko zuzendaria
Bergara



ANE BARRUSO
Aranzadi ikastolako zuzendaria
Bergara

ACB TXAPELKETA LORTZEA
Urte ahaztezina izan da niretzat 2008a; bai kirol mailan eta baita kiroletik kanpo ere; zaila izango da ahaztea. Poz handien ACB ligako txapeldun izateak eman dit, dudarik gabe.

FAMILIA URRUN EDUKITZA
Urte honetako zailena familia eta lagunak urrun edukitzea izan da; aurtengo denboraldia Murtzian jokatzen nago eta nahiko gogorra egiten da maite duzun jendea urrun edukitza.

ZABALOTEGI ARETOA
Zabalotegi areto berrituaren irekiera garrantzitsua iruditu zait. Kulturak ere arduratzen nau, eta Zabalotegi berriak herriko kultur eskauntzari mesede handia egiten diola uste dut.

PILOTALEKUKO TEILATUA
Udal pilotalekuko teilitua orain hiru urte guztiz eraberritu bazuten ere arazo asko ari da ematen. Ordutik iturgina askotan etorri behar izan da urak sortzen dituen arazoak konpontzera.

ERAIKINA BERRESKURATU
San Martin ikastetxeak duen toki arazoari behin-behineko irtenbidea eman zitzaien, eta Martinez de Iralako administrazio eraikina berreskuratu genuen joan den urte honetan.

BEHIN BETIKO IRTEBIDEA
Hala eta guztiz ere, oraindik San Martin ikastetxeak duen toki arazoari behin betiko irtenbiderik ez zaigu eman, eta hori ikastetxearendako ez da batere ona izan urte honetan.

KRIKIAREN ALDE ONAK
Egungo krisiak txar guztia agerian du. *Nitasunetik gutasunetako jauzia* emateko aukera, besteen sufrimenduarekiko sentibilitatea garatzeko aukera... Izan dut solidaritate adibide ederrik.

MUXUTRUKEKO LANA
Ez da aurtengo berria, baina aurten nire inguruan, behintzat, areagotuz sentitu dudana. Bailaran azken aldiz antolatutako Euskal Jaiak, mantendu eznik dabiltzan dantza taldeak...

NAZIO PROIEKTUAK
Hezkuntzak nazio ikuspegitik urtean zehar garatu dituen proiektuak; hala nola, Euskal Unibertsitatea eta Ikastolen Konfederazioaren proiektu berria hegoaldea eta iparraldea batzeko.

ESTATUS ESKASA IKASTOLEI
Bi akats: euskararen normalizazio bidean Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen ereduaren inguruko planteamendu antzua, batetik, eta ikastolei onartzen dien estatus eskasa, bestetik.



**Zorionak
eta urte berri on!**

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92

08:30 - 20:30

eguerdian zabalik!

BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa


Aurrekontua
konpromiso barik.

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

ELKAR ELEKTRAGINTZA

ZURE
ZERBITZURA!!

Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



**UDAL
EUSKALTEGIA**

euskaltegiak
urte

**Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna**

**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

Urte berrian, ez dakizula falta lortzeko ametsik,
garatzeko proiekturik,
ikasteko eta irakasteko zer eginik,
eta errespetuz jokatzeko kemenik

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

bergarako
aralar

www.aralar.net



ANDER BERRAONDO

Bedekarreko presidente
Bergara



MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

Margolaria
Bergara




ALAITZ JAUREGI

Haurreskolako irakaslea
Antzuola



JOSUNE MARTINEZ

Gazte Batzarreko kidea
Antzuola



MIGEL MONTORI

Erretiratuen elkarteko idazkaria
Antzuola

MERKATARIEN FERIA

Aurten lehenengo antolatu den Bedelkarren merkatarien feria aurrerapauso handia izan da. Herritarren harrera onak datorren urtean feria errepikatza ahalbidetuko du.

ARTEA, KALERA

Abendu erdialdean Bergaran egin zen artea kalean erakusteko ekimena idea ezin hobea izan da. Artistek euren lanak aretoetatik kanpo ere erakustea polita izango litzateke.

JENDEA, LAGUNTZEKO GERTU

Interesak interes, ordea, badago jendea laguntzeko gertu dagoena eta nik aurkitu dut jende jatorra aurrera egiteko indarra eman didana bai momentu onetan eta baita txarretan ere.

GAZETXEKO DINAMIKA

Antzuolan, gaztetxean dinamika sortzen hasi da eta hori aurrerapauso handia izan da gazteontzat, eta herriarentzat. Oraindik lan asko dago egiteko, baina hasi, behintzat, hasi gara.

TORRESOROA

Gizarte etxea zabaltzea oso ona da guretzat. Erretiratuen etxeen lehen ia gordean geunden eta orain dena da berria. Eguneko zentroa eta babespeko etxeak ere aurrerapausoa dira.

DIRU LAGUNTZAK BEHERA

Krisi ekonomikoak eragin zuzena du elkartearen eta datorren urterea begira Eusko Jaurlaritza ren diru laguntzak murriztu egingo dizkigute. Merkatartza txikian eragin zuzena izango du.

PARKEAK ZABALDU

Bergarako bost udal parkeak itxita daude, hau da, horma eta paretek berdeguneari itxita dagoen itxura ematen die. Untzeta-Arrizuriaga parkea da horren adibide garbia.

INTERESAK NAGUSI

Norberaren interesak errespetuaren gainetik ipintzen jarraitzen dugu eta horren ondorioz aurten ere atxiloketak, hilketak... egon dira. Dena, aldameneko kontuan ez hartzeagatik.

KRISIA

Lehendik munduan zeuden gauza txarrek berdin jarraitzen dute eta konpondu beharrean, konplikazio gehiagorekin eterri zaigu urte hau. Krisiaren eragin zuzena ikusi da eta ikusiko da.

GIMNASIOA

Amaitzar dagoen arren oraindik gimnasio berria erabiltseko moduan ez izatea. Orain egoera kaxkarrean gaude, komunik gabe eta lekurik gabe. Lehenbailehen gerta egotea nahi dugu.



ANTONIO DEOGRAZIAS

Aurre-erretiratua
Antzuola



JABI ETXANIZ

Anelkarreko presidente
Antzuola



EDUARDO ZUBIAURRE

ADEGIko presidente
Elgeta



JONE MUXIKA

Txirrindularia
Elgeta



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

Erretiratuen presidente
Elgeta

IGOGAILUA

Portalean igogailua ipini dute, eta, zahartzaroan egoitza batera joan behar badut, geroago joango naiz. Etxerik ere ez dute-nendako, beharbada, tontokeria da, baina niretzat aurrerapausoa.

EMAZTEAREN LAN FINKOA

Etxeko albiste batek poztu nau gehien. Emazteak, 21 urtez lanean jardun ostean, erizain lanpostu finkoa lortu du. Sistema ez dut gustuko, baina orain gustura egoteko arrazoia eman digu.

KONTZERTU EKONOMIKOA

Kontzertzut Ekonomikoak Europatik jaso duen babes eta Gipuzkoako Aurrera ekimen publiko-pribatua abian jarri izana. Biak baitira Gipuzkoaren etorkizunerako berri onak.

DENBORALDIKO EMAITZAK

Denboraldi honetan parte hartu dudan probetan, nire mai-lan, nahiko emaitza onak lortu ditut. Oso pozik nago, halaber, ingurukoengandik jaso dudan babesarekin.

BUSH BOTERETIK AT

Inbaditzairen eta petrolioaren garestitzearen errudun nagusia den Bush jauna eta bere alderdikideak boteretik kendu egin dituztela albiste ona izan da, zalantzarak gabe.

KRISI EKONOMIKOA

Ez dakit zergatia ulertzengun, baina ondorioak ikusteko gaude. Sistema ekonomikoa ez da batere justua. Batzuei dirua eman eta gose direnei apurrik ematea ere kostatzen zaie.

HILKETAK


Isaias Carrascoren eta Inazio Uriaren erailketak. Hiltzaileek, indarkeriaren aurka dagoen eta bake nahia duen euskal gizartearen gehiengoaren borondatea mespretxatzen dituztelako.

KRISIA ETA EMAKUMEAK

Egunotan bizi dugun krisi egoera larria da. Kaleratzeak han eta hemen, lan falta... Nire inguru, behintzat, nabaria da. Kirol munduan emakumeen aldeko ekimenak ere urriak dira.

KRISIA ETA LANGABEZIA

Munduaren jabe direla pensatzen duten jauntxo horien politika txarraren erruz sortu den ekonomiaren gainbehera eta horrek eragin duen langabezia egoera larria.



25 urte musika ikasten eta irakasten

**Gurekin ospatu 2009 urtea
Gabon zoriontsuak!**

Bergarako Musika Eskola

The image features a large photograph of a youth orchestra and choir performing on stage. The orchestra includes various brass and woodwind instruments. The choir consists of many young people in red shirts. The background shows stage lights and equipment. The text "BERGARAKO MUSIKA ESKOLA" is visible on a banner in the background.

TELAE TXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan



Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA•

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelabenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK



Bergarako ezker abertzalea

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 26a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKIAK: GOIENKARIA

LÄNDETXEA - CASA RURAL
EGUZKITZA



Eibarreko errepidea z/g
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com



Gabon zoriontsuak guztoio!



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:
ZELULAK
BIRSORTZEKO
KAPSULA
ETA MASAJEAK

URTE BERRI ON ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

DAN BAKA
III. M K A L E H E T E

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

urtarrilak
16
EGUBAKOITZA
22:30

SARRERAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO

KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOA KAFE ANTZOKIAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN

KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2 > 22 EURO 3 > 30 EURO

INFORMACIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM

**ETORRI
KONTZERTURA
ETA IRABAZ EZAZU
SNOWBOARD
TAULA BAT!**

FINALA

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZALEA
PREST

URTARRILA OTSAILA



"Oso pozik nago egin dudan lanarekin. Sasoi puntu onean eterri naiz eta nire helburua bete dut"

Jone Muxika
> 3. Espainiako Kros Txapelketan



"Pena handiz ixten dut; tertulia ederrak egin ditugu 40 urteotan"

Maria Asun Agirre
> Baltxongua dendakoa



"Salbador kalean lanak egitea beharrezkoa zen"

Xabier Ezpeleta
> Tabernaria

ONDAREA > ARGAZKIAK

Elgetako frontean ateratako argazki gehiago egon daiteke

Robert Capa gerra argazkilariak Espainiako Gerran ateratako negatibo bilduma batean Elgetako frontean egindako argazkiak egon daitezkeela jakin genuen urte hasieran.

Argazki horiek galdua egon ziren, 1995ean Mexikoko etxalde batean agertu ziren arte. Argaz-

kiak zituen familiaiak Caparen ondorengoko negoziatu du, eta New York hirian dagoen International Center of Photography erakundera eraman zituzten negatiboak urtarrilean. Negatiboak gordetzen dituen kutxetako batean *Elgeta-Elorrio-Eibar* irakur daiteke.

> LANAK
Salbador kaleko urbanizazio lanen hasiera

Urtarrileko bigarren hamabostaldian hasi ginen Salbador kaleko urbanizazio lanen eragina sumatzen. Lehenik eta behin, Kataiako arkuean aritu ziren beharginak. Ondoren, Lasao kalerainoko tartearen berritu zuten hoditeria. Lanondako sei edo zazpi hilabeteko iraupena aurreikusen zuten. Aurrekontua 451.818,18 euro zen.



Urtarrilaren 14an hasi zituzten lanak.

LANAK > AISIALDI GUNEA

San Roke osteko parke berria zabaldu zuten

Otsail amaieran zabaldu zuen Udalak San Roke osteko parke berria. Gunea, gainera, oinezkoen aisiaidirako egokitu zuten. Ibilgailuei sartzea eraozteko harriak ipini zituzten Eibarrerako bide ertzetan; eta hilerairen alde banatan, berriz, piboteak.

IBILALDITXOA PARKEAN

Lorategiak, belarguneak, atsedenerako eserlekuak, ibilaldirtxo bat... parkeak harrera ona izan zuen herritarren artean.

"Espero dugu aurrerantzean elgetarrek trankil paseatzeko leku bat edukitzea", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak.

> OMENALDIA
Jone Muxikak herritarren omenaldia jaso zuen

Otsailaren 10ean herritarrek omenaldia egin zioten Jone Muxika txirrindulari elgetarrari. Elgetako Txirrindulari Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatutako omenaldian bizikleta irteera, umeendako jokoak, omenaldi ekitaldia eta bazkaria egin zituzten. Muxikarenak egun garrantzitsua izan zen.

> GIDA
Elgetako bi ibilbide, mankomunitatearen gida berrian

Debagoieneko Mankomunitateak otsailean *Oinez Debagoina* izeneko gida kaleratu zuen. Bertan, 21 ibilbide labur jaso zituen; tartean, Elgetako bi: Intxorta-Asentzio, bi orduko txangoa, eta Elgeta-Aixola urtegia, lau orduko.

Gainerako ibilbideekin egin zen moduan, bi horiek seinaleztatu eta homologatu egin ziren.

> 'BARNE BARNETIK' DVD-A
Turismo promoziorako DVDA egin zuen Udalak

Otsailaren 7an aurkeztu zuen Elgetako Udaleko Turismo zinegotzi Edurne Alberdik *Barne Barnetik Elgeta* izeneko DVDA.

Galdare enpresak egin zuen 25 minutuko ikus-entzunezkoa. Bertan, Elgetaren kokapena, historia eta aisiaidirako hitzorduak jasotzen dira. Turismo promoziorako erabiliko dute aurrerantzean.

> DANTZALDIA
Erretiratuendako musika emanaldia antolatu zuen Udalak

Erretiratuekin lotutako ekin-tza gehiago prestatzeko ahaleginean, Udalak dantzaldia egin zuen otsailaren 16an Espaloian.

Elorrioko Arantza eta Pantxo bikoteak rancherak, tangosak, cumbiak eta milongak jo zituen erretiratuen gozamenerako. Asko elkartu ziren Espaloian, 70 bat inguru. Dantzaldi gehiago eskatu zituzten.

ELGETA AUTOAK
JULIAN SANZ FERNANDEZ



Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

MARTXOA



"Herri barruak baino, auzoguneek eskatzen dute lan handiagoa"

Ricardo Landa
> Udal aparejadore berria



"Komertzialak ez diren film guztiak dute tokia zineklubean"

Julio Calleja
> Elgetako zinekluba

KIROLA > IRAUPENEKO ESKIA

Laponiako proba baten izan zen Alberto Agirreazaldegi

Rajalta Rajalle Hiiito izeneko iraupen eskuiko proba egin zuen Alberto Agirreazaldegi elgetarrak: Errusiako mugatik Suediako mugarainoko luzera duen proba, hain zuzen ere. Abenturazale amorratua eta blogaria da Agirreazaldegi. Hala, bere abentura gertutik jarraitzeko

aukera eman zuen *Ibiltarixanak* izeneko blogean (www.blogak.com/ibiltarixanak).

ETAPA GOGORRAK

440 kilometroko proba egitera joan zen elgetarra Laponiara. 17 bat laguneko euskaldun taldearekin joan zen.



Agirreazaldegik Andoni Aizpururekin egin zuen topo Laponiako proban.

> HAUTESKUNDEAK 08 Jeltzaleak nagusi Gorteetarako hauteskundeetan

Elgetan EAJ nagusitu zen martxoaren 9ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Botoen %44,32 jaso zituen. PSOEk ez beste alderdi guztiak behera egin zuten. Aralarrek botoen %25,23 jaso zituen; PSOEk %15,23; PPk %2,27; eta EBk %2,50. Abstentzia aurreko hauteskundeetakoaren bikotza izan zen, %43,11.

> HIRIGINTZA Energia kontsumoa murrizteko laguntzak Foru Aldunditik

Elgetako Salbador kaleko 30. ataria, Torrealdea kaleko 7, 8, 9 eta 10 atariak eta Domingo Iturbe kaleko 3. ataria energia aurrezko Suradesa enpresak kudeatutako proiektuan murgildu ziren.

Eraikinak isolatu dituzte termikoki beroa irten ez dadin, eta kontsumoaren fakturan eta erosotasunean irabazi.

APIRILA



**"Nabaritu dut herrian nirea dela
denda bakarra; orain lehen baino
jende gehiago etortzen da"**

Bea Bouzas
> Dendaria

ETXEBIZITZA > TORREALDEA

Apirilean eskuratu zitzuten etxeko giltzak onuradunek

Apirl amaieran eskuratu zitzuten etxeko giltzak Torrealdeko babes ofizialeko 20 etxebizitzen onuradunek. "Gura genuen baino beranduago eman ditugu giltzak azkenean, baina espero dugu aurrerantzean gauzak hobe joatea", adierazi zuen Oxel Erostabarre alkateak.

ATZERAPENAREKIN

Argindar zein ur hornidura arazoak tarteko, berandu egin zen etxebizitzak horien ematea.

Hurrengo, Uruburuko etxebizitzen txanda izan zen. Horien ematea ere atzeratu egin zen, transformadorearen leku aldatzeko sortutako arazoak tarteko.



> KIROLA Aitor Bolinagak, 23 itzuli Aixolako urtegiari 9 ordu eta erdian

Apirlaren 3an Aitor Bolinagak 23 itzuli eman zizkion Aixolako urtegiari bederatzi ordu eta erdian. 100,600 kilometro egin zituen Tximis lagunarekin batera 09:32:15eko denboran.

Zergatik egin zuten marka hori? "Gorputza proban jartzearen", esan zuen elgetarrak. Dueña hamar bat urte hasi zen maratoietan eta ultramaratoietan.

Aitor Bolinaga elgetarra.

ILE ADAINDEGIA
Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

**Marijok
Gabon zoriontsuak
opa dizkizue!**

autobus
Arata

Zorionak eta urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45
San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70

MAIATZA



"Gazte talde bat lanerako gertu azaldu da eta, beste urtebetetan, Mendi Kriteriuma egingo dugu"

Emilio Mandaluniz

> Elgetako Txirrindulari Elkarteko presidente

EKAINA



"Ni herri txiki bateko naiz eta asko gustatzen zait Elgeta"

Nacho Insa

> Futbol jokalaria



"Trukearen helburua da egunen batean afaritxo bat egitea"

Gorka Arizmendiarrieta

> Espaloiko langilea

INGURUMENA > I. ASTE BERDEA

Lehenengo Aste Berdean ura izan zuten aztergai herrian

Herritar guztiei eta bereziki umei zuzenduta, Elgetako I. Aste Berdea egin zuten Udalak eta Herri Eskolak elkarlanean.

Eskolako Agenda 21 programaren barruan, eskolako umeak udaletxeen izan ziren, uraren kontsumo arduratsua egiteko alkateari hainbat proposamen

egiten. Udaletxeko iturrieta urerreduktoreak edo difusoreak jartzeko konpromisoa hartu zuen alkateak.

Gainera, herritarren artean horrelako hiru tresna banatziren doan, uztail hasierara arte. Ekimenak harrera ona izan zuen herrian.

> SARIA
Zilarrezko Odol Tantsaria jaso zuen Elgetako Udalak

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak emandako saria jaso zuen Elgetako Udalak. Urtean mila biztanleko 50 odol ateratzeari gehiago egin dituzten udalerriak saritu zituzten Batzar Nagusietako eraikin berrian izandako ekitaldian.

Saria Oxel Erostarbe alkateak, Maria Asun Agirrek eta Isabet Oiangurenak jaso zuten.

> ERASOAK
Intxortako Atea eskultura birritan zikindu zuten

Maiatzean, minarelez osatutako hareazko txorroekin garbitu behar izan zuten Intxortako Atea monumentua. Birritan egin zioten eraso Asentzion dagoen eskulturari.

Lehenengoan Espainiako ikurrak marraztu zituzten bertan, eta bigarrengoa, ETAren aldekoak. Eskultura garbitzeak 4.000 eurotik gorako gastua izan zuen.

AGINTALDIA > LEHENENGOKO URTEAREN BALORAZIOA

Elgetako Abertzaleak, udal kudeaketarekin kritiko

Agitaldiko lehenengo urtearen inguruko balorazioa eskanuta, Elgetako Abertzaleak taldeak adierazi zuen Aralarrek, Edurne Alberdik eta Leire Basaurik osatutako udal gobernuak aurreko agintaldian martxan jarritako proiektuak besterik ez dituztela bultzatu.

Oxel Erostarbe alkate "presidentzialista" dela adierazi zuten eta arduratuta agertu ziren Udalaren zorraren handitzearekin.

Oso bestelako iritzia agertu zuen Aralarrek eta oposizio merkeak egitea egotzi zion Elgetako Abertzaleak taldeari.



Mendi museoaren proiektua "pikutara" bota izana salatu zuten.

> TXIRRINDULARITZA
Jone Muxika izan zen lehen emakumea Quebrantahuesos-en

Ibarreko denbora onenak Elgetako txirrindulariek egin dituzte aurtengo Quebrantahuesos proban. Jone Muxika izan zen Sabiñanigoko proban emakume azkarrena (6:29:09) eta mutiletan Oskar Askasibar Debagoieneko lasterrena (6:03:21). Elgetako hamar lagunek hasi eta amaitu zuten proba.

> I. MOTOR JAIA
Antolatzailak gustura agertu ziren lehen edizioarekin

Indar askotariko motorrak, larruzko txupak, kaskoak... Euskal Herritik, Kantabriatik eta Huescatik etorritako motorzaleak batu ziren ekaineko bigarren aste bukaieran herrian egindako I. Motor Jaian. Ibilbideak, boleta jokoak, akrobazia ikuskizuna... hiru eguneko ekintzak askotarako eman zuen.

*Elena Elkorok zorionik beroenak
opa dizkizue elgetar guztioi.*

Zorionak eta urte berri on!

UZTAILA



"Nahiko genuke haurreskola berria urtarrilean zabaltzea"

Rebeka Ubera
> Kultura zinegotzia



"Danbaka musika lehiaketan guztiak izango dira irabazle"

Iker Barandiaran
> Danbaka

JAIAK > FERIXA NAGUSIA

Jaietan handia izan zen herritarren parte-hartzea

Elgetako Udala pozik agertu zen herriko jaietan herritarren parte-hartzea handia izan zelako. Horixe izan zen egindako balorazioa.

Udalak norbanakoentzat eta elkarteen laguntza eskertu zuen. Hobetu beharreko gauzen artean domeka iluntzeko maria-

txiak nabarmendu zituzten, soinua eskasa izan zelako.

APURKETAK

Apurketak ere izan ziren, ordea, jaietan. Sei zakarrontzi erre zituzten eta kaleak garbitzeko hartu zen enpresaren makina erretzen saiatu ziren.

> ETXEBIZITZA Okupazio baimena Uruburuko etxebizitzendako

Elgetako udalak uztail hasieran eman zuen okupazio baimena Uruburuko etxebizitzetako berriendako. Gaiak hautsak harrotu zituen herrian izan ere atzerapena nabaria izan zen. Udalak argitu gura izan zuen transformadorearen gaia izan zela Uruburuko etxebizitzak atzeratzearen arrazoi nagusia.

> AZPIEGITURAK Saihesbidearen bigarren faseko proiektua onartu zuten

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgetako saihesbidearen bigarren faseko proiektua onartu zuen. 2005. urte amaieran zabalduak saihesbidearen luzapena izango da. Proiektuaren arabera, errepide berriak 3,50 metroko zabalerako bi bide izango ditu eta bi biribilgunek eta 70 metro luze izango den tunel artifizial batek osatuko dute.



Elgetako saihesbidearen bigarren faseko proiektuaren trazatura.

ABUZTUA



"Huescan egin den Peña Canciasen lasterketa oso gogorra izan da bero ikaragarria egin duelako"

Oihana Kortazar
> korrikalaria

KIROLA > FUTBOLA

Bi denboraldiren ostean, futbol taldearen agurra etorri zen

Gutxik uste zuten gauzatuko zenik, baina ilusio handiarekin taldea osatu, entrenatzailea topatu, federatu, futbol zelaia lortu eta 2. erregional mailako txapelketan parte hartu zuen futbol taldeak bi denboralditan. Aurrera ez jarraitzeko erabakia etorri zen, ordea, denboraldia amaitutakoan.

JOKALARI FALTAN

"Bi urte hauek esperientzia polita izan dira, baina dauden jokalariak adinean aurrera doaz eta ez dago erreleburik", adierazi zuen taldeko presidente Jabier Bolinagak. "Lagunartean erabaki zen taldea osatzea eta lagunartean erabaki da ez jarraitzea".



Urbanizazio lanak azken txanpan.



*Hierros Naparra
eta Metales Bolinagaren izenean*
*Zorionak
eta urte berri on!*



IRAILA



"Kontzertu Ekonomikoa gure burujabetzaren oinarri garrantzitsua da, eskubide bat da"

Eduardo Zubiaurre
> Adegiko presidentea

URRIA



"Hiru pintxo aurkeztu ditut lehiaketara, eta pozik nago sariarekin"

Arantxa Aretxaga
> I. pintxo lehiaketako irabazlea



"Perretxiko erakusketa ere lan handia egin du jendeak"

Edurne Alberdi
> Turismo zinegotzia

JAIA > AZOKA ETA SAGARDO EGUNA

Tortilla lehiaketan 31 taldek jardun zuten lehian

Fly taldeko mutilek irabazi dute aurtengo tortilla lehiaketa; gaztetxeak antolatu zuen, Sagardo Egunaren barruan. Dekorazio onenaren saria Maya taldearen-dako izan zen eta azken postuan Sargorita taldeko neska gelditu ziren. Nabarmenzekoia izan zen parte hartzetako handia.

BASERRITAREN AZOKA
Eguna berean, baina goizetik, Elgetako baserritarren 3. azoka egiten herriko plazan. Ogia, gazta, barazkiak, frutak eta eztia ekarri zituzten baserritarrek plazaera. Ondo eta azkar saldu zituzten ekarritakoak. Pozik joan ziren etxera.

> ZIRKULAZIOA
Salbador kalean aparkatzea debekatu zuen Udalak

Salbador kaleko urbanizazio lanak amaituta, Udalak kale horretan aparkatzea debekatu zuen oinezkoek lehentasuna izan dezaten. Idatzi baten bidez kaletarrei jakinarazi zitzaien zamalanetarako bakarrik aparkatu ahal izango zela bertan, gehienez 15 minutuz. Zoritxarrerez, baina, ez zuten guztiak neurria aintzat hartu.

> MOTORRA
Vespa sidekarrak izan ziren izarrak motor kontzentrazioan

56 motor klasiko batu dira aurten Vespa eta Lambretta motorren topaketan: 36 Lambretta eta 20 Vespa, hain zuzen.

Aurten izarrak Valladolid ingurutik ekarritako hiru Vespa sidekar izan dira. Horiekin eta gainontzeko Vespa eta Lambretta motorrekin 40 bat kilometro egin zituzten Durangaldean eta Debagoienean barrena.

AISIALDIA > KIROLA

Egokik makina bat ekintza antolatu ditu urtean zehar

Udalak eta herritar talde batek osatzen dute Egoki taldea. Helburua da herrian jarduera fisikoa bultzatzea, eta horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte aurten ere adin guztiako herritarrendako. Ez dira beti guztiak aurrera ateria, izan ere eguraldiak asko baldintza-

tzen ditu horrelako ekintzak baina harrera ona dute.

'ELGETAKO LAU HANDIAK'
Egokik antolatutako *Elgetako lau handiak* izeneko ibilbidea egin zuen talde batek. Azkonabitxara, Eguarbitzara, Erdellara eta Intxortara igo ziren.



Elgetako lau handiak ibilbidea egin zuteneko argazkia Intxorta gainean.

> POLITIKA
Franco Elgetako ohorezko alkate izan da urriaren 30era arte

Francisco Franco 1949a ezkerro izan da Elgetako ohorezko alkate. Urriaren 30eko osoko bilkuran indargabetu zuten izendapena, diktadorea hil eta 33 urtera.

Artxibotara jo eta ikusi zen 1949ko abuztuaren 20an izendatu zutela Franco Elgetako ohorezko alkate, Bartolome Elkoro alkate zela.

> ISOLAMENDU LANAK
Energia aurreztekoko lanak herriko bost eraikinetan

Isolamendu termikorako lanak egin dituzte Salbador eta Torrealdeko bost eraikinetan. Debagoienean, Elgeta da Suradesaren fatxaden isolamendua helburu duen programan eraikin gehien sartu diren herria. Lanak amaitutakoan datu bilketa egingo dute, energia aurrezkiez zebeteko den jakiteko.

JUAN BERISTAIN NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03



HONDA STIHL® SAME BCS CARON VIKING®



BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel.: 943 76 82 21

Urte berri on zoriontsua!

AZAROA



"Ona da ume txikiek eta nagusitxoagoek batera jolas egitea"

Mireia Berriozabal
> Ludotekako hezitzalea



"Pena handiarekin noa; oso gustura ibili naiz 17 urteotan"

Nestor Maidagan
> Praktikantea

AISIA > LAGUNARTEA

Aurten ere, Hondarribiko arraunlariak Elgetan

Herriko bi koadrilak gorbida-tuta aurten ere Hondarribia Arraun Elkarteko kideak Elgetan izan dira. Zuzendaritzako kideak, arraunlari taldea eta lagunak.

Badira bospasei urte Ama Guadalupeko trainerukoak Elgetara etortzen direla.

TXANGOA ETA HERRI KIROLAK

Egun pasa etorri ziren arraunlariak eta Asentzioko Intxortako Atea ikustera eraman zituzten. Herri kirolak ere egin zituzten herriko bi koadrilekin batera. Nola ez, festa ezin hobean eta mahai inguruaren amaitu zuten.



Hondarribiko arraunlariak eta Elgetako jarraitzaileak Intxortako Atea.

> MENDI LASTERKETA Oihana Kortazarrek errekorra egin zuen Karakateko igoeran

Mendi lasterketetan bikain ibili da Oihana Kortazar elgetarra. Azaroaren 15ean Karakateko igoera irabazi zuen. 36 minuto eta 52 segundoko marka egin zuen tontorrean, orain arteko errekorra. "Lehenbiziko aldia zen Karakatera igotzen nuena eta ondo moldatu nintzen. Proba lehergarria da, azkarra oso".

> ATLETISMOA 31 elgetarrek amaitu zuten Behobia-Donostia proba

Elgetako 31 lagun iritsi ziren azaroaren 9an Donostiako helmugara. Eguraldi beroarekin eta hezearekin egin zuten Behobia eta Donostia arteko bidea. Herri mailan azkarrena Igor Lazkano Arana izan zen. Haren denbora: 01:13:54. Sei minutu geroago sartu zen helmugan Iban Uribetxebarria (01:19:42).

ABENDUA



"Txapelketa ondo joan da aurten, bikote asko aritu dira lehian eta giro ona egon da Udal Pilotalekuaren"

Fernando Zenitagoia
> 4 t'erdiko pilotu txapelketa

UDALA > 'ELGETA DANON ARTIAN' EKIMENA

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko zortzi foro

Maihain gainean dituen hainbat gairen inguruan herritarren iritzia batzeko *Elgeta danon artian* ekimena ipini du martxan Udalak.

68 galderaz osaturiko inkesta banatu du Udalak etxeetako etxetako hausnarketarako zortzi foro egingo ditu.

HERRITAREN HITZA

Elgetako mugikortasuna, agintaldiko plana, Agenda 21eko ekin-tza plana, PERa –erdigunea birgaitzeko plana–, kirol azpiegiturak egunearatza, herriko komertzioa indartzea eta herriko nekazaritzari bultzada ematea aztertuko dira foro horietan.



Elgeta danon artian egitasmoaren aurkezpen ekitaldia.




**Beak Gabon zoriontsuak
opa dizkizue!**

Andra Mari 2 ELGETA Tel.: 943 76 80 98

BOLATOKI

t
a
b
e
r
n
a



Ondo pasau Gabonak!

Artekale 2 ELGETA
Tel.: 943 76 82 84

BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

Haurreskola
(0-2 urte)
Boni Laskurain 15
Martínez Irala ikastetxea
Tel: 943762596
bergara.bergara@haurreskolak.net

San Martin
HAUR HEZKUNTZA (2-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
Boni Laskurain 25
Tel.: 943 76 21 47/ 688666943
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola

Boni Laskurain 17-19 Tel: 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza/

Ipintza
DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)
Giza eta Gizarte Zientziak- Zientifiko Teknologikoa

M. Altuna
LANBIDE HEZIKETA

- Erdi mailako Zikloak (16 urtetik aurrera)
- Goi mailako Zikloak (18 urtetik aurrera)
- Mekanika
- Elektrizitatea
- Administrazioa
- Eskaintza partziala
- Zikloetan sartzeko kurtsoa
- Graduondoa

Ibargarai 1
Tel.: 943 76 24 91 / 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com

HHI-EPA
(18 urtetik gorakoentzako)
-Alfabetizazioa (etorkinentzako)
-Kultura orokorra
-DBH
-Unibertsitatean sartzeko kurtsoa
-Euskara, Inglesa eta Frantsesa
-Informatika

Barrenkale 33-2
Tel.: 943 76 44 52
012266aa@hezkuntza.net

San Martin - Ipintza - M. Altuna - HHI-EPA - Haurreskola

argazki zaharra**Olentzero lepoan hartu eta etxez etxe kantuan Bergaran**


1981 edo 1982. urtea izango zen. Irudiko mutikoek zortzi bat urte izango zuten orduan eta urtero bezala, kantuan ibili ziren etxez etxe. Mizpirualde egoitzara ere joan ziren hango nagusiei abestu eta eguna pixka bat alaitzera, irudian ikus daitekeen moduan. Batzen zuten dirua Lazkano zapata dendako lehen solairuan

zenbatu eta gero, apur bat eurendako gordetzen zuten eta gainerakoa, On Serafin Esnaolari ematen zioten.

Aurreko ilaran, ezkerretik eskumara: Asier Lazkano, ezezaguna, Erik Linazisoro, Unai Lonbide eta Maria Torre. Bigarren ilaran, ezkerretik eskuma-

ra: Margarita, Jose Ramon Iturbe, Itziar Ezpeleta, Mikeldi Garmendia, Mikel Arregi, Mari Diez *La Rusa*, Andoni Linazisoro, Luisa Mujika eta Juanita.

Argazkia: Bergarako Udal Artxiboa. **Miguel Angel Elkorberezibar fondoak.**
Egilea: Serafin Esnaola. **Testua:** Goienkaria.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

**Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua**

**Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua**

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

**Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32**

**Zorionak
eta urte
berri on!**

Goiz Argi



Etxez etxeko laguntza

- Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
- Pertsonal aditua.

Gabon zoiontsuak igaro!

Simon Arrieta 2a (Solairu artea B)
Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

Zorionak eta Urte berri on!

Ibargarai kalea 43, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 22 48

ORDUTEGIA:

Astelehenetik -Ostegunera: 09.30 - 12.00 / 15.30 - 18.30
Ostiralak: 09.30-18.30
Larunbatak: 08.30 - 12.30

Jean
Louis
David

w w w . j e a n l o u i s d a v i d . c o m





alet

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

*Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa*

Zorionak eta urte berri on!



Amillaga 10 BERGARA 20570 (Gipuzkoa)
620 56 13 16 / 669 36 69 53 • Faxa: 943 76 20 52
e-maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com

Erregistro industriala: 20/28318 • INSTAGlren sozietate elkartua